iPhone 5

iOS 6 softwarerako Erabiltzailearen eskuliburua



Euskaltelek itzulitako eta ekoiztutako eskuliburua



Edukia

1. kapitulua: Ikuspegi orokorra 8 8 iPhone 5en ikuspegi orokorra 8 Osagarriak q **Botoiak** Egoera-ikonoak 13 2. kapitulua: Sarrera 16 Bete beharreko baldintzak 16 16 SIM txartela instalatzea iPhonea konfiguratzea eta aktibatzea 17 iPhonea ordenagailura konektatzea Internetera konektatzea 18 Posta eta beste kontu batzuk konfiguratzea 18 Appleko IDa 19 Edukien kudeaketa iOS gailuetan 19 iCloud 20 iTunesekin sinkronizatzea 21 Frabiltzailearen eskuliburua iPhonean ikustea 23 3. kapitulua: Oinarrizko kontzeptuak 74 Aplikazioak erabiltzea 74 iPhonea pertsonalizatzea 28 Idaztea 30 Diktatzea 35 Ahots bidezko kontrola 36 Nola egin bilaketak 38 1akinarazpenak 39 Partekatzea 41 iPhonea telebista batera edo beste gailu batera konektatzea 42 AirPrint bidez inprimatzea 43 Apple entzungailuak 44 Bluetootha darabilten gailuak 45 Fitxategiak partekatzea 46 Segurtasun-funtzioak

48	Bateria
51	4. kapitulua: Siri
51	Zer da Siri?
52	Nola erabili Siri
56	Jatetxeak
57	Filmak
58	Kirolak
58	Diktatzea
59	Nola zuzendu Siri
61	5. kapitulua: Telefonoa
46	Telefono-deiak
66	FaceTime
67	Irudi bidezko ahots-postontzia
68	Kontaktuak
68	Deiak desbideratzea, deia zain eta deiak identifikatzea
69	Dei-tonuak, tonua/modu isila etengailua eta bibrazioa
69	Nazioarteko deiak
70	Nola doitu telefonoaren aukerak
72	6. kapitulua: Posta
72	Posta-mezuak irakurtzea
73	Nola bidali mezuak
74	Posta antolatzea
75	Mezuak eta fitxategi erantsiak inprimatzea
76	Posta-kontuak eta postako doikuntzak
78	7. kapitulua: Safari
82	8. kapitulua: Musika
82	Musika eskuratzea
82	Musika erreproduzitzea
85	Cover Flow
85	Podcastak eta audioliburuak
86	Erreprodukzio-zerrendak
87	Genius
88	Siri eta ahots bidezko kontrola
88	iTunes Match

89	Etxean partekatzea
90	Musikako doikuntzak
91	9. kapitulua: Mezuak
91	Nola bidali eta jaso mezuak
92	Elkarrizketak kudeatzea
93	Nola partekatu argazkiak, bideoak eta bestelako informazioa
93	Mezuen doikuntzak
95	10. kapitulua: Egutegia
95	Ikuspegi orokorra
96	Nola egin lan egutegi batekin baino gehiagorekin
97	Nola partekatu iCloudeko egutegiak
98	Egutegiaren doikuntzak
99	11. kapitulua: Argazkiak
99	Nola bistaratu argazkiak eta bideoak
100	Nola antolatu argazkiak eta bideoak
101	Streamingeko argazkiak
102	Nola partekatu argazkiak eta bideoak
103	Argazkiak inprimatzea
104	12. kapitulua: Kamera
104	Ikuspegi orokorra
106	HDR argazkiak
106	Nola ikusi, partekatu eta inprimatu
107	Argazkiak editatzea eta bideoak ebakitzea
108	13. kapitulua: Bideoak
111	14. kapitulua: Mapak
111	Nola bilatu kokapenak
113	Nola lortu argibideak
114	3D eta Flyover
114	Mapen doikuntzak
115	15. kapitulua: Eguraldia
117	16. kapitulua: Passbook
119	17. kapitulua: Oharrak
121	18. kapitulua: Gogorarazleak
123	19. kapitulua: Erlojua
124	20. kapitulua: Burtsa
6	

126	21. kapitulua: Kioskoa
127	22. kapitulua: iTunes Store denda
127	Ikuspegi orokorra
128	Nola aldatu arakatze-botoiak
129	23. kapitulua: APP Store denda
129	Ikuspegi orokorra
130	Aplikazioak ezabatzea
132	24. kapitulua: Game Center
132	Ikuspegi orokorra
133	Nola jokatu lagunekin
134	Game Centerren doikuntzak
135	25. kapitulua: Kontaktuak
135	Ikuspegi orokorra
137	Nola gehitu kontaktuak
138	Kontaktuen doikuntzak
139	26. kapitulua: Kalkulagailua
140	27. kapitulua: Iparrorratza
141	28. kapitulua: Ahots-oharrak
141	Ikuspegi orokorra
142	Nola partekatu ahots-oharrak zure ordenagailuarekin
144	29. kapitulua: Nike + iPod
146	30. kapitulua: iBooks
146	Ikuspegi orokorra
147	Liburuak irakurtzea
149	Apalategia antolatzea
150	Liburuak eta PDF dokumentuak sinkronizatzea
150	PDF bat inprimatzea edo posta elektroniko bidez bidaltzea
150	iBooksen doikuntzak
151	31. kapitulua: Podcastak
153	32. kapitulua: Irisgarritasuna
153	Irisgarritasun-funtzioak
154	VoiceOver
167	Nola bideratu sarrerako deien audioa
168	Siri

168	Hasierako botoia hiru aldiz sakatzea
168	Zooma
169	Testu handia
169	Koloreak alderantzikatzea
170	Hautatua irakurtzea
170	Testu automatikoa irakurtzea
170	Audio monoa
170	Audiofonoak
172	Eslei daitezkeen dei-tonuak eta bibrazioak
172	Alertetarako keinuak
172	Sarbide gidatua
173	AssistiveTouch
174	Irisgarritasuna OS Xn
174	TTY bateragarritasuna
175	Mezu elektronikoetako gutxieneko letra-tamaina
175	Eslei daitezkeen tonuak
175	Irudi bidezko ahots-postontzia
175	Teklatu panoramikoak
175	Telefono-teklatu handia
175	Ahots bidezko kontrola
175	Azpitituluekin
176	33. kapitulua: Doikuntzak
176	Hegazkin-modua
176	WiFi-a
178	Bluetootha
178	VPN
178	Internet partekatzea
179	Ez molestatzeko modua eta jakinarazpenak
181	Operadorea
181	Orokorra
190	Soinuak
191	Pantailaren distira eta atzealdea
191	Pribatutasuna
193	A eranskina: iPhonea lanean

193	Konfigurazio-profilak erabiltzea
194	Microsoft Exchangeko kontuak konfiguratzea
194	VPN sare batera sartzea
194	LDAP eta CardDAV kontuak
195	B eranskina: nazioarteko teklatuak
195	Nazioarteko teklatuak erabiltzea
196	Idazteko modu bereziak
199	C eranskina: segurtasuna, erabilera eta laguntza
199	Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua
202	Erabilerari buruzko informazio garrantzitsua
204	iPhonearen laguntza-webgunea
204	iPhonea berrabiaraztea eta leheneratzea
204	"Código incorrecto" edo "iPhone está desactivado" bistaratzen da
205	"Este accesorio es incompatible con el iPhone" bistaratzen da
205	Ezin dira ikusi mezuari erantsitako fitxategiak
205	iPhonearen segurtasun-kopiak egitea
208	iPhonearen softwarea eguneratzea eta leheneratzea
209	Softwareari eta zerbitzuari buruzko informazioa
210	iPhonea enpresa-giroan erabiltzea
210	Nola erabili iPhonea telefono mugikorreko beste operadore batzuekin
211	Hondakinei eta haiek birziklatzeari buruzko informazioa
213	Apple eta ingurumena

1 Ikuspegi orokorra

iPhone 5en ikuspegi orokorra



Oharra. iPhonearen aplikazioak eta funtzioak aldatu egin litezke kokapenaren, hizkuntzaren, telefonia-operadorearen eta iPhonearen modeloaren arabera. Telefonia mugikorreko sare baten bidez datuak bidaltzen edo jasotzen dituzten aplikazioek gastu gehigarriak izan litzakete. Jarri harremanetan zure operadorearekin iPhonerako tarifei eta prezio-planei buruzko informazioa eskatzeko.

Osagarriak

iPhonearekin batera, osagarri hauek datoz:



Apple entzungailuak: Erabili Apple EarPods entzungailuak urrutiko agintearekin eta mikrofonoarekin (iPhone 5, goian ageri da), eta Apple Earphones entzungailuak urrutiko agintearekin eta mikrofonoarekin (iPhone 4S edo modelo zaharrago bat) musika eta bideoak entzuteko eta telefono-deiak egiteko. Ikus "Apple entzungailuak", 44. orrialdean.



Kablearen konexioa: Erabili Lightning USBrako kablea (iPhone 5, goian bistaratzen da) edo Dock USBrako kablea (iPhone 4S edo modelo zaharrago bat) iPhonea ordenagailura konektatzeko, informazioa sinkronizatzeko eta bateria kargatzeko. iPhonearen Dockarekin ere erabil daiteke kablea (bereiz saltzen da).



Appleren USB korronte-egokigailua: USBrako Lightning kablearekin edo USBrako Dock konektorearen kablearekin batera erabiltzen da, iPhonearen bateria kargatzeko.

SIM txartelak egozteko tresna: SIM txartelaren erretilua ateratzeko aukera ematen du. (Ez dakar leku guztietan).

Botoiak

Egonean/aktibatuta botoia

iPhonea erabiltzen ari ez zarenean, blokeatu egin dezakezu, pantaila itzali eta bateria aurrezteko.

iPhonea blokeatzeko: Sakatu egonean/aktibatuta botoia.

iPhonea blokeatuta dagoenean, ez da ezer gertatzen pantaila ukitzen bada. Dena dela, deiak, testu-mezuak eta beste eguneraketa batzuk jaso ditzake iPhoneak. Hauek ere egin ditzake:

- Musika entzun
- Bolumena doitu

 Entzungailuen erdiko botoia erabili deiei erantzuteko edo musika entzuteko



iPhonea desblokeatzeko: Sakatu hasierako botoia 🗆 edo egonean/ aktibatuta botoia, eta, gero, arrastatu erreguladorea.

iPhonea itzaltzeko: Sakatu segundo batzuez egonean aktibatuta botoia, harik eta erreguladore gorria agertu arte, eta arrastatu.

iPhonea pizteko: Luze sakatu egonean/aktibatuta botoia, Appleren logotipoa agertu arte.

iPhonea blokeatuta dagoela kameraren aplikazioa irekitzeko: Sakatu hasierako botoia ○ edo egonean/aktibatuta botoia, eta, gero, arrastatu ② gora.

iPhonea blokeatuta dagoela audio-kontroletara sartzeko: Sakatu bi aldiz hasierako botoia.

iPhonea blokeatu egiten da minutu batez (gutxi gorabehera) pantaila ukitzen ez baduzu. Doitu egin dezakezu iPhoneak automatikoki blokeatzeko beharko duen denbora (edo doikuntza hori desaktibatu), eta desblokeatzeko kode bat eskatu.

Automatikoki blokeatzeko denbora doitzeko edo desaktibatzeko: Ikus "Blokeo automatikoa", 186. orrialdean.

iPhonea desblokeatzeko kode bat eskatzeko: Ikus "Kode bidezko blokeoa", 186. orrialdean.

Hasierako botoia

Hasierako botoiak 🖸 pantaila nagusira eramango zaitu, egiten ari zarena egiten ari zarela ere. Beste funtzio azkar batzuk ere baditu, oso praktikoak.

Pantaila nagusira joateko: Sakatu hasteko botoia 🔾 .

Pantaila nagusian, sakatu aplikazio bat, irekitzeko. Kontsultatu **"Aplika**zioak irekitzea eta batetik bestera aldatzea", 24. orrialdean.

Azkena erabilitako aplikazioak bistaratzea: iPhonea desblokeatuta dagoela, sakatu bi aldiz hasierako botoia. Aldi bereko zereginen barra bistaratzen da pantailaren beheko aldean, eta azkena erabilitako aplikazioak bistaratzen dira. Eraman barra ezkerrerantz aplikazio gehiago ikusteko.

Audioaren erreprodukzio-kontrolak bistaratzea:

Siri (iPhone 4S edo modelo berriago bat) edo ahots bidezko kontrola erabiltzea: Luze sakatu hasierako botoia D. Ikus 4. kapitulua, "Siri", 51. orrialdean, eta "Ahots bidezko kontrola", 36. orrialdean.

Bolumen-kontrolak

Telefonoz hitz egiten ari zarenean, edo musika, filmak edo beste multimedia-fitxategi batzuk entzuten, soinuaren bolumena iPhonearen albo bateko botoien bidez doitu dezakezu. Gainerako kasuetan, botoi horiek txirrinaren, alerten eta beste soinu-efektu batzuen bolumena kontrolatzen dute.

OHARRA. Entzumen-galera prebenitzeari buruzko informazio garrantzitsua kontsultatzeko, ikus "Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua", 199. orrialdean.



Tonuen eta alerten bolumena blokeatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Sonidos eta desaktibatu "Ajustar con botones".

Musikaren eta bideoen bolumena mugatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Música > Límite de volumen. Oharra. Herrialde batzuetan, iPhoneak adierazi egiten du Europako Batasuneko jarraibideek adierazten dutena baino altuago jarri duzula bolumena. Bolumena maila horretatik igotzeko, askatu egin beharko duzu, labur, bolumen-kontrola.

Bolumen-botoietako edozein erabilita, argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko aukera ere baduzu. Ikus 12. kapitulua, **"Kamera"**, 104. orrialdean.

Tonua/modu isila etengailua

Mugitu tonua/modu isila etengailua iPhonea dei-tonuaren moduan 🌲 edo modu isilean 🔌 jartzeko.



Dei-tonuaren moduan, iPhoneak soinu guztiak erreproduzitzen ditu. Modu isilean, berriz, iPhoneak ez du jotzen, eta ez du ez alertarik ez beste soinu-efekturik igortzen.

Garrantzitsua. Ordulariaren alarmek eta audio-aplikazioek (Música funtzioak eta joko askok, adibidez) soinuak igortzen jarraitzen dute, bozgorailuaren bitartez, iPhonea modu isilean dagoenean. Zenbait lekutan, Camara eta Notas de Voz funtzioen soinu-efektuak erreproduzitu egiten dira, tonua/modu isila etengailua Silencio kokagunean egon arren.

Soinuaren eta bibrazioaren doikuntzak aldatzeko moduari buruzko informazioa eskuratzeko, ikus **"Soinuak"**, 190. orrialdean.

Ez molestatzeko modua ere erabil daiteke, deiak, alertak eta jakinarazpenak isilarazteko.

iPhonea ez molestatzeko moduan doitzea $\$: Zoaz Ajustes atalera, eta aktibatu ez molestatzeko modua. Ez molestatzeko moduak desaktibatu egiten du deien, alerten eta jakinarazpenen soinua, edo desaktibatu egiten du pantailaren argiztapena pantaila blokeatuta dagoenean. Alarmek, berriz, jotzen jarraituko dute, eta, pantaila desblokeatuta badago, ez molestatzeko moduak ez du izango inolako eraginik. Denbora-tarte bat definitzeko ez molestatzeko moduan, pertsona jakin batzuei deitzen uzteko edo dei errepikatuei jotzen uzteko, zoaz hona: Ajustes > Notificaciones > No molestar. Kontsultatu "Ez molestatzeko modua eta jakinarazpenak", 199. orrialdean.

Egoera-ikonoak

Pantailaren goialdeko egoera-barrako ikonoek iPhoneari buruzko informazioa ematen dute:

Egoera- ikonoa		Esanahia
	Telefonia mugikorreko seinalea*	Telefonia mugikorreko sare baten erradioan dagoen eta deiak egin eta jaso daitezkeen adierazten du. Zenbat eta barra gehiago izan, orduan eta indartsuagoa izango da seinalea. Seinalerik ez badago, barren ordez "Sin servicio" esaldia bistaratuko da.
ب	Hegazkin- modua	Avión modua aktibatuta dagoela erakusten du. Horrek adierazten du ezin dela telefonoa erabili, ezin dela Internetera konektatu, eta ezin direla Buetonti/ty gaiuak erabili. Hairrik gabeko funtioak erabilgarri daude. Ikus "Hegazkin-modua" , 176. orrialdean.
LTE	LTE	Zure operadorearen LTE sarea erabilgarri dagoela adierazten du, eta iPhonea Internetera konekta daitekeela haren bidez. [iPhone 5. Ez dago eskuragarri leku guztietarako.] Ikus "Datu mugikorrak" , 183. orrialdean.
4G	UMTS	Zure operadorearen 4G UMTS (GSM) sarea erabilgarri dagoela adie- razten du, eta iPhonea Internetera konekta daitekeela haren bidez. (Phone 4S edo berriago bat. Ez dago eskuragarri leku guztietarako.) Ikus "Datu mugikorrak" , 183. orrialdean.
3G	UMTS/EV-DO	Zure operadorearen 3G UMTS (GSM) edo EV-DO (CDMA) sarea erabilgarri dagoela adierazten du, eta iPhonea Internetera konekta daitekeela sare horren bidez. Ikus "Datu mugikorrak" , 183. orrialdean.
E	EDGE	Zure operadorearen EDGE (GSM) sarea erabilgarri dagoela adieraz- ten du, eta iPhonea Internetera konekta daitekeela EDGEaren bidez. Ikus "Datu mugikorak" , 183. orrialdean.
o	GPRS/1xRTT	Zure operadorearen GPRS (GSM) edo 1xRTT (CDMA) sarea erabilga- rri dagoela adierazten du, eta iPhonea Internetera konekta daiteke- ela sare horren bidez. Ikus "Datu mugikorrak" , 183. orrialdean.
¢	WiFi-a*	iPhonea WiFi bidez Internetera konektatuta dagoela adierazten du. Zenbat eta barra gehiago izan, orduan eta indartsuagoa izango da zure konexioa. Ikus "WiFi-a", 176. orrialdean.
L	Ez molestatu	Ez molestatzeko modua aktibatuta dagoela adierazten du. Ikus "Soinuak" , 190. orrialdean.
ଡ	Internet partekatzea	Adierazten du iPhonea Internet partekatzeko funtzioa duen beste iPhone bati konektatuta dagoela. Ikus "Internet partekatzea" , 178. orrialdean.

Egoera- ikonoa		
Ð	Sinkronizazioa	Adierazten du iPhonea iTunesekin sinkronizatzen ari dela.
$\frac{\mathbf{v}_{1}}{\mathbf{v}_{1}}$	Sare-jarduera	Sare-jarduera bistaratzen du. Hirugarren batzuen aplikazio batzuek ere erabil dezakete ikono hori, prozesu bat aktibo dagoela adierazteko.
(+	Deiak desbideratzea	iPhonean deien desbideratzea aktibatuta dagoela adierazten du. Ikus "Deiak desbideratzea, deia zain eta deiak identifikatzea" , 68. orrialdean.
VPN	VPN	Sare batera VPN bidez konektatuta dagoela adierazten du. Ikus "Datu mugikorrak" , 183. orrialdean.
a	Blokeoa	iPhonea blokeatuta dagoela adierazten du. Ikus "Egoneanjaktibatu- ta botoia ", 9. orrialdean.
0	τιλ	iPhonea TTY gailuarekin lan egiteko doituta dagoela adierazten du. Ikus "TTY bateragarritasuna" , 174. orrialdean.
•	Erreproduzitzea	Abesti, audio-liburu edo podcast bat erreproduzitzen ari dela adierazten du. Ikus "Musika erreproduzitzea" , 82. orrialdean.
e	Orientazio bertikalaren blokeoa	iPhonearen pantaila orientazio bertikalean jartzeko blokeatuta dagoela adierazten du. Ikus "Orientazio bertikala edo horizontala" , 27. orrialdean.
0	Alarma	Alarma bat aktibatuta dagoela adierazten du. Ikus 19. kapitulua, "Erlojua" , 123. orrialdean.
1	Kokapena	Itemen bat kokapen-zerbitzuak erabiltzen ari dela adierazten du. Ikus "Pribatutasuna" , 191. orrialdean.
*	Bluetootha*	Ikono urdina edo zuria: bluetootha aktibatuta dago, eta beste gailu bati lotuta. Ikono grisa: bluetootha aktibatuta eta beste gailu bati lotuta dago, baina gailua irismen-eremutik kanpo edo itzalita dago. Ikonorik ez: bluetootha ez dago beste gailu bati lotuta.
		Ikus "Bluetootha darabilten gailuak", 35. orrialdean.

Egoera- ikonoa		Esanahia
-	Bluetootharen bateria	Bluetootha darabilen lotutako gailu baten bateria-maila adierazten du.
	Bateria	Bateriaren edo kargaren egoeraren berri ematen du. Ikus "Bateria", 48. orrialdean.

* Osagarriak eta haririk gabeko konexioaren funtzionamendua: iPhonearekin zenbait osagarri erabiltzeak haririk gabeko konexioaren errendimenduari eragin diezaioke. IPodaren osagarri guztiak ez dira guztiz bateragarriak iPhonearekin. iPhonearen hegazkin-modua aktibatuz gero, iPhonearen eta osagarri baten arteko interferentziak ezaba daitzeke. Hegazkin-modua aktibatuta dagoen bitartean, ezingo duzu deirik egin eta jaso, eta ezingo dituzu erabili komunikazio mugikorra behar duten funtzioak. IPhonea eta konekitatutako osagarria mugituz gero, hobetu egin liteke haririk gabeko konexioaren funtzionamendua.

2 Sarrera

Ŵ

OHARRA. Lesiorik ez izateko, irakurri "Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua", 199. orrialdean, iPhonea erabili aurretik.

Bete beharreko baldintzak

iPhonea erabiltzeko, hau behar duzu:

- haririk gabeko zerbitzuaren kontratu bat zure eremuan iPhonerako zerbitzua ematen duen operadorearekin;
- Interneteko konexioa zure ordenagailuan (banda zabala izatea gomendatzen da).

 Appleko ID bat, zenbait funtziotarako (iCloud, App Store dendak eta iTunes Store) eta Internet bidezko erosketak egiteko. Konfigurazioa egitean sor daiteke ID hori.

iPhonea ordenagailuarekin erabiltzeko, hauek beharko dituzu:

- USB 2.0 edo 3.0 ataka bat duen Mac bat, USB 2.0 ataka bat duen PC bat eta sistema eragile hauetako bat:
- Mac OS X 10.6.8 edo berriago bat
- Windows 7, Windows Vista edo Windows XP Home edo Professional, Service Pack 3 edo berriago bat duena
- iTunes 10,7 edo berriago bat (zenbait funtziotarako); webgune honetan eskuragarri: www.itunes.com/es/download

SIM txartela instalatzea

SIM txartel bat eman badizute, instala ezazu iPhonea konfiguratu aurretik.

Garrantzitsua. SIM txartela beharrezkoa da telefonia mugikorreko zerbitzuak erabiltzeko, GSM sareetara eta CDMA sare batzuetara konektatzeko. Baliteke iPhone 4S batek edo modelo berriago batek, CDMA haririk gabeko sare batean aktibatu bada, SIM txartela erabiltzea GSM sare batera konektatzeko, batez ere nazioarteko desplazamendurako. Zure iPhoneak haririk gabeko zure zerbitzu-hornitzailearen politikak betetzen ditu, eta baliteke politika horietan mugaren bat egotea zerbitzu-horni-tzailea aldatzeari eta desplazamenduari dagokienez, nahiz eta gutxieneko zerbitzu-kontratua amaituta egon. Xehetasun gehiago izateko, jarri harremanetan haririk gabeko zerbitzuen hornitzailearekin. Telefonia mugikorreko funtzioen erabilgarritasuna haririk gabeko sarearen araberakoa izango da.

SIM txartela instalatzea iPhone 5en



SIM txartela instalatzeko: Sartu klip txiki baten muturra edo SIM txartela egozteko tresna SIM txartelaren erretiluaren zuloan. Atera SIM txartelaren erretilua, eta jarri han SIM txartela, irudian adierazten den moduan. Erretilua lerrokatuta eta SIM txartela barruan daudela, jarri erretilua bere lekuan, kontu handiz.

iPhonea konfiguratzea eta aktibatzea

iPhonea konfiguratzeko eta aktibatzeko, piztu iPhonea, eta jarraitu konfigurazio-laguntzailearen jarraibideei. Konfigurazio-laguntzaileak konfigurazio-prozesuan lagunduko dizu, adibidez, WiFi sare batera konektatzen, Appleko ID batekin saioa hasten, Appleko doako ID bat sortzen, iCloud konfiguratzen, gomendatutako funtzioak aktibatzen (kokapenekoa eta iPhonea bilatzekoa, esaterako) eta iPhonea zure operadorearekin aktibatzen. Konfigurazio-prozesuan, berrezartzeko aukera ere baduzu, iCloud edo iTunes segurtasun-kopia batetik abiatuta.

Aktibazioa WiFi sare baten bidez egin daiteke, edo, iPhone 45 modeloarekin edo berriago batekin, zure operadorearen telefonia mugikorreko sarearen bidez (ez dago eskuragarri leku guztietan). Bi aukera horietako bat ere ez badago eskuragarri, iTunes duen ordenagailu batera konektatu beharko duzu iPhonearen aktibazioa egiteko.

iPhonea ordenagailura konektatzea

Baliteke iPhonea ordenagailura konektatu behar izatea aktibazioprozesua amaitzeko. iPhonea ordenagailura konektatuta, informazioa, musika eta beste zenbait eduki sinkroniza ditzakezu iTunesekin. Ikus "**Tunesekin sinkronizatzea**", 21. orrialdean. iPhonea ordenagailura konektatzeko: Erabili USBrako Lightning kablea (iPhone 5) edo USBrako Dock konektorearen kablea (iPhone modelo zaharragoan), iPhonearekin batera datorrena.



Internetera konektatzea

iPhonea behar den guztietan konektatuko da Internetera, WiFi konexio baten bidez (eskuragarri badago) edo zure operadorearen telefonia mugikorreko sarearen bidez. WiFi sare batera nola konektatu jakiteko, ikus "WiFi-a", 176. orrialdean.

Oharra. Interneteko WiFi bidezko konexiorik ez badago, baliteke IPhonearen aplikazio eta zerbitzu batzuek zure operadorearen telefonia mugikorreko sarearen bitartez transferitzea datuak. Tarifa gehigarriak aplikatzea ekar lezake horrek. Jarri harremanetan zure operadorearekin telefonia mugikorreko datu-planen tarifei buruzko informazioa eskatzeko. Telefonia mugikorreko datuen erabilera kudeatzeko, ikus "Datu mugikorrak", 183. orrialdean.

Posta eta beste kontu batzuk konfiguratzea

iPhonea iCloud, Microsoft Exchange eta posta elektronikoaren, kontaktuen eta egutegien ohiko beste hornitzaile askorekin erabil daiteke Internet bidez.

Oraindik ez badaukazu posta elektronikoko konturik, konfiguratu doako iCloud kontu bat iPhonea konfiguratzen duzun lehen aldian, edo, gero, jo hona: **Ajustes > iCloud**. Ikus **"iCloud"**, 20. orrialdean.

iCloudeko kontu bat konfiguratzeko: Zoaz hona: Ajustes > iCloud.

Beste edozein kontu konfiguratzeko: Zoaz hona: Ajustes > "Correo, contactos, calendarios".

Zure enpresak edo erakundeak horretarako aukera ematen badizu, kontaktuak erants ditzakezu LDAP edo CardDAV kontu baten bidez. Ikus **"Nola gehitu kontaktuak"** atala, 105. orrialdean.

Egutegiak gehitu ditzakezu CalDAV egutegi-kontu bat erabiliz, eta

iCalendar (.ics) egutegietan harpidetu zaitezke, edo Mailetik inportatu ditzakezu. Ikus **"Nola egin lan egutegi batekin baino gehiagorekin"**, 72. orrialdean.

Appleko IDa

Appleko IDa doako kontu baten erabiltzaile-izena da, eta Appleren zerbitzuetara sartzeko aukera ematen du, hala nola iTunes Store, App Store denda eta iCloud. Appleko ID bakarra beharko duzu Applerekin egiten duzun erabilera orotarako. Baliteke zerbait kobratzea erabiltzen, eskuratzen edo alokatzen dituzun zerbitzu eta produktuen truke.

Appleko ID bat badaukazu, erabil ezazu iPhonea konfiguratzen duzun lehen aldian edo Appleko zerbitzu bat erabiltzeko saioa hasi behar duzunean. Oraindik ez badaukazu Appleko IDrik, sortu egin ahal izango duzu saioa hasteko eskatzen zaizunean.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikus support.apple.com/kb/ he37?viewlocale=es_ES.

Edukien kudeaketa iOS gailuetan

Zure iOs gailuen eta ordenagailuen artean informazioa eta fitxategiak transferitzeko aukera duzu iCloud edo iTunes erabiliz.

 iCloudek edukiak biltegiratzen ditu (musika, argazkiak, egutegiak, kontaktuak, dokumentuak eta bestelako fitxategiak) eta haririk gabe transferitzen ditu zure beste iOS gailu eta ordenagailuetara push teknologia erabiliz, guztia eguneratuta egon dadin. Ikus "iCloud", aurrerago.

 ITunesek musika, bideoak, argazkiak eta bestelako fitxategiak sinkronizatzen ditu zure ordenagailuaren eta iPhonearen artean. Gailu batean egiten dituzun aldaketak bestean kopiatuko dira sinkronizazio bat egiten duzunean. Bestela, iTunes erabil dezakezu fitxategi bat iPhonean kopiatu eta aplikazio gisa erabiltzeko edo ordenagailu batean kopiatzeko iPhonean sortutako dokumentu bat. Ikus "iTunesekin sinkronizatzea", 21. orrialdean.

iCloud, iTunes edo biak erabil ditzakezu, beharraren arabera. Adibidez, iCloudeko **"Fotos en streaming"** erabil dezakezu iPhonean ateratako argazkiak automatikoki zure beste gailuetan izateko, eta iTunes erabil dezakezu ordenagailuko argazki-albumak iPhonearen ordenagailuan sinkronizatzeko.

Garrantzitsua. Ez sinkronizatu iTunesen informazio-paneleko itemak (kontaktuak, egutegiak, oharrak), eta erabili iCloud zure gailuetan informazio hori eguneratua izateko ere. Biak eginez gero, baliteke datuak bikoiztea.

iCloud

iCloudek zure edukiak biltegiratzen ditu (musika, argazkiak, kontaktuak, egutegiak eta dokumentu bateragarriak, adibidez). iClouden biltegiratutako edukiak iCloudeko kontu berarekin konfiguratutako iOS gailuetara eta ordenagailuetara transferitzen dira, haririk gabe.

iCloud eskuragarri dago iOS 5 edo berriago bat duten gailuetan, OS X Lion 10.7.2 edo berriago bat duten Max ordenagailuetan eta Windowserako iClouden kontrol-panela duten PCetan (Windows Vista Service Pack 2 edo Windows 7 izan behar da).

Hauek dira iClouden funtzioetako batzuk:

• *iTunes en la nube*: Deskargatu iTunesen egindako aurreko erosketak (musika eta telebista-saioak) iPhonean, doan eta nahi duzunean.

• Apps y libros: Deskargatu App Store eta iBookstore dendetan egindako aurreko erosketak iPhonean, doan eta nahi duzunean.

 Fotos en streaming: Ateratzen dituzun argazkiak zure gailu guztietan bistaratuko dira. Argazki-sekuentziak ere egin ahal izango dituzu streaming-ean, beste batzuekin partekatzeko. Ikus "Streamingeko argazkiak" atala, 101. orrialdean.

 Documentos en la nube: Zure aplikazioetako dokumentu eta datu guztiak eguneratuak izango dituzu iCloud aktibatua baduzu zure gailu guztietan.

 Correo, contactos, calendarios: Eguneratuak izango dituzu postako kontaktuak, egutegiak, oharrak eta gogorarazpenak zure gailu guztietan.

 Copia de seguridad: Egin automatikoki iPhonearen segurtasun-kopiak iClouden elikadura-iturri bati eta WiFi sare bati konektatzean. Ikus
 "iPhonearen segurtasun-kopiak egitea", 205. orrialdean.

 Buscar mi iPhone: Kokatu zure iPhonea mapa batean, bistaratu mezu bat, erreproduzitu soinu bat, blokeatu pantaila edo ezabatu datuak urrunetik. Kontsultatu "Nire iPhonea bilatzea", 48. orrian.

 Buscar a mis amigos: Partekatu zure kokapena zuretzat garrantzitsuak diren pertsonekin. Deskargatu doako aplikazio hau App Store dendan.

iTunes Match: iTunes Matchen harpidetzen bazara, zure musika guztia (baita CDetatik inportatua edo iTunes ez den beste leku batean eskuratua ere) bistaratuko da zure gailu guztietan, eta nahi bezala deskargatu eta erreproduzitu ahal izango da. Ikus "ITunes Match", 88. orrialdean.

 Pestañas de iCloud: Ikusi zer webgune ireki dituzun zure beste iOS gailuetan eta OS X duten ordenagailuetan. Ikus 7. kapitulua, "Safari", 78. orrialdean. iCloudekin, posta elektronikoko doako kontu bat izango duzu, eta 5 GB, zure posta, dokumentuak eta segurtasun-kopiak biltegiratzeko. Erosten duzun musikak, telebista-saioek eta liburuek eta streaming-eko argazkisekuentziek ez diote lekurik kenduko zure espazio libreari.

iClouden saioa hasteko edo iCloud kontu bat sortzeko eta haren aukerak konfiguratzeko: Zoaz hona: Ajustes > iCloud.

iClouderako biltegiratze handiagoa eskuratzeko: Zoaz hona: Ajustes > iCloud > "Almacenamiento y copias", eta, gero, sakatu Gestionar almacenamiento. iClouderako biltegiratze-espazioa erosteari buruzko informazioa eskuratzeko, ikus help.apple.com/icloud.

Aurretik erositakoak ikustea eta deskargatzea:

- iTunes Store dendan egindako erosketak: Zoaz iTunesera, sakatu Más, eta, gero, sakatu Comprado.
- App Store dendan egindako erosketak: Zoaz App Store dendara, sakatu Actualizar, eta, gero, sakatu Comprado.
- iBookstore dendan egindako erosketak: Zoaz iBooksera, sakatu Store, eta, gero, sakatu Comprado.

Musika, aplikazio edo liburuen deskarga automatikoak aktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > iTunes Store y App Store.

iCloudi buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus www.apple.com/ esjicloud, www.apple.com/mx/icloud edo www.apple.com/la/icloud. Laguntza-informazioa eskuratzeko, ikus www.apple.com/es/support/ icloud, www.apple.com/mx/support/icloud edo www.apple.com/la/ support/icloud.

iTunesekin sinkronizatzea

iTunesekin sinkronizatuz gero, zure ordenagailuko informazioa iPhonera kopiatzen da, eta alderantziz. Sinkronizazioa egin dezakezu iPhonea ordenagailura konektatuz, edo, bestela, iTunes konfigura dezakezu haririk gabeko sinkronizazioa egin dezan WiFi bidez. iTunes konfigura dezakezu musika, argazkiak, bideoak, podcastak, aplikazioak eta bestelako fitxategiak sinkroniza ditzan. iPhonea ordenagailu batekin sinkronizatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ireki iTunes, eta, **Ayuda** menuan, hautatu **"Ayuda iTunes"**.

iTunesekiko haririk gabeko sinkronizazioa konfiguratzea: Konektatu IPhonea zure ordenagailura. iTunesen, ordenagailuan, aukeratu zure IPhonea ("Dispositivos" barruan), sakatu *Resumen*, eta aktibatu "Sincronizar via Wi-Fi".

WiFi bidezko sinkronizazioa aktibo badago, iPhonea egunero sinkroni-

zatzen da. iPhoneak elikadura-iturri bati konektatuta egon behar du, iPhoneak eta zure ordenagailuak haririk gabeko sari berera konektatuta egon behar dute, eta iTunesek irekita egon behar du ordenagailuan. Informazio gehiago lortzeko, ikus **"iTunesekin sinkronizatzea WiFi bidez"**, 185. orrialdean.

iTunesekiko sinkronizazioa egiteko aholkuak

- iCloud erabiltzen baduzu zure kontaktuak, egutegiak, gogokoak eta notak biltegiratzeko, ez sinkronizatu zure gailuarekin iTunes bidez.
- iPhonearen bidez iTunes Store edo App Store dendetan egindako erosketak iTuneseko liburutegiarekin sinkronizatzen dira. Halaber, edukiak eta aplikazioak ordenagailutik iTunes Store dendan deskargatu ditzakezu, eta, ondoren, iPhonearekin sinkronizatu.
- Gailuaren Resumen panelean, iTunes konfigura dezakezu gailuarekin automatikoki sinkroniza dadin gailua ordenagailura konektatzen denean. Doikuntza hori aldi baterako desgaitzeko, luze sakatu Comando eta Opción teklak (Mac) edo maiuskulak eta Control tekla (PC) iPhonea alboko barran bistaratzen dela ikusi arte.
- Gailuaren Información panelean, posta-kontuak sinkronizatzen dituzunean, doikuntzak soilik transferituko dira zure ordenagailutik iPhonera. iPhoneko posta elektrikoko kontuan egindako aldaketek ez diote eragiten ordenagailuko kontuari.
- Gailuaren Información panelean, sakatu Avanzado, hurrengo sinkronizazioan iPhonearen informazioaren ordez zure ordenagailuko informazioa jartzeko aukera emango dizuten aukerak hautatzeko.
- Podcast edo audio-liburu baten zati bat entzunez gero, zer lekutan utzi den ere jasoko da eduki hori iTunesekin sinkronizatzen bada. iPhonean entzuten hasi bazara, utzitako lekuan jarraitu ahal izango duzu iTunes ordenagailuan erabiliz, edo alderantziz.
- Gailuaren Foto panelean, zure ordenagailuko karpeta bateko argazkiak eta bideoak sinkroniza ditzakezu.

Erabiltzailearen eskuliburua iPhonean ikustea

iPhonearen erabiltzaile-eskuliburua Safarin kontsultatu dezakezu, iPhonean bertan, bai eta iBooks doako aplikazioan ere.

Erabiltzaile-eskuliburua bistaratzea Safarin: Sakatu iPhone, eta, gero, A sakatu **"iPhone Manual del usuario"** gogokoa.

 Eskuliburuaren ikonoa gehitzeko pantaila nagusiari: Sakatu 🖻, eta, gero, sakatu "Añadir a pantalla inicio".

• Eskuliburua beste hizkuntza batean ikusteko: Sakatu **"Cambiar idio**ma", eduki-orrialde nagusian.

Erabiltzaile-eskuliburua bistaratzea iBooksen: iBooks instalatuta ez badaukazu, ireki App Store, eta, gero, bilatu eta instalatu **"iBooks"**. Ireki iBooks, eta sakatu Tienda. Bilatu **"Usuario del iPhone"**, eta, gero, hautatu eta deskargatu eskuliburua.

iBooksi buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus 30. kapitulua, **"iBooks"**, 146. orrialdean.

3 Oinarrizko kontzeptuak

Aplikazioak erabiltzea

iPhonea erabiltzen duzu hatzen bidez sakatuz, bi aldiz sakatuz eta hatzak arrastatuz, edo elkartu eta bereiziz desplazatuz, ukipen-pantailako objektuen gainean.

Aplikazioak irekitzea eta batetik bestera aldatzea

Pantaila nagusira joateko, sakatu hasierako botoia 🗅.

Aplikazio bat irekitzeko: Sakatu.



Pantaila nagusira itzultzeko, sakatu berriro hasierako botoia 🗅. Beste pantaila nagusi bat ikusteko: Mugitu ezkerrera edo eskuinera.



Lehenengo hasierako pantailara joateko: Sakatu hasierako botoia 🔘. Azkena erabilitako aplikazioak ikusteko: Sakatu bi aldiz hasierako botoia 🖸 aldi bereko zereginen barra ikusteko. Sakatu aplikazio bat berriro erabiltzeko. Mugitu ezkerrera aplikazio gehiago ikusteko.



Azkena erabilitako aplikazioak

Aplikazio asko badituzu, agian Spotlight erabili nahiko duzun aurkitzeko eta irekitzeko. Ikus **"Nola egin bilaketak"**, 38. orrialdean.

Desplazatzea

Mugitzeko, arrastatu gorantz edo beherantz. Pantaila batzuetan (webguneetan, esaterako), alde batetik bestera ere mugi zaitezke. Hatza arrastatzen baduzu pantailan mugitzeko, ez duzu, ez ezer aukeratuko, ez aktibatuko.



Azkar mugitzeko, sakatu arin.



Mugimendua geratu zain egon zaitezke, edo pantaila uki dezakezu berehala geratzeko.

Webgune baten goialdera azkar joateko, sakatu pantailaren goialdeko egoera-barra.

Zerrendak

Zerrendaren arabera, item bat aukeratzeak ondorio desberdinak izan ditzake; adibidez, beste zerrenda bat ireki dezakezu, abesti bat erreproduzitu, posta elektronikoko mezu bat ireki, edo kontaktu bati buruzko informazioa bistaratu.

Zerrenda bateko item bat hautatzeko: Sakatu.

Zerrenda batzuek aurkibidea dute alboan, erraz nabigatu ahal izateko.

Store Artistas	
A	
Alex Clare	- 0 A
Andrew Bird	00
AU	7 0
R	
Ben Howard	×
Ben Kweller	M 10
Bob Dylan	0 8
c	A Y
Chantal Claret	¥
Coldplay	Y z
0	
8 D 1 1	

Arrastatu hatza aurkibidean azkar mugitzeko. Zuzenean atal batera joateko, sakatu letra bat.

Aurreko zerrenda batera itzultzeko: Sakatu atzera botoia (goiko ezkerreko ertzean).

Zooma irudietan

Aplikazioaren arabera, pantailako irudia handitu edo txikitu dezakezu zooma erabiliz. Argazkiak, webguneak, posta-mezuak edo mapak ikusten ari zarela, adibidez, elkartu hatzak pantaila gainean irudia urruntzeko, edo bereizi elkartzeko. Argazki eta webguneekin, bi aldiz sakatu dezakezu (azkar) irudia handitzeko, eta berriro bi aldiz txikitzeko. Mapekin, sakatu bi aldiz irudia gerturatzeko eta behin, bi hatzez, urruntzeko.



Zooma ere irisgarritasun-zerbitzu bat da, eta erabiltzen ari zaren aplikazioaren pantaila zabaltzeko aukera ematen du, pantailan ageri dena hobeto ikusi ahal izateko. Ikus **"Zooma"**, 168. orrialdean.

Orientazio bertikala edo horizontala

iPhonearen aplikazio asko orientazio bertikalean nahiz horizontalean ikus daitezke. Biratu iPhonea, eta pantaila ere biratu egingo da orientazio berriari doitzeko.

Pantaila orientazio bertikalean blokeatzeko: Sakatu bi aldiz hasierako botoia ○, eraman aldi bereko zereginen barra ezkerretik eskuinera, eta sakatu ◙.



Orientazioa blokeatzeko ikonoa 🛛 egoera-barran bistaratzen da pantailaren orientazioa blokeatuta dagoenean.

Distira doitzea

Eskuz doitu dezakezu pantailaren distira, edo **"Brillo automático"** aukera aktibatu, iPhoneak automatikoki doitzeko distira, integratua duen inguruko argiaren sentsorea erabilita.

Pantailaren distira doitzeko: Zoaz hona: Ajustes > "Brillo y fondo de pantalla", eta arrastatu erreguladorea.

"Brillo automático" aktibatzeko edo desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Brillo y fondo de pantalla. Ikus "Pantailaren distira eta atzealdea", 191. orrialdean.

iPhonea pertsonalizatzea

Zure aplikazioen kokapena alda dezakezu pantaila nagusian, karpetatan antolatu eta pantaila-atzealdea aldatu.

Aplikazioak berrantolatzea

Pertsonalizatu pantaila nagusia aplikazioak berrantolatuz, Dockera eramanez pantailaren behealdean zehar eta beste pantaila nagusi batzuk sortuz.

Aplikazioak berrantolatzeko: Luze sakatu pantaila nagusiko aplikazioak ikonoa mugitzen hasi arte. Gero, mugitu aplikazioak, arrastatuz. Sakatu hasteko botoia 🖸 antolaketa hori gordetzeko.



Pantaila nagusi berri bat sortzeko: Aplikazioak antolatu bitartean, arrastatu haietako bat pantailaren eskuineko muturreraino, beste pantaila bat bistaratu arte.

11 pantaila nagusi sor ditzakezu gehienez. Dockaren gainean ageri diren puntuek adierazten dute guztira zenbat pantaila dauden eta zein ari zaren bistaratzen.

Mugitu ezkerrera edo eskuinera pantaila batetik bestera joateko. Lehen pantaila nagusira joateko, sakatu hasierako botoia \Box .

Aplikazio bat beste pantaila batera mugitzea: Zure ikonoa mugitzen ari dela, arrastatu aplikazioa pantailaren ertzeraino.

Pantaila nagusia pertsonalizatzea iTunes erabiliz: Konektatu iPhonea zure ordenagailura. iTunesen, zure ordenagailuan, aukeratu iPhonea, eta, gero, sakatu "Aplic." Botoia, iPhonearen pantaila nagusiaren irudia ikusteko.

Hasierako pantailaren jatorrizko antolaera leheneratzeko: Ajustes atalean, joan hona: General > Restablecer, eta, gero, sakatu "Restablecer pantalla de inicio". Hasierako pantaila berrezartzean, sortutako karpeta guztiak ezabatuko dira, eta hasieran zenuen atzeko planoa izango duzu berriro.

Karpeta bidez antolatzea

Karpetak erabil ditzakezu pantaila nagusietan aplikazioak antolatzeko. Berrantolatu karpetak, aplikazioak bezalaxe, pantaila nagusietan edo Dockeraino arrastatuz.

Karpeta bat sortzeko: Ukitu aplikazio bat pantaila nagusiko ikonoak mugitzen hasi arte, eta, gero, arrastatu aplikazioa beste baten gainera.



iPhoneak beste karpeta bat sortuko du, bi aplikazioak barnean hartuko dituena, eta izena jarriko dio, aplikazio-moten arabera. Beste izen bat jartzeko, sakatu izenaren eremua.



Karpeta bat irekitzeko: Sakatu karpeta. Karpeta bat ixteko, sakatu karpeta kanpoan, edo, bestela, ukitu hasierako botoia 🗅.

Aplikazioak antolatzea karpeta bidez: Aplikazioak antolatu bitartean (ikonoak mugitu egiten dira):

 Aplikazio bat gehitzeko karpeta bati: Arrastatu aplikazioa karpeta gainera.

 Aplikazio bat ezabatzeko karpeta batetik: Ireki karpeta, beharrezkoa bada, eta arrastatu aplikazioa handik kanpo.

 Karpeta bat ezabatzeko: Atera aplikazio guztiak karpetatik kanpora. Karpeta automatikoki ezabatzen da.

 Karpeta bati izena aldatzea: Sakatu karpeta irekitzeko, eta, gero, sakatu izena eta idatzi berri bat.

Amaitu ondoren, sakatu hasierako botoia 🔾.

Pantaila-atzealdea aldatzea

Blokeatutako pantaila eta pantaila nagusia pertsonaliza ditzakezu irudi bat edo argazki bat aukeratuz pantaila-atzealde gisa erabiltzeko. Aukeratu irudietako bat edo Carrete ataleko edo iPhonearen beste album bateko argazki bat.

Pantaila-atzealdea aldatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Brillo y fondo de pantalla.

Idaztea

Pantailako teklatuarekin, idatzi egin dezakezu testua sartu behar duzunean.

Testua idaztea

Erabili pantailako teklatua testua idazteko (adibidez, kontaktu-informazioa, mezu elektronikoak eta web-helbideak). Erabiltzen ari zaren aplikazioaren eta hizkuntzaren arabera, teklatuak ortografia-akatsak zuzenduko ditu, idatziko dena aurresan edo erabili ahala ikasi.

Appleren haririk gabeko teklatua ere erabil dezakezu idazteko. Ikus "Appleren haririk gabeko teklatua", 35. orrialdean. Idatzi nahi duzuna diktatzeko, eskuz sartu beharrean, ikus "Diktatzea", 35. orrialdean.

Testua idazteko: Ukitu testu-eremu bat, teklatua bistaratu dadin, eta, gero, sakatu teklatuko teklak.

Idazten ari zaren bitartean, letra bakoitza hatzaren goian agertuko da. Tekla okerra sakatuz gero, hatza tekla zuzenera mugitu dezakezu. Letra ez

da agertzen hatza teklatutik kendu arte.



 Letra larriz idazteko: Sakatu Maiuskulen tekla
 ♦letra bat sakatu aurretik. Maiuskulen tekla luze sakatu, eta, jarraian, hatza letra batera ere mugi dezakezu.

- Puntu bat eta zuriunea azkar idazteko: Sakatu bi aldiz zuriune-barra.
- Telefonoaren blokeoa aktibatzeko: Sakatu bi aldiz maiuskulen tekla.
 Maiuskula-blokeoa desaktibatzeko, sakatu minuskulen tekla.
- Zenbakiak, puntuazio-ikurrak edo sinboloak erabiltzeko: Sakatu zenbakien tekla 22 Beste sinbolo eta puntuazio-ikur batzuk ikusteko, sakatu ikurren tekla 22.
- Letra azentudunak edo karaktere bereziak idazteko: Luze sakatu tekla bat, eta hautatu aukera bat.



Karaktere bereziak idazteko, luze sakatu tekla bat, eta, gero, lerratu hatza aukeretako bat hautatzeko.

Idazteko aukerak doitzea: Zoaz hona: Ajustes > General > Teclado.

Testu-edizioa

Testua editatu behar baduzu pantailako lupa batekin, txertatze-puntua nahi duzun lekuan jartzeko aukera izango duzu. Testua hautatu eta ebaki, kopiatu edo itsatsi ahal izango duzu. Aplikazio batzuek argazkiak eta bideoak ebakitzeko, kopiatzeko eta itsasteko aukera ematen dute.

Txertatze-puntua kokatzeko: Luze sakatu hatzarekin, lupa bistaratzeko, eta, jarraian, arrastatu, txertatze-puntua zehazteko.



Testua hautatzeko: Sakatu txertatze-puntua, aukeratzeko botoiak bistaratzeko. Sakatu Seleccionar alboko hitza aukeratzeko, edo "Seleccionar todo", testu guztia aukeratzeko.

Halaber, hitz bat bitan sakatu dezakezu, aukeratzeko. Arrastatu kapturapuntuak testu gehiago edo gutxiago hautatzeko. Irakurtzeko soilik diren dokumentuetan (webguneetan, adibidez), jarri hatza hitz baten gainean, aukeratzeko.

Cancelor	Chinese	food	Course of
Para: Gil	port Solano		
Co/Coo:			
Apur CO	tar Copiar	• • • • • •	•
Would yo today?	u like mandar	in food to	rlunch

Testua ebaki edo kopiatzeko: Hautatu testua eta, jarraian, sakatu *Cortar* edo *Copiar*.

Testua itsasteko: Sakatu txertatze-puntua, eta, gero, sakatu Pegar, azkena ebaki edo kopiatu duzun testua txertatzeko. Testua ordezteko, aukeratu Pegar sakatu aurretik.

Azken aldaketa ezeztatzeko: Astindu iPhonea, eta sakatu Deshacer.

Testua beltzez, etzanez edo azpimarratuta jartzeko: Aukeratu testua, sakatu ▶, eta, gero, sakatu B/I/U (beti ez dago eskuragarri).

Hitz baten definizioa eskuratzeko: Aukeratu hitza, eta sakatu *Definir* (beti ez dago eskuragarri).

Beste hitz batzuk eskuratzeko: Aukeratu hitz bat, eta sakatu Sugerir (beti ez dago eskuragarri).

Autozuzenketa eta ortografia

Hizkuntza askotan, iPhoneak hiztegi aktiboa erabiltzen du ortografiaakatsak zuzentzeko edo idatzi bitartean iradokizunak egiteko. iPhoneak hitz bat proposatzen duenean, ez dago idazteari utzi beharrik iradokizuna onartzeko. Barnean hartzen dituen hizkuntzen zerrenda ikusteko, ikus webgune hauek: www.apple.com/es/iphone/specs.html. com/mx/iphone/specs.html.

Geven Chinese food	1
To: Gilbert Solano	
Co'Bee:	
Subject: Chinese food	
Would you like mandar	
Sent from my Phone	

Iradokizuna onartzeko: Idatzi zuriune bat, puntuazio-ikur bat edo orgaitzulera bat.

Iradokizun bat baztertzeko: Sakatu iradokizunaren alboan dagoen "x".

Zenbat eta gehiago baztertu hitz baterako iradokizun bat, orduan eta aukera gehiago daude iPhoneak zure hitza onartzeko.

iPhoneak jada sartu diren eta gaizki idatzita egon litezkeen hitzak azpimarratzen ditu.



Gaizki idatzitako hitz bat ordezteko: Sakatu azpimarratutako hitza, eta sakatu forma zuzena. Zuk nahi duzun hitza bistaratzen ez bada, idatzi berriro.

Autozuzenketa eta zuzentzaile ortografikoa aktibatzeko edo desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Teclado.

Funtzio azkarrak eta zure hiztegi pertsonala

Funtzio azkarrekin, nahikoa duzu karaktere gutxi batzuk idaztea, hitz edo esaldi luzeago bat idatzi beharrean. Funtzio azkarra idazten duzun bakoitzean, testu luzatua bistaratzen da. Adibidez, "qhh" funtzio azkarra, luzatuta, "*¿Qué hacemos hoy?*" bihurtzen da.

Funtzio azkar bat sortzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Teclado, eta, gero, sakatu "Crear función rápida".

iPhoneak hitz bat edo esaldi bat zuzendu ez dezan: Sortu funtzio azkar bat, baina utzi hutsik "Función rápida" eremua.

Funtzio azkar bat editatzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Teclado, eta, gero, sakatu funtzio azkarra.

iCloud erabiltzeko zure hiztegi pertsonala gainerako iOS gailuekin eguneratuta egon dadin:

Zoaz hona: Ajustes > iCloud, eta aktibatu "Documentos y datos".

Teklatu-aukerak

Ajustes erabil dezakezu teklatuaren pantailako kokapenak edo iPhonearekin erabiltzen duzun Appleren haririk gabeko teklatuaren aukerak ezartzeko. Aukerak teklatuaren hizkuntzaren araberakoak dira. Kontsultatu "Appleren haririk gabeko teklatua", aurrerago, eta B eranskina, "Nazioarteko teklatuak", 195. orrialdean.

Teklatuaren aukerak hautatzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Internacional > Teclados, aukeratu hizkuntza bat, eta, gero, hautatu aukerak.

Appleren haririk gabeko teklatua

Appleren haririk gabeko teklatu bat (bereiz saltzen da) erabil dezakezu iPhonean idazteko. Appleren haririk gabeko teklatua bluetooth bidez konektatzen da; beraz, lehenik eta behin iPhonearekin lotu behar duzu. Ikus "Bluetootha darabilten gailuekiko lotura", 45. orrialdean.

Teklatua lotuta dagoenean, konektatu egingo da, baldin eta iPhonearen irismenaren barruan badago (10 bat metroko inguruan). Haririk gabeko teklatu bat konektatuta badago, pantailan ez da teklatua bistaratzen testu-eremu bat sakatzean. Bateria aurrezteko, itzali teklatua erabili behar ez baduzu.

Hizkuntza aldatzea haririk gabeko teklatu bat erabiltzean: Sakatu Comando + zuriune-barra eskuragarri dauden hizkuntzak bistaratzeko. Sakatu berriro zuriune-barra, Comando tekla sakatuta dagoela, beste hizkuntza bat aukeratzeko. Haririk gabeko teklatua itzaltzeko: Luze sakatu teklatua pizteko botoia, argi berdea itzaltzen den arte.

iPhoneak teklatua deskonektatuko du itzalita edo haren irismenetik kanpo badago.

Haririk gabeko teklatuaren lotura kentzeko: Zoaz hona: Ajustes > Bluetooth, sakatu () teklatuaren izenaren alboan, eta sakatu "Omitir dispositivo".

Diktatzea

iPhone 4S modeloan eta berriagoetan, testua diktatu egin dezakezu teklen bidez idatzi beharrean. Testua diktatzean, Siri funtzioak aktibo egon behar du, eta iPhoneak Internetera konektatuta egon behar du. Puntuazio-ikurrak sartu eta ahots-komandoak erabili ahal izango dituzu testuaren formatua aldatzeko.

Oharra. Baliteke telefonia mugikorreko datu-tarifak aplikatzea.

Diktaketa aktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Siri, eta, gero, aktibatu *Siri.*

Testua diktatzeko: Pantailako teklatuan, sakatu 🖢 , eta, gero, hitz egin. Amaitutakoan, sakatu *Salir.*



Testua gehitzeko, sakatu berriro 🎚 , eta jarraitu diktatzen. Testua sartzeko, sakatu txertatze-puntua jarri nahi duzun lekuan. Hautatutako testua diktaketa bidez ordezteko aukera ere badago.

iPhonea belarrira eraman dezakezu, diktatzen hasteko, teklatuan 🎙 sakatu ordez. Amaitzeko, jaitsi iPhonea, eta jarri berriro zure aurrean.

Testu bati puntuazio-ikurrak gehitzeko edo formatua emateko: Esan puntuazio-ikurra edo formatu-komandoa.

Adibidez: "Querida María coma signo de exclamación de apertura el cheque está en el buzón signo de exclamación de cierre" esanez gero, hau idatziko luke: **"Querida María, jel cheque está en el buzón!"** Hauek dira formatu-komandoak eta puntuazio-ikurrak:

- abrir comillas ... cerrar comillas
- nuevo párrafo
- mayúscula inicial: hurrengo hitza letra larriz idazteko
- activar mayúscula inicial ... desactivar mayúscula inicial: hitz bakoitzeko lehen karakterea letra larriz idazteko
- todo en mayúsculas: hurrengo hitz osoa letra larriz idazteko
- activar todo en mayúsculas ... desactivar todo en mayúsculas: inguruko hitz guztiak letra larriz idazteko
- activar todo en minúsculas ... desactivar todo en minúsculas: inguruko hitz guztiak letra xehez idazteko
- activar sin espacio ... desactivar sin espacio: zenbait hitz elkartzeko
- cara feliz: :-) txertatzeko
- cara triste::-(txertatzeko
- cara guiñando: ;-) txertatzeko

Ahots bidezko kontrola

Ahots bidez kontrolatzeko funtzioarekin telefono-deiak egin ditzakezu, eta musika-erreprodukzioa kontrolatu ahots-komandoen bidez. iPhone 4S edo berriagoetan, Siri ere erabil dezakezu iPhonea ahotsarekin kontrolatzeko. Ikus 4. kapitulua, **"Siri"**, 51. orrialdean.


Oharra. Ahots bidez kontrolatzeko funtzioa eta haren doikuntzak ez daude eskuragarri Siri aktibatuta dagoenean.

Ahots bidezko kontrola erabiltzeko: Luze sakatu hasierako botoia O, pantailan Control por voz aukera agertu eta soinu bat entzun arte. Entzungailuen erdiko botoia luze sakatu dezakezu, bestela. Ikus "Apple entzungailuak", 44. orrialdean.

Emaitzarik onena izateko:

· Hitz egin argi eta natural.

 Esan iPhonearen komandoak, izenak eta zenbakiak soilik. Egin geldiune labur bat bi komandoren artean.

Izen osoak erabili.

Eskuarki, "Control por voz" aukerak itxaroten du ahots-komandoak iPhonea konfiguratuta dagoen hizkuntzan esango dituzula (Ajustes > General > Internacional > Idioma). "Control por voz" aukeraren doikuntzek ahots-komandoen hizkuntza aldatzeko aukera ematen dute. Hizkuntza batzuen kasuan, dialekto eta azentuak ere badaude erabilgarri.

Hizkuntza edo herrialdea aldatzeko: Zoaz hona: Ajustes aukeran, hautatu General > Internacional > Control por voz, eta, jarraian, sakatu hizkuntza edo herrialdea.

Música aplikaziorako, beti dago aktibatuta **"Control por voz"**, baina, nahi baduzu, ahots bidez markatzea eragotz dezakezu iPhonea blokeatuta dagoenean.

Ahots bidez markatzea eragoztea iPhonea blokeatuta dagoenean: Zoaz hona: Ajustes > General > "Bloqueo con código", eta, gero, desaktibatu "Marcación por voz" (Ajustes > General > Siri aukeran Siri desaktibatuta dagoenean soilik eskuragarri). Ahots bidezko markaketa egin ahal izateko, lehenik eta behin, iPhonea desblokeatu behar da.

Komando espezifikoak ikusteko, ikus **"Deiak egitea"**, 61. orrialdean, eta **"Siri"** eta **"Ahots bidezko kontrola"**, 88. orrialdean.

"Control por voz" aukeraren erabilerari nahiz zenbait hizkuntzatako erabilerari buruzko informazio gehiago izateko, bisitatu support.apple. com/kb/HT3597?viewlocale=es_ES.

Nola egin bilaketak

iPhonearen aplikazio askotan egin ditzakezu bilaketak, bai eta Wikipedian eta Interneten ere. Bilatu aplikazio jakin batean edo guztietan batera, *Spotlight* erabiliz. Spotlightek iPhonearen aplikazioen izenetan ere egiten du bilaketa (aplikazio asko izanez gero, baliteke ondo etortzea *Spotlight* erabiltzea aurkitzeko eta irekitzeko).



Aplikazio jakin bat bilatzeko: Sartu testua Buscar eremuan.

iPhonean bilatzeko Spotlight bidez: Zoaz ezkerrera, lehen pantaila nagusian, edo sakatu hasierako botoia □ edozein pantaila nagusitan. Sartu testua Buscar eremuan.

Bilaketa-emaitzak idazten ari zarela agertzen dira. Sakatu Buscar, teklatua ezkutatzeko eta emaitza gehiago ikusteko. Sakatu zerrendako item bat, irekitzeko. Ikonoen bidez, emaitzak zer aplikaziotakoak diren jakin ahal izango duzu.

iPhoneak emaitzarik onena bistaratzen du, zure aurreko bilaketetan oinarrituta.

Sportlightek hauetan egiten ditu bilaketak:

- Contactos: eduki guztian
- Apps: izenburuetan
- *Música:* abestien, artisten eta albumen izenetan eta podcast eta bideoen izenburuetan
- · Podcasts: izenburuetan

- Vídeos: izenburuetan
- Audiolibros: izenburuetan
- Notas: oharretako testuan
- Calendario (eventos): ekintzen izenburuetan, gonbidatuetan, kokapenetan eta oharretan

• *Mail*: kontu guztietan De, Para eta Asunto eremuetan (ez da egiten bilaketarik mezuen testuan)

- Recordatorios: izenburuetan
- · Mensajes: mezuen izenetan eta testuan

Interneten edo Wikipedian bilatzeko Spotlight erabiliz: Zoaz bilaketaren emaitzen bukaeraraino, eta sakatu **"Buscar en Internet"** edo **"Buscar en** Wikipedia".

Aplikazio bat irekitzeko bilaketa-pantailatik: Idatzi aplikazioaren izen osoa edo zati bat, eta sakatu.

Aukeratu zer itemetan egin behar den bilaketa eta zer ordenatan bilatu behar den: Zoaz hona: Ajustes > General > "Búsqueda en Spotlight".

]akinarazpenak

Ekitaldi garrantzitsurik ez huts egiteko, iPhonearen aplikazio askok alertak dituzte. Alerta bat tira-forman bistaratu daiteke pantailaren goiko aldean, eta erantzuten ez bazaio desagertu, edo jakinarazpen bat izan liteke, pantailaren erdian, erabiltzaileak ikusi duela adierazi arte. Horrez gainera, aplikazio batzuek bunbuiloak bistaratzen dituzte pantaila nagusiko ikonoen gainean, ikusi gabeko zenbat item berri dituzun jakinarazteko (adibidez, zenbat mezu elektroniko berri dituzun). Arazoren bat badago (mezuren bat bidaltzerik ez dela izan, adibidez), harriduraikur bat) bistaratuko da bunbuiloan. Karpeta baten gainean zenbaki bat duen bunbuilo bat bistaratzen bada, zenbaki horrek adierazten du karpetako aplikazio guztiek zenbat alerta dituzten, guztira.



Blokeo-pantailan ere bistaratu daitezke alertak.

Alerta bati erantzuteko iPhonea blokeatuta dagoela: Mugitu alerta ezkerretik eskuinera.

Jakinarazpen-zentroak leku bakar batean bistaratzen ditu alerta guztiak.

Beraz, alerta bat jaso zenuen lehen aldian erantzuterik izan ez bazenuen, jakinarazpen-zentrotik erantzun diezaiokezu, ahal duzunean. Alertak hauenak ere izan daitezke:

- Dei galduak eta ahots-mezuak
- Mezu elektroniko berriak
- Testu-mezu berriak
- Gogorarazpenak
- Egutegiko ekitaldiak
- Laguntasun-eskaerak (Game Center)

Eguraldia kontsultatzeko eta zure burtsa-teletipo pertsonala ikusteko aukera ere baduzu. Twitter eta Facebookeko kontuetan saioa hasi baduzu, iruzkinak argitaratu ditzakezu jakinarazpen-zentrotik.



Jakinarazpen-zentroa ikusteko: Lerratu hatza beherantz, pantailaren goiko aldetik hasita. Alerta gehiago ikusteko, mugitu zerrendan.

- Alerta bati erantzuteko: Sakatu.
- Alerta bat ezabatzeko: Sakatu 🙉, eta, gero, sakatu Borrar.

Zure aplikazioen alertak kudeatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Notificaciones. Kontsultatu "Ez molestatzeko modua eta jakinarazpenak", 138. orrialdean.

Alerten soinuak aukeratzeko, alerten bolumena doitzeko eta bibrazioa aktibatzeko edo desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Sonidos.

Partekatzea

iPhonearekin, hainbat modu dituzu beste pertsona batzuekin edukiak partekatzeko.

Nola partekatu edukiak aplikazio barrutik

Aplikazio askotan, 🖻 sakatuz gero partekatzeko aukerak eta beste zenbait ekintza bistaratzen dira, inprimatzea edo kopiatzea, esaterako. Aukerak desberdinak dira erabiltzen ari zaren aplikazioaren arabera.



Facebook

Hasi saioa zure Facebookeko kontuan (edo sortu kontu berri bat) Ajustes ataletik, iPhonearen aplikazio askotatik zuzenean iruzkinak egin ahal izateko.

Facebookeko kontu batean saioa hasteko edo kontu berri bat sortzeko: Zoaz hona: Ajustes > Facebook.

Jakinarazpen-zentrotik argitaratzeko: Sakatu "Pulse para publicar".

Siri erabiliz argitaratzeko: Esan "Publicar en Facebook ... ".

Item bat bilatzeko aplikazio batetik: Aplikazio gehienetan, sakatu 🗃 . Mapas aplikazioan, sakatu 💿 , "Compartir ubicación", eta, azkenik, sakatu Facebook.

Facebookeko aukerak doitzeko: Zoaz hona: Ajustes > Facebook. Hauek egin ditzakezu:

- iPhoneko kontaktuak eguneratu Facebookeko izen eta argazkiekin.
- App Store, Calendario, Contactos eta iTunes aplikazioei baimena eman zure kontua erabiltzeko.

Facebook aplikazioa instalatzeko: zoaz hona: Ajustes > Facebook, eta, gero, sakatu Instalar.

Twitter

Hasi saioa zure Twitterreko kontuan (edo sortu kontu berri bat) Ajustes ataletik, iPhonearen aplikazio askotatik zuzenean mezuak eta fitxategi erantsiak gehitu ahal izateko.

Twitterreko kontu batean saioa hasteko edo kontu berri bat sortzeko: Zoaz hona: Ajustes > Twitter.

Jakinarazpen-zentrotik Twitterren argitaratzeko: Sakatu "Pulse para enviar mensaje".

Twitterren argitaratzeko Siri erabiliz: Esan "Publicar en Twitter ... ".

Item bat bilatzeko Twitterren aplikazio batetik: Bistaratu itemak, sakatu ☞, eta, gero, sakatu Twitter. ☞ bistaratzen ez bada, sakatu pantaila. Zure kokapena gehitzeko, sakatu "Añadir ubicación".

Twitterrera bidaltzea Mapas aplikazioko kokapen bat: Sakatu kokapenmarkagailua, sakatu 🗔, sakatu "Compartir ubicación", eta, gero, sakatu Twitter.

Twitterren mezu bat idazten duzunean, Twitterreko pantailaren beheko eskuineko ertzean bistaratzen den zenbakiak adierazten du zenbat karaktere gehiago sar ditzakezun. Twitterrek onartzen dituen 140 karaktereetako batzuk hartzen dituzte fitxategi erantsiek.

Twitterreko erabiltzaile-izenak eta argazkiak gehitzeko zure kontaktuei: Zoaz hona: Ajustes > Twitter , eta, gero, sakatu "Actualizar contactos".

Twitter aplikazioa instalatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Twitter, eta, gero, sakatu Instalar.

Twitter aplikazioa nola erabili jakiteko, ireki, sakatu *Yo*, eta, gero, sakatu *Ayuda.*

iPhonea telebista batera edo beste gailu batera konektatzea

AirPlay erabil dezakezu Apple TVrekin edukiak HD telebista batera transmititzeko denbora errealean edo iPhonea zure telebistara konektatzeko kable bidez.

AirPlay

AirPlay erabiliz, musika, argazkiak eta bideoa transferitu ahal izango dituzu haririk gabe Apple TVra eta AirPlay duten beste gailu batzuetara. AirPlayren kontrolak bistaratuko dira iPhonea konektatuta dagoen WiFi-aren sare berean AirPlay duen beste gailu bat eskuragarri badago. IPhonearen pantailako edukia telebista batean bikoizteko aukera ere baduzu.

AirPlay aktibatua duen gailu batera edukia transmititzeko: Sakatu 🗔, eta hautatu gailua.

Bolumen-kontroletara eta AirPlayra sartzeko aplikazio bat erabili bitartean: Pantaila piztuta badago, sakatu bi aldiz hasierako botoia 🔾 , eta zoaz aldi bereko zereginen barrako ezker-ezkerrera.



iPhonearen erreprodukzioa berriro aldatzeko: Sakatu 😱, eta aukeratu iPhone.

iPhonearen pantaila bikoizteko telebista batean: Sakatu 🗔 , aldi bereko zereginen ezker-ezkerrean, aukeratu Apple TV bat, eta, gero, sakatu Duplicación. AirPlayren bikoizketa aktibatuta dagoenean, barra urdin bat bistaratzen da iPhonearen pantailaren goiko aldean. iPhonearen pantailan bistaratzen den guztia agertuko da telebistan ere.

iPhonea telebista batera konektatzea kable bidez

Appleren kableak eta egokigailuak (bereiz saltzen dira) erabil daitezke iPhonea telebista batera, proiektagailu batera edo kanpoko beste pantaila batera konektatzeko. Informazio gehiagorako, jo webgune honetara: support.apple.com/kb/IH74108?viewlocale=es_ES.

AirPrint bidez inprimatzea

AirPrinten bidez, haririk gabe inprima dezakezu AirPrintekin bateragarriak diren inprimagailuetan, iOS aplikazio hauetatik:

- Mail: ikuspegi bizkorrean bistaratu daitezkeen mezu elektronikoak eta fitxategi erantsiak
- Fotos y Cámara: argazkiak
- Safari: webguneak, PDF fitxategiak eta bestelako fitxategi erantsiak, ikuspegi bizkorrean bistaratu daitezkeenak
- iBooks: PDF fitxategiak
- Mapas: pantailan bistaratzen den mapa-zatia
- · Notas: unean bertan bistaratzen den oharra

Baliteke App Store dendako beste aplikazio batzuk ere bateragarriak izatea AirPrintekin.

iPhoneak eta inprimagailuak WiFi sare berera konektatuta egon behar dute. AirPrinti buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jo webgune

honetara: support.apple.com/kb/HT4356?viewlocale=es_ES

Dokumentu bat inprimatzeko: Sakatu ← edo 🗃 (erabiltzen ari zaren aplikazioaren arabera), eta, gero, sakatu Imprimir.

Inprimaketa baten egoera kontsultatzeko: Sakatu bi aldiz hasierako botoia D, eta, gero, sakatu Impresión, aldi bereko zereginen barran. Ikonoaren gaineko bunbuiloak adierazten du zenbat dokumentu dauden inprimatzeko prest, unekoa barne.



Inprimaketa bat ezeztatzeko: Impresión atalean, aukeratu inprimaketa, beharrezkoa bada, eta, gero, sakatu "Cancelar impresión".

Apple entzungailuak

Apple EarPods entzungailuek eta urrutiko agintea eta mikrofonoa dituzten Apple Earphones entzungailuek (iPhone 4S edo zaharrago bat) mikrofonoa, bolumen-botoiak eta deiei erantzuteko eta deiak amaitzeko botoia dituzte, eta audioa eta bideoa ere kontrola ditzakete.



Konektatu entzungailuak musika entzuteko edo dei bat egiteko. Sakatu erdiko botoia musikaren erreprodukzioa kontrolatzeko eta deiei erantzuteko edo deiak amaitzeko, iPhonea blokeatuta badago ere.

Bolumena doitzeko: Sakatu "+" edo "-" botoia.

Erdiko botoia erabiliz musika-erreprodukzioa kontrolatzeko:

 Abesti edo bideo bat gelditzeko: Sakatu erdiko botoia. Sakatu berriro erreprodukzioari berrekiteko.

- Hurrengo abestira joateko: Sakatu bi aldiz, azkar, erdiko botoia.
- Aurreko abestira itzultzeko: Sakatu hiru aldiz, azkar, erdiko botoia.

 Azkar aurrera egiteko: Sakatu bi aldiz, azkar, erdiko botoia, eta luze sakatu. Atzera egiteko: Sakatu hiru aldiz, azkar, erdiko botoia, eta luze sakatu.

Erdiko botoia erabiliz telefono-deiak egiteko edo erantzuteko:

- Dei bati erantzuteko: Sakatu erdiko botoia.
- Deia amaitzeko: Sakatu erdiko botoia.

 Dei bat baztertzeko: Luze sakatu erdiko botoia bi segundoz, gutxi gorabehera, eta, jarraian, askatu. Bi soinu baxuk adierazten dute deia baztertu duzula.

 Jasotzen ari zaren deira joateko, edo zain daukazunera, eta uneko deia zain jartzeko: Sakatu erdiko botoia. Sakatu berriro lehenengo deira itzultzeko.

 Jasotzen ari zaren deira joateko, edo zain daukazunera, uneko deia amaitzean: Luze sakatu erdiko botoia bi segundoz, gutxi gorabehera, eta, jarraian, askatu. Bi soinu baxuk adieraziko dute lehen deia amaitu duzula.

Ahots bidezko kontrola edo Siri erabiltzeko: Luze sakatu erdiko botoia.

Ikus 4. kapitulua, **"Siri"**, 51. orrialdean, edo **"Ahots bidezko kontrola"**, 36. orrialdean.

Dei bat jasotzen baduzu entzungailuak konektatuta dauden bitartean, tonua iPhonearen bozgorailutik nahiz entzungailuetatik entzungo duzu.

Bluetootha darabilten gailuak

IPhonea haririk gabeko Apple teklatuarekin nahiz bluetootha darabilten beste gailu batzuekin erabil dezakezu; esaterako, esku libreko gailuekin, autoko kitarekin eta entzungailu estereoekin. Informazio gehiagorako, jo webgune honetara: support.apple.com/kb/HT3647?viewlocale=es ES.

Bluetootha darabilten gailuekin lotzea

OHARRA. Entzumen-galera prebenitzeari eta gidatu bitartean arreta galtzeari buruzko informazio garrantzitsua kontsultatzeko, ikus "Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua", 199. orrialdean.

Bluetootha darabilen gailu bat iPhonearekin erabili ahal izateko, lehenengo lotu egin behar dituzu.

Bluetootha darabilen gailu bat iPhonearekin lotzeko:

Jarri gailua ikusgai.

Kontsultatu gailuaren dokumentazioa. Appleren haririk gabeko teklatua

badaukazu, sakatu pizteko botoia.

- 2 Zoaz hona: Ajustes > Bluetooth, eta aktibatu bluetootha.
- 3 Aukeratu gailua, eta, eskatzen badizu, sartu pasahitza edo PINa. Kontsultatu gakoari edo PINari buruzko jarraibideak, gailuarekin batera datozenak.

Appleren haririk gabeko teklatu bat erabiltzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus **"Appleren haririk gabeko teklatua"**, 34. orrialdean.

Bluetootha darabilten entzungailuak erabiltzeko iPhonearekin, kontsultatu gailuaren dokumentazioa.

Audio-irteera iPhonera itzultzeko bluetootha darabilen entzungailu batzuk konektatu ondoren: Itzali gailua, kendu lotura edo desaktibatu bluetootha, hemen: Ajustes > Bluetooth. Audio-irteera iPhonera itzuliko da gailua irismenetik kanpo badago. AirPlay □ ere erabil daiteke audio-irteera iPhonera itzultzeko. Ikus "AirPlay", 42. orrialdean.

Bluetootharen egoera

Gailu bat iPhonearekin lotu ondoren, pantailaren goiko aldeko egoerabarran bluetootharen ikonoa bistaratuko da.

- * edo * : bluetootha aktibatuta dago, eta beste gailu bati lotuta. (Kolorea egoera-barraren kolorearen araberakoa izango da).
- \$: bluetootha aktibatuta eta beste gailu bati lotuta dago, baina gailua irismen-eremutik kanpo edo itzalita dago.
- Bluetootharen ikonorik gabe: bluetootha ez dago beste gailu bati lotuta.

Bluetootha darabilen gailu bat iPhonetik askatzea

Bluetootha darabilen gailu bat aska dezakezu iPhonearekin gehiago erabiliko ez baduzu.

Bluetootha darabilen gailu bat askatzea: Zoaz hona: Ajustes > Bluetooth, eta aktibatu bluetootha. Sakatu gailuaren izenaren ondoko 🕢 , eta, ondoren, sakatu "Omitir dispositivo".

Fitxategiak partekatzea

iTunes erabil dezakezu iPhonearen eta zure ordenagailuaren artean fitxategiak trukatzeko. Mezu elektroniko baten fitxategi erantsi gisa jasotako fitxategiak ere ikus ditzakezu iPhonean. Ikus **"Posta-mezuak irakurtzea"**, 72. orrialdean. iCloudekin funtzionatzen duten aplikazio berak badituzu gailu batean baino gehiagotan, iCloud erabili ahal izango duzu zure gailuak automatikoki eguneratu daitezen gailu guztietan. Ikus "iCloud", 20. orrialdean.

Fitxategiak transferitzeko iTunes bidez: Konektatu iPhonea ordenagailura gailuarekin datorren kablearen bidez. iTunes atalean, zure ordenagailuan, aukeratu iPhonea, eta, gero, sakatu "Aplic." botoia. Erabili "Fitxategiak partekatzea" atala iPhonearen eta ordenagailuaren artean dokumentuak transferitzeko. Fitxategiak partekatzeko aukera ematen duten aplikazioak iTuneseko fitxategi partekatuetako aplikazioen zerrendan jasotzen dira. Fitxategi bat ezabatzeko, aukeratu fitxategi-zerrendan, eta sakatu Suprimir tekla.

Segurtasun-funtzioak

Segurtasun-funtzioen bidez, iPhonean gordetako informazioa beste erabiltzaileek ikustea ekidin dezakezu.

Kodeak eta datu-babesa

Segurtasun handiagoa izateko, kode bat ezar dezakezu, eta kode hori sartu beharko duzu iPhonea pizteko edo aktibatzeko, edo kode bidez blokeatzeko doikuntzetara sartzeko.

Kode bat ezartzen duzunean, datu-babesa aktibatzen da. Babes horrek kodea erabiliko du posta-mezuak eta iPhonean gordetako fitxategi erantsiak zifratzeko pasahitz gisa. (Baliteke App Store dendako aplikazio batzuek ere datu-babesa erabiltzea.) **Ajustes** ataleko **"Bloqueo con código"** pantailako behealdean dagoen ohar batek adierazten du datubabesa aktibatuta dagoela.

Garrantzitsua. Fabrikatik iOS 4 sistema edo berriago bat ez dakarren iPhone 3GS batean, iOS softwarea ere berrezarri egin beharko da datubabesa aktibatzeko. Ikus "Actualización y restauración del software del iPhone", 208. orrialdean.

Kode bat ezartzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > "Bloqueo con código", sakatu "Activar código", eta sartu 4 digituko kode bat.

Kode seguruago bat erabiltzeko: Segurtasuna handitzeko, desaktibatu kode erraza, eta erabili kode luzeago bat, zenbakiak, letrak, puntuazioikurrak eta karaktere bereziak konbinatuta.

Desblokeatzeko konbinazio bidezko kode batek babestuta dagoenean iPhonea, kodea sartu beharko duzu teklatuaren bidez. Nahiago baduzu zenbaki-teklatuaren bidez desblokeatu iPhonea, kode luzeago bat konfigura dezakezu, zenbakiak solik erabiliz.

Sirira sartzea eragozteko iPhonea blokeatuta badago: Zoaz hona: Ajustes > General > "Bloqueo con código", eta desaktibatu Siri. iPhonea blokeatuta dagoenean ahots bidez markatzea eragozteko: Zoaz hona: Ajustes > General > "Bloqueo con código", eta desaktibatu "Marcación por voz". (Ajustes > General > Siri atalean Siri desaktibatu bada solilk dago eskuragari.)

Ikus "Kode bidezko blokeoa", 186. orrialdean.

Nire iPhonea bilatzea:

"Buscar mi iPhone" funtzioa lagungarri izan daiteke zure iPhonea aurkitu eta babestu dezazun, "Buscar mi iPhone" aplikazioa erabiliz, beste iPhone, iPad edo iPod touch bat erabiliz edo web-nabigatzaile bat erabiliz www.icloud.com-en saioa hasia duen Mac edo PC batean.

"Buscar mi iPhone" funtzioaren bidez hau egin daiteke:

Soinua erreproduzitu: Soinu bat erreproduzitzen du bi minutuz.

 Galdutako modua: Zure iPhonea galdu baduzu, berehala blokeatu ahal izango duzu kode baten bidez, eta mezu bat bidali ahal izango diozu harremanetarako zenbaki batekin. iPhoneak bere kokapenaren segimendua egiten du eta hari buruzko informazioa ematen du, non izan den ikus dezazun "Buscar mi iPhone" aplikazioa begiratzen duzunean.

 iPhonea ezabatu: Zure pribatutasuna babesten du, zure iPhoneko informazio eta multimedia-eduki guztia ezabatzen baitu eta iPhonearen jatorrizko doikuntzak berrezartzen baititu.

Garrantzitsua. Funtzio horiek erabiltzeko, galdu aurretik aktibatua izan behar da **"Buscar mi iPhone"** aplikazioa iPhonearen iCloudeko doikuntzetan, eta iPhoneak Internetera konektatuta egon behar du.

• "Buscar mi iPhone" aktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > iCloud, eta aktibatu "Buscar mi iPhone".

Bateria

iPhoneak berriro kargatzeko litio-ioizko bateria bat du barruan. Bateriari buruzko informazio gehiago eskuratzeko (baita haren iraupena ahalik eta gehiena luzatzeko gomendioak ere) jo hona: www.apple.com/es/ batteries, www.apple.com/mx/batteries o www.apple.com/la/batteries

OHARRA. Bateriari eta iPhonea kargatzeari buruzko segurtasuninformazio garrantzitsua eskuratzeko, ikus **"Segurtasunari buruzko** informazio garrantzitsua", 199. orrialdean.

Bateria kargatzea: Konektatu iPhonea korronte-hartune batera, kablea eta USB korronte-egokigailua erabiliz.



Oharra. iPhonea korronte-hargune batera konektatzean, baliteke iCloudeko segurtasun-kopia bat edo iTunesekiko haririk gabeko sinkronizazio bat martxan jartzea. Ikus "iPhonearen segurtasun-kopiak egitea", 205. orrialdean, eta "iTunesekin sinkronizatzea", 21. orrialdean.

Ordenagailu batekin iPhonearen bateria kargatzeko eta harekin sinkronizatzeko: Konektatu iPhonea ordenagailura gailuarekin datorren kablearen bidez. Bestela, konektatu iPhonea ordenagailura, erantsitako kablearen eta konexio-oinarriaren bidez. Bereiz saltzen dira.

Zure teklatuak potentzia handiko USB 3.0 edo 2.0 ataka bat izan ezean, iPhonea ordenagailuko USB 2.0 ataka batera konektatu behar duzu.



Garrantzitsua. iPhonearen bateria deskargatu egin daiteke, kargatu beharrean, iPhonea itzalita edo egonean dagoen ordenagailu batera konektatuta badago.

Bateriaren mailaren edo kargaren egoeraren berri ematen du pantailaren goialdeko eskuinaldeko ertzeko bateriaren ikonoak.



Kargatzen

Kargatuta

Bateriaren karga-mailaren ehunekoa bistaratzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Uso, eta aktibatu "Uso de la batería" aukeraren azpian dagoen doikuntza.

iPhonea sinkronizatzen edo erabiltzen ari zaren bitartean kargatzen baduzu bateria, agian denbora gehiago beharko du kargatzeko.

Garrantzitsua. iPhonearen bateria oso baxu badago, irudi hauetakoren bat ager daiteke; horrek adierazten du iPhonea hamar minutuz kargatu behar dela, gutxi gorabehera, erabili aurretik. iPhonearen karga-maila oso baxua bada, pantaila itzali egin daiteke, bi minutura arte, bateria baxuaren irudietakoren bat agertu arte.



Aldi-kopuru mugatu bat dago berriz kargatu daitezkeen bateriak kargatzeko, eta, beraz, litekeena da haiek ordezteko unea iristea.

Bateria berria jartzeko: Erabiltzaileak ezin du ordeztu iPhonearen bateria; zerbitzuaren hornitzaile baimendu batek egin behar du. Ikus www.apple.com/es/batteries/replacements.html, www.apple.com/mx/ batteries/replacements.html edo www.apple.com/la/batteries/replacements.html.

4 Siri

Zer da Siri?

Hitz egite hutsarekin eragiketak egiten laguntzen duen laguntzaile pertsonal adimenduna da Siri. Sirik hizkera arrunta ulertzen du; beraz, ez da beharrezkoa komando espezifikoak ikastea, ez eta hitz gakoak gogoratzea ere. Hainbat era dituzu gauzak eskatzeko. Adibidez, esan dezakezu **"Pon la alarma a las 6:30"** edo **"Despiértame a las 6:30 de la mañana"**. Bietako edozein esaten duzula ere, Sirik agindutakoa egingo du.

OHARRA. Gidatzean arreta galtzeari buruzko informazio garrantzitsua kontsultatzeko, ikus **"Segurtasunari buruzko informazio** garrantzitsua", 199. orrialdean.

Oharra. iPhone 45 modeloan eta berriagoetan dago eskuragarri Siri, eta Interneteko sarbidea eskatzen du. Baliteke telefonia mugikorreko datutarifak aplikatzea. Baliteke Siri ez egotea erabilgarri hizkuntza guztietan eta leku guztietan, eta baliteke funtzioak desberdinak izatea leku batetik bestera.

Sirirekin, hainbat gauza egin ditzakezu natural hitz egite hutsarekin: mezuak idatzi eta bidali, bilerak programatu, telefono-deiak egin, argibideak eskuratu, gogorarazpen bat doitu, Intermeten bilaketak egin eta beste hainbat. Azalpenen bat edo informazio gehiago behar badu, Sirik galdera bat egingo dizu. Zure kontaktuen informazioa, musikaliburutegikoa, egutegietakoa, gogorarazpenetakoa eta abar erabiltzen du Sirik zeri buruz hitz egiten ari zaren jakiteko.

Sirik arazorik gabe funtzionatzen du iPhonean integratutako aplikazio gehienekin, eta, beharrezkoa bada, **Buscar** eta **Localización** funtzioak erabiltzen ditu. Aplikazio bat irekitzeko ere eska diezaiokezu Siriri.

Hainbat gauza esan diezazkiokezu Siriri. Hona hemen hasiberrientzako adibide batzuk:

- Llama a Pablo
- Pon el temporizador 30 minutos
- Dime cómo llegar a la Apple store más cercana
- ¿Lloverá mañana?
- Abre Passbook
- Publica en Facebook
- Publica en Twitter

Nola erabili Siri

Nola jarri martxan Siri

Botoi bat sakatuz aktibatzen da Siri.

Siri martxan jartzeko: Sakatu hasierako botoia O, Siri bistaratu arte. Siri aktibatu ez baduzu iPhonea konfiguratzean, zoaz hona: Ajustes > General > Siri.

Bi txirrin labur entzungo dituzu, eta hau bistaratuko da pantailan: "¿En qué te puedo ayudar?".



Hasi hitz egiten, besterik gabe. Mikrofonoaren ikonoa argitu egingo da, jakin dezazun Siri entzuten ari dela. Sirirekin hitz egiten hasten zarenean, sakatu mikrofonoaren ikonoa berriro hitz egiteko.

Zuk hitz egiten amaitzeko zain egongo da Siri, baina mikrofonoaren ikonoa sakatuz ere adieraz diezaiokezu Siriri bukatu duzula. Hori oso erabilgarria izango da atzeko zarata handia dagoenean. Sirirekiko elkarrizketa azkartzeko ere balio du, Sirik ez baitu itxaron beharko zuk hizketaldia eten arte.

Hitz egiten amaitzen duzunean, Sirik zer ulertu duen bistaratuko du, eta erantzun bat eskainiko dizu. Sirik zuk esandakoarekin lotutako informazioa eman ohi du, eta baliteke erabilgarria izatea. Informazioa aplikazio bati lotua bada (adibidez, zuk idatzi duzun testu-mezu bat edo galdetu duzun kokapen bat), ukitu pantaila aplikazioa irekitzeko, xehetasun gehiago ikusteko eta ekintza gehiago izateko aukeran.



Balieke Sirik azalpenen bat eskatzea eskaeraren bat betetzeko. Adibidez, Siriri esaten badiozu "Recuérdame que llame a Mamá", baliteke Sirik hau galdetzea: "¿A qué hora quieres que te lo recuerde?"

Eskaera bat ezeztatzeko: Esan "cancelar", sakatu ∉ edo sakatu hasierako botoia □.

Sirirekin hasi duzun telefono-dei bat gelditzeko: Teléfono aplikazioa ireki aurretik, sakatu hasierako botoia O. Teléfono irekita badago, sakatu Finalizar.

Nola eman Siriri zuri buruzko informazioa

Zenbat eta gehiago jakin Sirik zuri buruz, orduan eta gehiago erabili ahal izango du informazioa zuri laguntzeko. **Contactos** atalean dagoen zuri buruzko informazio-txarteletik (**"Mis datos"**) eskuratzen du Sirik informazioa.

Siriri zu nor zaren esateko: Zoaz hona: Ajustes > General > Siri > "Mis datos", eta, gero, sakatu zure izena.

Sartu zure etxeko eta laneko helbideak txartelean, honelakoak esan ahal izateko: "¿Cómo llego a casa?" eta "Recuérdame que llame a Pablo cuando llegue a casa".

Zuretzat garrantzitsuenak diren pertsonei buruzko informazioa ere nahiko du Sirik; beraz, garrantzitsua da harremanak ere jartzea zure informazio pertsonaleko txatrelean (Sirik lagundu diezazuke). Adlibidez, Siriri arrebari deitzeko eskatzen diozun lehen aldian, Sirik galdetuko dizu nor den zure arreba (txartelean informazio hori erregistratu gabe baduzu). Sirik harreman hori gehituko dio zure informazio pertsonaleko txartelari, hurrengoan galdetu beharrik izan ez dezan.

Sortu txartelak **Contactos** atalean zure harreman garrantzitsu guztientzat, eta gehitu informazioa (telefonoa, helbide elektronikoak, etxeko eta laneko helbidea eta erabili nahi dituzun ezizenak).

Pantailako eskuliburua

Esan ditzakezun esaldien adibideak ematen dizkizu Sirik, zuzenean, pantailan. Galdetu Sirin "*¿Qué puedes hacer?*", edo sakatu ③ Siri bistaratzen den lehen aldian. Onartzen dituen aplikazioen zerrenda bat bistaratuko du Sirik, bai eta eskaera bat ere, adibide gisa. Sakatu zerrendako item bat, adibide gehiago ikusteko.



Hitz egiteko jasotzea

Siriri hitz egiten has zaitezke iPhonea belarrira jasotze hutsarekin, telefono-dei bat egiteko bezalaxe. Pantaila piztuta ez badago, sakatu lehenik egonean/aktibatuta botoia edo hasierako botoia. Bi txirrin labur entzungo dituzu, Siri entzuten ari dela adierazteko. Orduan, hitz egiten has zaitezke.

Hitz egiteko jasotzea aktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Siri.

Sirik ez badizu erantzuten iPhonea belarrira eramaten duzunean, hasi mugitzen pantaila zure aurrean jarrita, eta biratu eskua altxatzean.



Siri esku librekoekin

iPhonearekin datozen entzungailuekin, bluetootha darabilten beste entzungailu batzuekin eta kable bateragarriekin erabil dezakezu Siri.

Siriri hitz egiteko entzungailuak erabiliz: Luze sakatu erdiko botoia (edo bluetootha darabilten entzungailu batzuetako deitzeko botoia).

Sirirekiko elkarrizketa batekin jarraitzeko, luze sakatu botoia hitz egin nahi duzunean.

Entzungailuak erabiltzen dituzunean, Sirik ahots bidez emango dizkizu erantzunak. Sirik errepikatu egiten ditu diktatutako testu-mezuak eta mezu elektronikoak bidali aurretik. Hala, nahi baduzu, testu-mezua aldatu egin dezakezu. Gogorarazpenen gaiak ere errepikatu egiten ditu Sirik sortu aurretik.

Kokapena

Sirik kokapenak ezagutzen ditu (iPhone 4S edo modelo berriagoak), adibidez, "actual", "casa" eta "trabajo", eta zeregin bat gogoraraz diezazuke leku batetik alde egiten duzunean edo beste batera iristen zarenean. Esan Siriri "Recuérdame que llame a mi hija cuando salga de la oficina", eta halaxe egingo du.

Ez du egiten kokapen-informazioaren segimendurik, eta informazio hori ez da gordetzen iPhonetik kanpo. Siri erabiltzen jarraitu ahal izango duzu kokapen-zerbitzuak desaktibatuta ere, baina Sirik ez du egingo kokapeninformazioa eskatzen duen ezer.

Kokapen-funtzioa desaktibatzeko Siriri: Zoaz hona: Ajustes > Privacidad > Localización.

Irisgarritasuna

Siri erabil dezakete erabiltzaile itsuek eta ikusmen-arazoak dituztenek ere, VoiceOver, iOSko pantaila-irakurle integratua erabiliz. VoiceOver aukerak ahots goran deskribatzen du pantailan bistaratzen dena (baita Siriren erantzunak erej; hala, iPhonea erabil dezakezu ikusi gabe ere.

VoiceOver aktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Accesibilidad.

VoiceOver aktibatuz, zure jakinarazpenak ere ahots goran irakurriko dira. Informazio gehiago lortzeko, ikus **"VoiceOver"**, 154. orrialdean.

Nola doitu Siriren aukerak

Siri aktibatzeko edo desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Siri.

Oharra. Siri desaktibatzen baduzu, aplikazioa berrezarri egingo da, eta ahaztu egingo du zure ahotsari buruz ikasi duen guztia.

Sirirako aukerak doitzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Siri.

· Idioma: Hautatu Sirirekin erabili nahi duzun hizkuntza.

 Mensajes de voz Lehenespenez, iPhonea belarritik gertu baduzu edo Siri entzungailuekin erabiltzen baduzu soilik esaten ditu Sirik erantzunak ahots goran. Sirik beti erantzunak ahots goran esan ditzan nahi baduzu, jarri Siempre aukera horretan.

 Mis datos: Esan Siriri zer kontaktu-txarteletan dagoen zure informazio pertsonala. Ikus "Nola eman Siriri zuri buruzko informazioa", 53. orrialdean.

 Elevar para hablar: Hitz egin Siriri iPhonea belarrira jasoz pantaila piztuta dagoela. Funtzio hori aktibatzeko edo desaktibatzeko, zoaz hona: Ajustes > General > Siri.

Sirirako sarbidea baimentzeko edo galarazteko iPhonea kode bidez blokeatuta dagoenean:

Zoaz hona: Ajustes > General > "Bloqueo con código".

Bestela, desaktibatu Siri murrizketak aktibatuz. Ikus **"Murrizketak"**, 187. orrialdean.

Jatetxeak

Sirik Yelp, OpenTable eta beste zenbait zerbitzu erabiltzen ditu jatetxeei buruzko informazioa emateko eta erreserbak egiten laguntzeko. Galdetu jatetxeak bila ditzan, janaria, prezioa, kokapena, terraza edo aukera bat baino gehiago irizpide gisa hartuta. Eskuragarri dauden argazkiak, Yelp izarrak, prezio-tartea eta argibideak bistaratuko ditu Sirik. Eskuratu informazio gehiago Yelp eta OpenTable aplikazioekin (iPhoneak deskargatzeko eskatuko dizu, oraindik instalatu gabe badituzu).

Jatetxe bati buruzko informazio xehatua ikusteko: Sakatu Sirik iradokitako jatetxe bat.



Filmak

Galdetu Siriri zer film ari diren ematen edo non ikus daitekeen film jakin bat. Galdetu noiz estreinatu zen film bat, nork zuzendu zuen eta zer sari eskuratu zituen. Sirik zinema-aretoen helbideak ematen ditu, filmak zer ordutan emango diren bistaratzen du eta Rotten Tomatoesen argibideak ematen ditu.

Film bati buruzko informazio xehatua ikusteko: Sakatu Sirik iradokitako film bat.



Kirolak

Sirik asko daki kirolei buruz: beisbola, saskibaloia, futbola, amerikar futbola eta hockeya. Galdetu Siriri partida-egutegiari buruz, denboraldiko partiden emaitzei buruz edo jokatzen ari diren partiden minutuz minutuko emaitzei buruz. Esan Siriri jokalarien estatistikak bistaratzeko eta beste jokalari batzuenekin alderatzeko. Taldeen ibilbideen segimendua ere egiten du Sirik. Galdera hauek egin diezazkiokezu, besteak beste:

- ¿Cuál fue el resultado del último partido de los Giants?
- ¿Cómo va la clasificación de la National League?
- ¿Cuál es el primer partido de la temporada de los Chicago Cubs?

Diktatzea

Siri aktibatuta badago, testua diktatzeko aukera ere baduzu. Ikus **"Diktatzea"**, 27. orrialdean.

Sirirekin zuzenean hitz eginez idatz ditzakezu mezu elektronikoak, testumezuak eta bestelako testua, baina baliteke nahiago izatea diktatzea. Diktatzeko funtzioarekin, mezu bat edita dezakezu testu osoa aldatu beharrean. Diktatzeko funtzioarekin, denbora gehiago duzu pentsatzeko idatzi bitartean.

Etena egiten baduzu, Sirik ulertzen du oraingoz amaitu duzula hitz egiten, eta erantzuteko aprobetxatzen du. Horrek aukera ematen dizu Sirirekin elkarrizketa natural bat izateko, baina, eten luzeegia eginez gero, Siri hitz egiten hasiko zaizu zuk bukatu aurretik. Diktatzeko funtzioarekin, nahi duzun guztietan gera zaitezke, eta prest zaudenean jarraitu hitz egiten.

Bestela, hasi testu bat idazten Siri erabiliz, eta jarraitu diktatzeko funtzioa erabiliz. Adibidez, mezu elektroniko bat sor dezakezu Siri erabiliz, eta, gero, zirriborroa sakatu mezua Mail aplikazioan irekitzeko. Mail aplikazioan, mezua osatu edo editatu eta beste aldaketa batzuk egin ditzakezu: hartzaileak gehitu edo ezabatu, gaia berrikusi edo mezu elektronikoa bidaltzeko kontua aldatu.

Nola zuzendu Siri

Sirik arazoak baditu

Batzuetan, baliteke Sirik arazoak izatea zuri ulertzeko; adibidez, inguruan zarata badago. Zure hizkerak doinu berezia badu, baliteke Sirik denbora behar izatea zure ahotsera ohitzeko. Sirik ondo entzuten ez badizu, zuzenketak egin ditzakezu.

Zer ulertu duen bistaratzen du Sirik, erantzunarekin batera.

Sirik ulertu dizuna zuzentzeko: Sakatu Sirik ulertu dizuna bistaratzen duen bunbuiloa. Editatu zure eskaera idatziz edo sakatu 🎍 teklatuan, diktatzeko.

Diktatze-funtzioa nola erabili jakiteko, ikus "Diktatzea", 58. orrialdean.

Testuaren zati bat urdinez azpimarratuta badago, sakatu Sirik beste aukera batzuk proposatzeko. Sakatu iradokizunetako bat edo ordeztu testua, testu berria idatziz edo diktatuz.

Siri hitz eginez zuzentzeko: Sakatu 🍨, eta, gero, egin berriro edo argitu zure eskaera. Adibidez: *"Quería decir Huesca"*.

Siri zuzentzeko, ez esan zer ez duzun nahi, esan zer nahi duzun.

Mezu elektroniko bat edo testu-mezu bat zuzentzeko: Sirik galdetzen badizu mezua bidali nahi duzun ala ez, esan honelako zerbait:

- Cámbialo por: Llámame mañana.
- Añade: signo de interrogación de apertura Nos vemos allí signo de interrogación de cierre.
- No, envíaselo a Nacho.
- No. (para no enviar el mensaje)
- Cancelar.

Sirik mezua irakur dezan, esan *"Léemelo"* edo *"Léeme el mensaje"*. Zuzena bada, esan honelako zerbait: *"Sí, envíalo"*.

Ingurune zaratatsuak

Ingurune zaratatsuetan, ahotik hurbil izan iPhonea, baina ez hitz egin zuzenean beheko ertzari. Jarraitu hitz egiten, argi eta natural. Hitz egiten amaitzean, sakatu 🎍.

Bestela, saiatu iPhonea belarrira eramaten Siriri hitz egiteko.

Sare-konexioa

Baliteke Sirik esatea arazoak izaten ari dela sarera konektatzeko. Sirik Appleren zerbitzariak erabiltzen ditu ahotsa ezagutzeko eta beste zerbitzu batzuk erabiltzeko, eta telefonia mugikorreko 3G, 4G edo LTE konexio on bat edo Interneteko WiFi bidezko konexio on bat izan behar duzu.

5 Telefonoa



Telefono-deiak

Deiak egitea

iPhonearekin dei bat egitea oso erraza da: sakatu kontaktuetako izen bat edo zenbaki bat, erabili Siri "llama a Pedro" esateko (iPhone 4S edo modelo berriagoak), sakatu gogokoetako bat, edo sakatu berriki erabilitako zenbaki bat, deia itzultzeko.



OHARRA. Arreta galtzeari buruzko informazio garrantzitsua kontsultatzeko, ikus "Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua", 199. orrialdean.

Teléfono pantailaren behealdeko botoien bidez, azkar joan zaitezke gogokoetara, berriki erabilitako zenbakietara eta kontaktuetara, baita zenbakia eskuz sartzeko teklatura ere.

Zenbaki bat eskuz markatzeko: Sakatu Teclado, sartu zenbakia eta sakatu Llamar.

- Zenbaki bat itsasteko zenbakizko teklatuan: Sakatu teklatu gaineko pantaila, eta, jarraian, sakatu **Pegar**.
- Etenaldi labur bat (2 segundokoa) sartzeko: Ukitu "*" tekla, koma bat bistaratzen den arte.
- Etenaldi luze bat sartzeko (markaketa eteteko markatzeko botoia sakatu arte): Ukitu "#" tekla, puntu eta koma bat bistaratzen den arte.
- Azkena markatutako telefono-zenbakia berriro markatzeko: Sakatu Teclado, sakatu Llamar zenbakia ikusteko, eta, gero, sakatu berriro Llamar.

Kontaktu bat Favoritos atalean sartzeko: Contactos atalean, sakatu "Añadir a favoritos", kontaktu-txartel baten beheko aldean. Gogokoen zerrenda ezabatzeko edo berrantolatzeko, sakatu Editar.

Ahots bidezko kontrola edo Siri erabiltzeko: Luze sakatu hasierako botoia O, esan llamar edo marcar, eta, gero, esan izena edo zenbakia. Esandakoari *de casa, del trabajo* edo *mõvil* gehitu diezaiokezu. Ikus 4. kapitulua, **"Siri"**, 39. orrialdean, eta **"Ahots bidezko kontrola"**, 36. orrialdean.

Emaitzarik onena lortzeko, esan deitu nahi diozun pertsonaren izen osoa. Zenbaki bat ahots bidez markatzean, bereizi digitu bakoitza. Adibidez, esan cuatro uno cinco, cinco cinco cinco, uno dos uno dos. AEBn, eremukodearen kasuan, "800"; ochocientos esan dezakezu.

Deiak jasotzea

Dei bati erantzuteko: Sakatu Contestar. iPhonea blokeatuta badago, arrastatu erreguladorea.

Entzungailuen erdiko botoia sakatu dezakezu, bestela.

Dei bat isiltzeko: Sakatu egoneanjaktibatuta botoia edo bolumen-botoia. Nahi izanez gero, deiari isildu ondoren erantzun diezaiokezu, ahotspostontzira desbideratu aurretik.

Dei bati testu-mezu baten bidez erantzuteko: Eraman gora, eta sakatu "Responder con mensaje"; gero, aukeratu erantzun bat edo sakatu Personalizadas. Zeure erantzun lehenetsiak sortzeko, zoaz hona: Ajustes > Teléfono > "Responder con mensaje", eta aldatu erantzun lehenetsietako edozein.

Dei bati erantzutea gogorarazteko: Eraman
 gora, sakatu "Recordar más tarde", eta aukeratu noiz nahi duzun gogoraraztea.



Dei bat ez onartzeko eta zuzenean ahots-postontzira bidaltzeko: Egin eragiketa hauetako bat:

- Sakatu egonean/aktibatuta botoia bi aldiz jarraian.
- Luze sakatu entzungailuen erdiko botoia, bi segundoz, gutxi gorabehera. Bi soinu baxuk adieraziko dute deia baztertu duzula.
- Sakatu Rechazar (iPhonea aktibatuta badago deia jasotzean).

Deiak blokeatzeko eta Interneteko WiFi sarbidea mantentzeko: Zoaz Ajustes aukerara, aktibatu hegazkin-modua, eta, jarraian, sakatu WiFi, aktibatzeko.

iPhonea ez molestatzeko moduan doitzeko 🤇 : Zoaz Ajustes atalera, eta aktibatu ez molestatzeko modua. Kontsultatu **"Ez molestatzeko modua** eta jakinarazpenak", 179. orrialdean.

iPhonea itzalita, hegazkin-moduan edo ez molestatzeko moduan badago, sarerako deiak ahots-postontzira joango dira zuzenean.

Dei bat martxan dagoenean

Telefonoz hizketan ari zarenean, pantailak dei-aukerak erakusten ditu.



Beste FaceTime dei bat egiteko.

Beste aplikazio bat erabiltzeko telefonoz hizketan ari zaren bitartean:

Sakatu hasierako botoia □, eta ireki aplikazioa. Dei bat berreskuratzeko, sakatu pantailaren goialdeko barra berdea.

Dei bat amaitzeko: Sakatu Finalizar. Entzungailuen erdiko botoia sakatu dezakezu, bestela.

Bigarren dei bati erantzuteko:

- · Dei bat ez onartzeko eta ahots-postontzira bidaltzeko: Sakatu Ignorar.
- Lehen deia zain uzteko eta bigarrenari erantzuteko: Sakatu "Retener + Contestar"

 Lehen deia amaitu eta bigarrenari erantzuteko: GSM sare bat erabiltzen baduzu, sakatu "Finalizar + Contestar". CDMA sare batekin, sakatu Finalizar, eta bigarren deiak berriro jotzen duenean, sakatu Contestar edo arrastatu erreguladorea telefonoa blokeatuta badago.

FaceTime bideo-dei batean zauden bitartean, bideo-deia amaitu eta deiari erantzun diezaiokezu, edo deia baztertu.

Dei batetik bestera aldatzeko: Sakatu Intercambiar. Dei aktiboa egonean jartzen da. CDMArekin, ezin da aldatu dei batetik bestera bigarren deia irteerakoa bazen, baina deiak elkartu egin daitezke. Bigarren deia edo elkartutako deia amaituz gero, bi deiak amaituko dira.

Deiak elkartzeko: Sakatu Fusionar. CDMArekin, ezin dira deiak elkartu bigarren deia sarrerakoa bazen.

Multikonferentziak

GSMrekin, bost lagunerainoko multikonferentziak egin ditzakezu, erabiltzen duzun telefonia-operadorearen arabera.

Multikonferentzia bat egiteko: Dei bat martxan dela, sakatu "Añadir llamada", egin beste dei bat, eta sakatu Fusionar. Errepikatu pauso horiek jende gehiago gehitzeko konferentziari.

 Pribatuan hitz egiteko pertsona batekin: Sakatu Conferencia, eta, jarraian, pertsona baten alboko Privado. Sakatu Fusionar, berriro ekiteko konferentziari.

 Sarrerako dei bat gehitzeko: Sakatu "Retener + Contestar", eta, jarraian, Fusionar. Oharra. Ezin da egin FaceTime bideo-dei bat multikonferentzia bat egiten ari zaren bitartean.

Bluetootha darabilen gailu bat erabiltzea

Bluetootha darabilen gailu bat nola erabili jakiteko, irakurri gailuaren dokumentazioa. Ikus **"Bluetootha darabilten gailuekiko lotura"**, 45. orrialdean.

Bluetootha darabilen zure gailuari kasurik ez egiteko:

- Erantzun dei bati iPhonearen pantaila erabiliz.
- Dei bat martxan dela, sakatu Audio, eta aukeratu iPhone edo "Altavoz teléfono".
- Desaktibatu bluetootha, Ajustes > Bluetooth atalean.
- Itzali bluetootha darabilen gailua edo atera irismen-eremutik.
 Bluetootha darabilen gailu bat iPhonera konektatzeko, 10 metro baino gutxiagora egon behar duzu.

Larrialdi-deiak

Larrialdi-dei bat egiteko iPhonea blokeatuta dagoenean: **"Introduzca el** código" pantailan, sakatu **"Llamada SOS"**.

Garrantzitsua. Leku askotan erabil daiteke iPhonea larrialdi-dei bat egiteko, baldin eta mugikor-zerbitzua eskuragarri badago, baina ez zenuke haren gain soilik egon behar larrialdi-kasuetan. Halaber, baliteke telefonia mugikorreko sare batzuek ez onartzea iPhonearen larrialdi-dei bat iPhonea aktibatuta ez badago, telefonia mugikorreko sare jakin batekin bateragarria ez bada edo harekin funtzionatzeko konfiguratuta ez badago edo (hala badagokio) ez badu SIM txartelik edo ez badago PIN bidez blokeatuta.

AEBn, kokapenari buruzko informazioa ematen zaie larrialdi-zerbitzuei (aukera hori eskuragarri badago) 911 zenbakia markatzean.

CDMArekin, larrialdi-dei bat bukatzen denean, iPhonea SOS dei moduan sartzen da minutu batzuez, larrialdi-zerbitzuen dei bati erantzun ahal izateko. Denbora horretan, blokeatu egingo dira datu-transmisioak eta testu-mezuak.

SOS dei modutik irteteko (CMDA): Egin eragiketa hauetako bat:

- Sakatu atzera tekla.
- Sakatu egonean/aktibatuta botoia edo hasierako botoia

 .
- Erabili zenbaki-teklatua larrialdi-zenbakia ez den beste bat markatzeko.

FaceTime

iPhone 4 edo modelo berriagoetan, bideo-deiak egin ditzakezu Mac bat edo FaceTimerekin bateragarria den beste iOS gailu bat duten bezeroekin. FaceTimeren kamerarekin, aurrez aurre hitz egin dezakezu. Aldatu atzealdeko iSight kamerara zure inguruan dagoena erakusteko.

Oharra. iPhone 3GS eta iPhone 4 modeloetan WiFi bidezko Interneteko konexio bat beharko duzu. iPhone 4S modeloan edo berriagoetan, datu mugikorren konexio baten bidez ere egin ahal izango dituzu FaceTime deiak. Baliteke telefonia mugikorreko datu-tarifak aplikatzea. Datu mugikorren sare bidezko FaceTime desaktibatzeko, zoaz hona: Ajustes > General > Datos móviles.

FaceTime dei bat egiteko: Contactos atalean, aukeratu izen bat, sakatu FaceTime, eta, gero, sakatu pertsona horrek FaceTimerako erabiltzen duen telefono-zenbakia edo helbide elektronikoa.

iPhone 4 bat edo modelo berriago bat duen norbaiti deitzeko, egin ahots-dei bat, hasteko, eta, gero, sakatu **FaceTime**.



Arrastatu irudia edozein ertzetara.

Isilarazi (zuk ikusi eta entzun egin dezakezu; deia egiten duen pertsonak, berriz, ikusi bai, baina ez du ezer entzungo).

Kamera aldatzeko.

Oharra. FaceTimerekin, zure telefono-zenbakia bistaratu egingo da deien identifikazioa blokeatuta edo desaktibatuta egon arren.

Ahots bidezko kontrola edo Siri erabiltzeko: Luze sakatu hasierako botoia O, eta, gero, esan **"FaceTime"** eta deitu nahi duzun pertsonaren izena.

FaceTimeren aukerak doitzeko: Zoaz hona: Ajustes > FaceTime. Hauek egin ditzakezu:

- FaceTime aktibatu edo desaktibatu;
- Zure Appleko IDa edo helbide elektroniko bat eman FaceTime deiak jasotzeko.

Irudi bidezko ahots-postontzia

Irudi bidezko ahots-postontziarekin, mezuen zerrenda bat ikus dezakezu, eta zein entzun eta ezabatu nahi dituzun erabaki, jarraibideak edo aurreko mezuak entzun beharrik izan gabe. Ahots-postontziaren ikonoaren gaineko bunbuiloak adierazten du zenbat mezu dituzun entzun gabe.

Irudi bidezko ahots-postontzia konfiguratzeko: "Buzón de voz" lehen aldiz sakatzean, iPhoneak postontzirako pasahitz bat sortzeko eskatuko dizu, eta agur-mezu bat grabatzeko.

Ahots-mezu bat entzuteko: Sakatu "Buzón de voz", eta, gero, sakatu mezu bat. Berriro entzuteko, aukeratu mezua, eta sakatu ▶. Irudi bidezko ahots-postontzia zure zerbitzuarekin eskuragarri ez badago, sakatu "Buzón de voz", eta bete jarraibideak.

Ahots-postontzia beste telefono batetik kontsultatzeko: Markatu zure zenbakia edo zure telefonia-operadorearen urrutiko sarbidearen zenbakia.



Entzun gabeko mezuak

Bozgorailua (audioa, gailu bat bluetooth bidez konektatuta dagoenean. Sakatu hau audio-irteera aukeratzeko).

Kontaktuaren informazioa

Erreproduzitu/gelditu

Arrastatu erreprodukzio-kurtsorea mezuaren edozein puntutara jauzi egiteko.

Deia itzultzeko.

Mezuak gorde egiten dira erabiltzaileak edo telefonia-operadoreak ezabatzen dituen arte.

Mezu bat ezabatzeko: Pasatu hatza mezutik edo sakatu, eta, gero, sakatu Eliminar.

Oharra. Leku batzuetan, baliteke telefonia-operadoreak betiko ezabatzea ezabatutako mezuak.

Ezabatutako mezuak kudeatzeko. Sakatu "Mensajes eliminados" (zerrendaren amaieran); aukera hauek dituzu:

- Ezabatutako mezu bat entzuteko: Sakatu mezua
- Mezua ezabatzea ezeztatzeko: Sakatu mezua, eta, gero, Recuperar.
- Mezuak behin betiko ezabatzeko: Sakatu "Borrar todo".

Zure mezu pertsonala aldatzeko: Sakatu Buzón de voz > Saludo > Personalizado, sakatu Grabar, eta, gero, esan zure agur-mezua. Bestela, sakatu "Por omisión", eta zure telefonia-operadorearen agur orokorra erabiliko da.

Ahots-postontziko mezu berrietarako soinu-alerta bat definitzeko: Zoaz hona: Ajustes > Sonidos, eta, gero, sakatu "Nuevo mensaje de voz".

Oharra. Tonua/isilik etengailua itzalita badago, iPhoneak ez du alertarik igorriko.

Ahots-postontziaren pasahitza aldatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Teléfono > "Contraseña del buzón de voz".

Kontaktuak

Kontaktu baten informazio-pantailan, behin bakarrik sakatuta, dei bat egin daiteke, mezu elektroniko bat sortu edo haren kokapena aurkitu, besteak beste. Ikus 25. kapitulua, **"Kontaktuak"**, 135. orrialdean.

Deiak desbideratzea, deia zain eta deiak identifikatzea

GSM sareei soilik aplikatzen zaie informazio hau. CDMA sareetarako, jarri harremanetan zure operadorearekin halako funtzioak nola gaitu eta erabili jakiteko. Ikus **support.apple.com/kb/HT4515?viewlocale=es_ES**.

Desbideratze-funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Teléfono > Desvío de llamadas. Deiak desbideratzeko ikonoa (bistaratzen da egoera-barran dei-desbideratzea aktibatuta dagoenean. iPhonean deiak desbideratzeko doikuntzak zehazten dituzunean, telefonia mugikorreko sarearen irismen-eremuan egon behar duzu, bestela ez baitira deiak desbideratuko. FaceTime deiak ez dira desbideratzen. Deia zain uzteko funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Teléfono > "Ilamada en espera". Delak zain uzteko funtzioa desaktibatuta badago, telefonoz hitz egiten ari zarela sartzen diren deiak ahots-postontzira joango dira zuzenean.

Deiak identifikatzeko aukera aktibatzeko edo desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Teléfono > "Mostrar ID de llamada".

Oharra. FaceTime deien kasuan, zure telefono-zenbakia beti bistaratuko da, nahiz eta deiak identifikatzeko aukera desaktibatuta egon.

Dei-tonuak, tonua/modu isila etengailua eta bibrazioa

iPhoneak dei-tonuak, ordulari-alarmak eta tenporizadorea ditu, eta deiak jasotzerakoan erabil ditzakezu. Abestien dei-tonuak ere eskuratu ditzakezu iTunesen. Ikus 22. kapitulua, **"iTunes Store denda"**, 127. orrialdean.

Tonu bera doitzeko kasu guztietarako: Zoaz hona: Ajustes > Sonidos > "Tono de llamada".

Dei-tonua aktibatu eta desaktibatzeko: Lerratu iPhonearen albo bateko etengailua.

Garrantzitsua. Ordulariaren alarmek jo egiten dute etengailu hori modu isilean egonda ere.

Bibrazioa aktibatzeko eta desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Sonidos.

Kontaktu bati beste tonu bat jartzeko: Contactos atalean, aukeratu kontaktu bat, sakatu Editar, eta, gero, sakatu Tono eta aukeratu dei-tonu bat. Informazio gehiago lortzeko, irakurri "Soinuak" atala, 190. orrialdean.

Nazioarteko deiak

Zure herrialdetik nazioarteko deiak egiteari buruzko informazioa nahiz tarifei eta beste tasa aplikagarri batzuei buruzko informazioa jasotzeko, jarri harremanetan zure telefonia-operadorearekin, edo bisitatu operadorearen webgunea.

Atzerrira joaten zarenean, baliteke iPhonea erabili ahal izatea deiak egiteko, testu-mezuak bidaltzeko eta jasotzeko eta Interneteko sarbidea behar duten aplikazioak erabiltzeko, eskuragarri dauden sareen arabera.

Nazioarteko desplazamendua aktibatzeko: Jarri harremanetan zure operadorearekin zerbitzuaren erabilgarritasunari eta tarifei buruzko informazioa jasotzeko.

Garrantzitsua. Ahotserako, testu-mezuetarako eta datuetarako desplaza-

mendu-tarifak aplika daitezke. Desplazamendu-tarifarik ez aplikatzeko, desaktibatu "Itinerancia de voz" eta "Itinerancia de datos".

CDMA sare batean funtzionatzeko aktibatu den iPhone 4S bat edo modelo berriago bat baduzu, baliteke desplazamendu-zerbitzua erabili ahal izatea GSM sareetan, telefonoak SIM txartel bat instalatua badu. GSM sare batean desplazamenduan badago, iPhonea GSM sarearen funtzioetara sartu ahal izango da. Baliteke erabilera horregatik tarifak ezartzea. Jarri harremanetan telefonia-operadorearekin horri buruzko informazio gehiago jasotzeko.

Sareko aukerak doitzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > "Datos móviles". Aukera hauek dituzu:

- · Roaming-eko datuak aktibatzea edo desaktibatzea:
- telefonia mugikorreko datuak aktibatzea edo desaktibatzea;
- Roaming-eko ahotsa aktibatzea edo desaktibatzea:
- atzerrian GSM sareak erabiltzea (CDMA).

Zerbitzu mugikorrak desaktibatzeko: Zoaz Ajustes aukerara, aktibatu hegazkin-modua, eta, jarraian, sakatu WiFi, WiFi bidezko konexioa aktibatzeko. Jasotako deiak ahots-postontzira joango dira zuzenean. Zerbitzu mugikorrak berriro martxan jartzeko, desaktibatu hegazkin-modua.

Automatikoki gehitzea aurrezenbakia edo herrialde-kodea AEBra deitzeko: (GSM) Zoaz hona: Ajustes > Teléfono, eta, gero, aktibatu "Asistencia de marcación". Hala, kontaktuak eta gogokoak erabili ahal izango dituzu deiak egiteko atzerrira joaten zarenean.

Operadore bat hautatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Operador. Zure zerbitzu-hornitzailearen sarearen irismenetik kanpo zaudenean eta zure zerbitzu-hornitzailearekin desplazamendu-hitzarmenak dituzten operadoreekin soilik dago eskuragarri aukera hori. Ikus **"Operadorea"**, 181. orrialdean.

Irudi bidezko ahots-postontzia eskuragarri ez dagoenean ahotspostontzia kontsultatzeko: Markatu zure zenbakia (CDMArekin, gehitu # zenbakiaren ondoren) edo luze sakatu "1" zenbaki-teklatuan.

Nola doitu telefonoaren aukerak

Zoaz hona: Ajustes > Teléfono. Hauek egin ditzakezu:

- zure iPhonearen telefono-zenbakia ikusi;
- testu-mezu lehenetsiak aldatu, sarrerako deiei erantzuteko;
- dei-desbideratzea, deia zain eta dei-identifikazioa aktibatu edo

desaktibatu;

- TTY aktibatu edo desaktibatu;
- ahots-postontziaren pasahitza aldatu;
- PINa eskatu SIMa desblokeatzeko iPhonea pizten duzunean (operadore batzuek eskatu egiten dute).

Zoaz hona: Ajustes > FaceTime. Hauek egin ditzakezu:

- · FaceTime aktibatu edo desaktibatu;
- Appleko zure IDa erabili FaceTimerako;
- helbide elektronikoa gehitu FaceTimerako;
- telefonia mugikorreko datuak aktibatu edo desaktibatu;

Zoaz hona: Ajustes > Sonidos. Hauek egin ditzakezu:

- tonuak eta bolumena konfiguratu;
- bibrazio-aukerak doitu;
- hots-mezu berrien soinua definitu.

6 Posta



Posta-mezuak irakurtzea

Aldatu postontzia edo kontua.



Mezuei adierazleak jartzeko edo irakurri gabeko gisa markatzeko: Sakatu 🏴 Hainbat mezu aldi berean markatzeko, sakatu Editar mezuen zerrenda ikusten duzun bitartean.

Berariaz zuri zuzendutako mezuak identifikatzeko: Joan Ajustes > "Correo, contactos, calendarios" aukerara, eta, ondoren, aktibatu edo desaktibatu "Etiqueta Para/Cc". Para edo Cc eremuan zure helbidea duten mezuak ikono baten bidez adieraziko dira mezuen zerrendan.

Mezu baten hartzaile guztiak ikusteko: Sakatu Detalles hitza De eremuan. Sakatu hartzaile baten izena edo helbide elektronikoa, haren harremanetarako informazioa ikusteko edo kontaktuetan edo VIP zerrendan sartzeko.

Urruneko irudiak ez deskargatzeko: Joan Ajustes > "Correo, contactos, calendarios" aukerara, eta, ondoren, aktibatu edo desaktibatu "Cargar imágenes".
Esteka bat irekitzeko: Sakatu esteka ekintza lehenetsia erabiltzeko, edo luze sakatu beste ekintza batzuk ikusteko. Adibidez, helbide batentzat, kokapena bistara daiteke Mapas aukeran, edo kontaktuetan sartu. Webgune baterako estekaren kasuan, irakurketa-zerrendan sar dezakezu.

Bilera baterako gonbidapen bat edo erantsitako fitxategi bat irekitzeko: Sakatu i tema. Erantsitako fitxategia aplikazio batek baino gehiagok erabil badezakete, sakatu luze fitxategiarekin bateragarria den aplikazio bat aukeratzeko.

Erantsitako argazki bat edo bideo bat gordetzeko: Sakatu luze argazkia edo bideoa, eta, ondoren, sakatu "Guardar imagen" edo "Guardar vídeo". Fotos aplikazioko Carrete albumean gordeko da.

Mezu berriak kargatzeko: Mugitu mezuen edo postontzien zerrenda beherantz zerrenda eguneratzeko.

- Berreskuratutako mezu zaharren kopurua doitzeko: Zoaz hona: Ajustes
- > Correo, contactos, calendarios > Mostrar.

Kontu bateko mezu berrien jakinarazpenak desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Notificaciones > Mail > kontuaren izena, eta desaktibatu jakinarazpen-zentroa.

Mezuen tonuak aldatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Sonido.

- Kontu bakoitzeko mezu berrien tonua aldatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Notificaciones > Mail > kontuaren izena > Sonido de correo nuevo.
- VIP bidaltzaileen mezu berrien tonua aldatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Notificaciones > Mail > VIP > Sonido de correo nuevo.

Nola bidali mezuak



Sakatu De, Cc edo Cco eremuak aldatzeko.

Sakatu argazki edo bideoren bat eransteko.

Aldatu zure sinadura hemen: Ajustes > Correo, contactos, calendarios.

Mezu bat idazteko: Sakatu G, eta, ondoren, sartu izen bat edo helbide elektroniko bat. Hartzaileak sartu ondoren, eremu batetik bestera arrastatu ditzakezu; adibidez, Para eremutik Cc eremura. Posta elektronikoko hainbat kontu badituzu, hautatu De mezua bidaltzeko kontua aldatzeko. Irteerako mezuen kopia bat automatikoki bidaltzeko: Zoaz hona: Ajustes > Correo, contactos, calendarios > Añadirme a Cco.

Mezu baten zirriborro bat gordetzeko: Sakatu Cancelar, eta, gero, sakatu Guardar. Mezua kontuko Borradores postontzian jasotzen da. Sakatu luze gordetako zirriborroak ikusteko.

Mezu bati erantzuteko: Sakatu
, eta gero, sakatu Responder. Hasierako mezuko fitxategi eta irudi erantsiak ez dira birbidaltzen. Erantsitako fitxategiak sartzeko, birbidali mezua, hari erantzun beharrean.

Mezu bat birbidaltzeko: Ireki mezu bat, sakatu , eta, gero, sakatu **Re**enviar. Aukera horrekin, mezuari erantsitako fitxategiak ere birbidaltzen dira.

Erantzuten edo birbidaltzen ari garen mezuaren zati bat aipatzeko: Sakatu luze hatzarekin testua, hautatzeko. Arrastatu hautatze-puntuak zure erantzunean sartu nahi duzun testua hautatzeko, eta, ondoren, sakatu ←

- Koska-maila aldatzeko: Hautatu koskatu nahi duzun testua, sakatu gutxienez bi aldiz, eta gero, sakatu "Nivel de cita".
- Aipu-maila automatikoki handitzeko: Zoaz hona: Ajustes > "Correo, contactos, calendarios", eta aktibatu "Aumentar nivel de cita".

Mezu batean argazki bat edo bideo bat bidaltzeko: Sakatu txertatzepuntua, aukeratzeko botoiak bistaratzeko. Sakatu >, sakatu "Insertar foto o video", eta, gero, hautatu album bateko argazki bat edo bideo bat. Era berean, aukera duzu posta elektronikoz hainbat argazki bidaltzeko, Fotos aukerarekin (kontsultatu "Nola partekatu argazkiak eta bideoak", 102. orrian).

Posta elektronikoko sinadura aldatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Correo, contactos, calendarios > Firma. Posta-kontu bat baino gehiago baduzu, sakatu "Por cuenta" kontu bakoitzarentzako sinadura bat zehazteko.

Posta antolatzea

VIP zerrendako pertsonen mezuak ikusteko: Zoaz postontzien zerrendara (sakatu Buzones hara iristeko), eta sakatu VIP.

 VIP zerrendari pertsona bat gehitzeko: Sakatu pertsona baten izena edo helbide elektronikoa De, Para edo Cc/Cco eremu batean, eta, gero, sakatu "Añadir a lista VIP".

Lotutako mezuak multzokatzeko: Joan Ajustes > "Correo, contactos, calendarios" aukerara, eta, ondoren, aktibatu edo desaktibatu "Organizar cadenas". Mezuetan bilatzeko: Ireki posta elektronikoko postontzi bat, mugitu gorantz, eta sartu testua bilaketa-eremuan. Une horretan irekita dagoen postontziko De, Para edo Asunto eremuan egin dezakezu bilaketa. Zerbitzariko mezuak bilatzea onartzen duten posta-kontuetan, sakatu Todo, De, Para edo Asunto eremuetan edo mezuaren edukian bilaketa egiteko.

Mezu bat ezabatzeko: Mezua irekita badago, sakatu 💼.

- Mezu bat ireki gabe ezabatzeko: Pasatu hatza mezuaren izenburutik, eta, gero, sakatu Eliminar.
- Zenbait mezu ezabatzeko: Mezuen zerrenda bistaratu bitartean, sakatu Editar.
- Ezabatzeko berrespena desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Correo, contactos, calendarios > Preguntar al borrar.

Mezu bat berreskuratzeko: Joan kontuko Papelera postontzira, ireki mezua, sakatu 🛱 , eta, gero, eraman mezua sarrerako erretilura edo kontuko beste karpeta batera.

 Behin betiko ezabatu aurretik mezuek Papelera karpetan egiten duten denbora doitzeko: Zoaz hona: Ajustes > Correo, contactos, calendarios > kontuaren izena > Cuenta > Avanzado.

Artxibatzea aktibatzeko edo desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Correo, contactos, calendarios > kontuaren izena > Cuenta > Avanzado. Mezu bat artxibatzen denean, Todos postontzira eramaten da. Mezuak artxibatzeko aukera ez dute posta-kontu guztiek onartzen.

Mezu bat beste postontzi batera eramateko: Mezua bistaratu bitartean, sakatu 🝺, eta, gero, hautatu nora eraman nahi duzun.

Postontzi bat eransteko, izen berria emateko edo ezabatzeko: Postontzien zerrendan, sakatu Editar. Postontzi batzuk ezin dira ezabatu eta ezin zaie izenik aldatu.

Mezuak eta fitxategi erantsiak inprimatzea

Mezu bat inprimatzeko: Sakatu 🔦, eta gero, sakatu Imprimir.

Integratuta dauden irudiak inprimatzeko: Luze sakatu irudia, eta, gero, sakatu **"Guardar imagen"**. Joan **Fotos** aukerara, eta inprimatu irudia **Carrete** albumetik.

Erantsitako fitxategi bat inprimatzea: Sakatu erantsitako fitxategia **Vista Rápida** aukeran irekitzeko; gero, sakatu 😭 , eta sakatu Imprimir.

Inprimatzeko moduari buruzko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu "AirPrint bidez inprimatzea", 43. orrian.

Posta-kontuak eta postako doikuntzak

Postako eta posta-kontuetako doikuntzak aldatzeko: Zoaz hona: Ajustes > "Correo, contactos, calendarios". Hauek konfigura ditzakezu:

- iCloud
- Microsoft Exchange eta Outlook
- Google
- Yahoo!
- AOL
- Microsoft Hotmail
- POP eta IMAP postako beste kontu batzuk

Konfiguratzen den kontu-motaren arabera, litekeena da doikuntzak aldatzea. Interneteko zure zerbitzu-hornitzaileak edo sistemaren administratzaileak eman diezazukete sartu beharreko informazioa.

Kontu bat aldi baterako erabiltzeari uzteko: Joan Ajustes > "Correo, contactos, calendarios" aukerara, hautatu kontu bat, eta, gero, desaktibatu kontuaren posta-zerbitzua. Zerbitzua desaktibatuta badago, iPhoneak ez du informazio hori bistaratuko, ez eta sinkronizatu ere, berriz aktibatu arte. Oporretan laneko mezuak jasotzeari uzteko modu egokia da, besteak beste.

Kontu bat ezabatzeko: Joan Ajustes > "Correo, contactos, calendarios" aukerara, hautatu kontu bat, eta, gero, joan beherantz, eta sakatu "Eliminar cuenta". Kontu horrekin sinkronizatutako informazio guztia ezabatuko da (gogokoak, posta, oharrak, etab.).

Push-eko doikuntzak zehazteko: Zoaz hona: Ajustes > Correo, contactos, calendarios > "Obtener datos". Push teknologiak informazio berria bidaltzen du zerbitzarian agertzen den eta Interneteko konexio bat dagoen bezain laster (litekeena da atzerapenak gertatzea). "Push" aukera desaktibatuta dagoenean, "Obtener datos" doikuntzaren bidez, informazio hori zenbatean behin eskatuko den zehazten da. Hemen hautatzen duzun doikuntzak banakako kontuetako doikuntzak baliogabetuko ditu. Bateria aurrezteko, hobe izaten da informazioa oso sarri ez jasotzea. Push teknologia ez dute kontu guztiek onartzen.

Sinatutako eta enkriptatutako mezuak bidaltzeko: Zoaz hona: Ajustes > Correo, contactos, calendarios > kontuaren izena > Cuenta > Avanzado. Aktibatu "S/MIME", eta, gero, hautatu irteerako mezuak sinatzeko eta enkriptatzeko ziurtagiriak. Ziurtagiriak instalatzeko, konfigurazio-profil bat lor dezakezu sistemaren administratzailearen eskutik, Safari erabiliz igorlearen webgunetik deskargatu ziurtagiriak, edo posta bidez jaso,

erantsitako fitxategietan.

Aukera aurreratuak doitzeko: Zoaz hona: Ajustes > Correo, contactos, calendarios > kontuaren izena > Cuenta > Avanzado. Aukerak aldatu egiten dira kontuaren arabera. eta. besteak beste. hauek izan daitezke:

- Zirriborroak, bidalitako mezuak eta ezabatutako mezuak iPhonean metatzea
- Ezabatutako mezuak behin betiko ezabatu aurretik zenbat denboraz gordetzen diren doitzea
- Posta-zerbitzariko doikuntzak zehaztea
- SSLri eta pasahitzari dagozkion doikuntzak zehaztea

Zure kontua konfiguratzeko doikuntzarik egokienak zein diren ez badakizu, galdetu sistemaren administratzaileari edo Interneteko sarbidea ematen dizun hornitzaileari.

7 Safari



Hauek dira Safariren funtzioetako batzuk:

- Irakurgailua: bistaratu artikuluak publizitaterik gabe eta modu argian.
- Irakurketa-zerrenda: bildu beste une batean irakurri nahi dituzun artikuluak.
- · Pantaila osoko modua: web-orriak horizontalean bistaratzean.

Erabili iCloud beste gailu batzuetan irekita dauzkazun orriak ikusteko edo irakurketa-zerrenda eta gogokoak eguneratuak izateko gainerako gailuetan.



Gehitu gogoko bat, irakurketa-zerrendako item bat edo hasierako pantailako ikono bat, edo partekatu edo inprimatu orria.

Web-orri bat ikusteko: Sakatu helbidearen eremua (izenburu-barran), sartu URLa, eta, gero, sakatu Ir.

- Web-orri batean mugitzeko: Arrastatu gorantz, beherantz edo alborantz.
- Eremu baten barruan mugitzeko: Arrastatu bi hatz eremuaren barruan.
- Horizontalean pantaila osoan ikusteko: Biratu iPhonea, et a sakatu 🔩 .
- Web-orri bat berriro kargatzeko: Helbidearen eremuan, sakatu 🖒 .

Web-orri bat ixteko: Sakatu 🗅 , eta, gero, sakatu 🔞 , orriaren ondoan.

Ireki dituzun web-orriak gainerako gailuetan ikusteko: Sakatu P, eta, gero, sakatu "Pestañas iCloud". iPhonean ireki dituzun web-orriak "Pestañas iCloud" aukeraren bidez gainerako gailuekin partekatzeko, joan Ajustes - iCloud aukerara, eta aktibatu Safari.

Webgune bateko esteka bati jarraitzeko: Sakatu esteka.

- Esteka baten helmuga-helbidea ikusteko: Luze sakatu esteka.
- Esteka bat fitxa berri batean irekitzeko: Sakatu luze esteka, eta, gero, sakatu "Abrir en una página nueva".

Hautemandako datuak -telefono-zenbakiak eta posta elektronikoko helbideak- esteka gisa ere ager daitezke web-orrietan. Luze sakatu esteka bat, eskura dauden aukerak ikusteko.

Irakurgailuan artikulu bat bistaratzeko: Sakatu Lector botoia, helbidearen eremuan agertzen bada.

- Letraren tamaina doitzeko: Sakatu AA.
- Artikulua partekatzeko: Sakatu 🖻.

Oharra: irakurgailutik posta elektronikoz artikulu bat bidaltzen duzunean, estekaz gainera, artikuluaren testu osoa bidaliko da.

Bistaratzeko modu normalera itzultzeko: Sakatu OK.

Erabili irakurketa-zerrenda geroago irakurri nahi dituzun web-orriak biltzeko:

 Esteka baten helmuga-helbidea gehitzeko: Sakatu luze esteka, eta, gero, sakatu "Añadir a la lista de lectura".

• Irakurketa-zerrenda bistaratzeko: Sakatu ▶, eta, gero, sakatu **"Lista de lectura"**.

 Irakurketa-zerrendatik item bat ezabatzeko: Pasatu hatza itemaren gainetik, eta, gero, sakatu Eliminar. Formulario bat betetzeko: Sakatu testu-eremu bat teklatua bistaratzeko.

• Beste testu-eremu batera joateko: Sakatu testu-eremua, edo sakatu Siguiente edo Anterior.

 Formulario bat bidaltzeko: Sakatu Ir, Buscar edo web-orriaren esteka, formularioa bidaltzeko.

 Autorrelleno funtzioa aktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Safari > Autorrelleno.

Interneten, uneko web-orrian edo bilaketa-ahalmena duen PDF batean bilaketak egiteko: Sartu testua Buscar eremuan.

 Interneten bilaketak egiteko: Sakatu iradokitzen den aukeretakoren bat, edo sakatu Buscar.

 Uneko web-orrian edo PDFan bilaketaren helburu den testua bilatzeko: Joan pantailaren beheko aldera, eta, gero, sakatu "En esta página" aukeraren azpian dagoen sarrera.

Lehenengo agerraldia nabarmenduta egongo da. Geroagoko agerraldiak bilatzeko, sakatu 📽 .

Uneko web-orria gogokoetan gordetzeko. Sakatu 🖻 , eta, gero, sakatu Favorito.

Gogoko bat gordetzean, izenburua editatu ahal izango duzu. Konfigurazioz, gogokoak Favoritos ataleko goiko mailan jasotzen dira. Beste karpeta bat hautatzeko, sakatu **Favoritos** "Añadir favorito" pantailan.

Hasierako pantailan ikono bat sortzeko: Sakatu III , eta, gero, sakatu "Añadir a pantalla inicio". Safarik uneko web-orriaren ikono bat jarriko du zure hasierako orrian. Irudi hori hasierako pantailan webgunearen estekaren ikonoa sortzeko ere erabiltzen da, orriak ikono pertsonalizatua ez badu, bederen. iCloudek eta iTunesek webguneen esteken segurtasun-kopiak egiten dituzte, baina haiek ez dira iCloud bidez beste gailuetara bidaltzen, ez eta iTunesekin sinkronizatu ere.

Uneko web-orriko esteka bat partekatzeko edo kopiatzeko: Sakatu 🖄, eta, gero, sakatu Mail, Mensaje, Twitter, Facebook edo Copiar.

Uneko web-orria inprimatzeko: Sakatu ≌, eta gero, sakatu Imprimir. Ikus "AirPrint bidez inprimatzea", 43. orrialdean.

Zure gogokoak eta irakurketa-zerrenda gainerako gailuetan eguneratuak izateko iCloud erabiltzeko:]oan Ajustes > iCloud aukerara, eta aktibatu Safari. Ikus "iCloud", 20. orrialdean.

Safari-ren aukerak doitzeko: Zoaz hona: Ajustes > Safari. Aukera hauek dituzu:

- Bilaketa-motorra
- Formularioak betetzeko "autorrelleno" funtzioa
- Estekak beste orri batean edo bigarren mailan irekitzea
- Pribatuan nabigatzea, informazio pribatua babesteko eta webgune batzuek zure nabigazioaren jarraipena egiteko aukera blokeatzeko
- · Historia, cookieak eta datuak ezabatzea
- Datu mugikorrak irakurketa-zerrendarako
- Iruzur-oharra

8 Musika



Musika eskuratzea

Eskuratu musika eta beste audio-eduki batzuk iPhonean:

 iTunes Store dendatik musika erosteko eta deskargatzeko: Música atalean, sakatu Store. Ikus 22. kapitulua, "iTunes Store denda", 127. orrialdean.

- Beste iOS gailu eta ordenagailu batzuetan erositako musika automatikoki deskargatzeko: Ikus "iCloud", 20. orrialdean.
- Zure ordenagailuko iTunes aplikazioarekin edukiak sinkronizatzeko: Ikus **"iTunesekin sinkronizatzea"**, 21. orrialdean.
- Tunes Match erabiltzeko zure musika-liburutegia iClouden gordetzeko: Ikus **"iTunes Match"**, 88. orrialdean.

Musika erreproduzitzea

OHARRA. Entzumen-galera prebenitzeari buruzko informazio garrantzitsua kontsultatzeko, ikus "Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua", 199. orrialdean.

Entzungailu integratuaren bidez, entzungailuen harguneari konektatutako entzungailu batzuen bidez edo iPhonearekin lotutako haririk gabeko bluetooth bidezko entzungailu batzuen bidez entzun dezakezu audioa. Entzungailu batzuk konektatu edo lotu ondoren, bozgorailutik ez da inolako soinurik aterako.

Ireki iTunes Store.

Store Artistas		
A		
Alex Clare	Q	 Sakatu entzuteko.
ruox eluio	A	
Androw Dird	č	
Andrew bird	D	
	5	
AU	ģ	
	н	
в		
Ren Howard	ĸ	
Ben Howard	L.	
	M	
Ben Kweller	ö	
	P	
Bob Dylan	9	
	ŝ	
С	Τ	
	U	
Chantal Claret	w	
	Х	
Coldplay	Y	
-	1	
D		the standard had a shirt of the
xx ≡ √ = xx		
Genius Listas Artistas Canciones	His	
L		

Aukeratu nola arakatu edukiak.

Pista bat erreproduzitzeko: Bilatu pista erreprodukzio-zerrendaren, artistaren, abestiaren edo beste kategoria baten arabera, eta sakatu.

Nabigazio-botoi gehiago ikusteko: Sakatu Más.

 Beheko aldean bistaratzen diren nabigazio-botoiak aldatzeko: Sakatu Más, sakatu Editar, eta, gero, arrastatu ikono bat ordeztu nahi duzun botoiaren gainera.

"Ahora suena" pantailan, erreproduzitzen ari dena eta erreprodukziokontrolak bistaratzen dira.



83

Abestiaren hitzak bistaratzen dira **"Ahora suena"** pantailan, baldin eta iTuneseko abestiaren informazio-leihoan gehitu badizkiozu abestiari eta iPhonea iTunesekin sinkronizatu baduzu.

Kontrol gehiago bistaratzeko (iPhone 4S edo modelo berriagoak): Sakatu albumeko ilustrazioa "Ahora suena" pantailan, desplazamendubarra eta erreprodukzio-kurtsorea nahiz Repetir, Genius eta Aleatorio botoiak ikusteko.

Abesti baten edozein puntutara joateko: Arrastatu erreprodukziokurtsorea desplazamendu-barran. Mugitu hatza beherantz, desplazamendu-abiadura mantsotzeko.

Gailua astintzeko abestiak ausaz erreproduzitu ditzan: Astindu iPhonea ausazko modua aktibatzeko eta abestia aldatzeko. "Agitar para aleatorio" aukera aktibatzeko edo desaktibatzeko, zoaz hona: Ajustes > Música.

Uneko abestia duen albumeko pista guztiak ikusteko: Sakatu **□**. Pista bat erreproduzitzeko, sakatu ezazu.

Sakatu izar bat abestiari puntuazioa jartzeko eta erreprodukzio-zerrenda adimendunak sortzeko iTunesen.



Musika bilatzeko (izenburuak, artistak, albumak eta konposatzaileak):

Edukiak arakatzen dituzun bitartean, sakatu egoera-barra bilaketako eremua pantailaren goiko aldean ikusteko, eta, gero, sartu bilatu nahi duzun testua. Bestela, bilatu audio-edukia pantaila nagusitik. Ikus **"Nola egin bilaketak"**, 38. orrialdean.

Audio-kontrolak bistaratzeko beste aplikazio batean zaudela: Sakatu bi aldiz hasierako botoia
, eta, gero, eraman aldi bereko zereginen barra eskuinera. Zoaz berriro eskuinera bolumen-kontrola eta AirPlay
totoia bistaratzeko (Apple TV baten edo AirPlay entzungailu batzuen irismen-radioan zaudenean).



Erreproduzitzen ari den abestia.

Audio-kontrolak bistaratzeko pantaila blokeatuta dagoela: Sakatu bi aldiz hasierako botoia □.

Musika erreproduzitzeko AirPlay entzungailu batzuetan edo Apple TV batean: Sakatu 😱. Ikus "AirPlay", 42. orrialdean.

Cover Flow

iPhonea biratzean, musikaren edukia Cover Flow azal-bistaratzearekin bistaratuko da.



Albumak arakatzea Cover Flow erabiliz: Arrastatu hatza ezkerrerantz edo eskuinerantz.

 Album bateko pistak ikusteko: Sakatu albumaren ilustrazioa edo Arrastatu gorantz edo beherantz, pistetan mugitzeko; sakatu pista bat, erreproduzitzeko.

Ilustraziora itzultzeko: Sakatu izenburu-barra edo sakatu berriro Ø.

Podcastak eta audioliburuak

iPhone 5en, erreprodukzioa martxan jartzean, **"Ahora suena"** pantailan, podcast eta audioliburuen kontrolak bistaratzen dira, bai eta haiei buruzko informazioa ere.

Oharra. Podcasten aplikazioa doan dago eskuragarri App Store dendan. Ikus 31. kapitulua, **"Podcastak"**, 151. orrialdean. Podcasts aplikazioa instalatzen baduzu, podcasten edukia eta kontrolak ezabatu egingo dira Música ataletik.

Kontrolak eta informazioa bistaratzeko edo ezkutatzeko (iPhone 4S edo modelo zaharrago bat): Sakatu pantailaren erdian.

Posta elektronikoa



Podcasten atal gehiago lortzeko: Sakatu Podcasts (edo sakatu, lehenik, Más, Podcasts agertzen ez bada), eta, gero, sakatu podcast bat, atalen zerrenda ikusteko. Atal gehiago deskargatzeko, sakatu "Obtener más episodios".

Podcasten letrak eta informazioa ezkutatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Música, eta aktibatu "Información y letra".

Erreprodukzio-zerrendak

Erreprodukzio-zerrenda bat sortzeko: Sakatu Listas, eta, gero, sakatu "Añadir lista" (zerrendaren goiko aldean dago). Gero, idatzi izenburu bat. Sakatu ③ abesti eta bideoak gehitzeko, eta, gero, sakatu OK.

Erreprodukzio-zerrenda bat editatzeko: Hautatu editatu nahi duzun zerrenda, eta, sakatu Editar.

- Abesti gehiago gehitzeko: Sakatu +.
- Fitxen hurrenkera aldatzeko: Arrastatu ____.

Erreprodukzio-zerrenda berriak eta aldatuak zure iTuneseko liburutegian kopiatuko dira iPhonea zure ordenagailuarekin sinkronizatzen duzun hurrengo aldian, edo, bestela, iCloud bidez, iTunes Matchen harpidetuta bazaude.

Erreprodukzio-zerrenda bat ezabatzeko: Aukeratu erreprodukzio-zerrenda bat, eta sakatu Borrar edo Eliminar.

iPhonetik abesti bat ezabatzeko: Canciones atalean, lerratu hatza abesti baten gainean, eta, gero, sakatu Eliminar.

Abestia ezabatu egingo da iPhonetik, baina ez zure iTuneseko liburutegitik (Mac edo PC batean), ez eta iCloudetik ere.

iTunes Match aktibatuta badago, ezingo duzu musikarik ezabatu.

Espazioa behar izanez gero, iTunes Matchek ezabatu egingo du ezabatu beharreko musika, erreprodukzio gutxien izan dituzten abestietatik edo abesti zaharrenetatik hasita.

Genius

Elkarrekin ondo datozen zure liburutegiko abestien bilduma bat da Genius zerrenda bat. Genius doako zerbitzua da, baina Appleko ID bat eduki behar da hura erabiltzeko.

Genius nahaste bat musika-estilo bereko abestien hautaketa bat da, eta zure liburutegitik sortzen da, hango abestiak entzuten dituzun bakoitzean.

iPhonean Genius erabiltzeko: Aktibatu Genius iTunesen, zure ordenagailuan, eta, gero, sinkronizatu iPhonea iTunesekin. Genius nahasteak automatikoki sinkronizatzen dira, baldin eta musika eskuz kudeatzen ez bada. Bestela, Genius zerrendak sinkroniza ditzakezu.

Genius nahasteak arakatzeko eta erreproduzitzeko: Sakatu Genius (Genius agertzen ez bada, sakatu, Mās, lehenik). Mugitu ezkerrerantz edo eskuinerantz gainerako nahasketetara sartzeko. Nahaste bat erreproduzitzeko, sakatu <a>.

Genius erreprodukzio-zerrenda bat sortzeko: Sakatu Listas, sakatu "Lista Genius", eta hautatu abesti bat. Bestela, "Ahora suena" pantailatik, sakatu pantaila kontrolak ikusteko, eta, gero, sakatu * .

- Zerrenda beste abesti batekin ordezteko: Sakatu Nueva, eta aukeratu abesti bat.
- Erreprodukzio-zerrenda eguneratzeko: Sakatu Actualizar.
- Erreprodukzio-zerrenda gordetzeko: Sakatu Guardar. Erreprodukziozerrenda aukeratutako abestiaren izenburuarekin gordeko da, eta ikurrarekin markatuko da.

Gordetako Genius zerrenda bat editatzeko: Sakatu zerrenda, eta, gero, sakatu Editar.

- Abesti bat ezabatzeko: Sakatu O
- Fitxen hurrenkera aldatzeko: Arrastatu 🚍

Gordetako Genius zerrenda bat ezabatzeko: Sakatu Genius erreprodukzio-zerrenda, eta, jarraian, sakatu Eliminar.

iPhonean sortutako Genius zerrendak zure ordenagailuan kopiatuko dira iTunesekin sinkronizatzen duzunean. Oharra. Genius zerrenda bat iTunesekin sinkronizatzen denean, ezingo duzu zuzenean iPhonean ezabatu. iTunes erabil dezakezu erreprodukziozerrendaren izena editatzeko, sinkronizazioa geratzeko edo ezabatzeko.

Siri eta ahots bidezko kontrola

Siri (iPhone 4S edo modelo berriagoak) edo ahots bidezko kontrola erabil ditzakezu musika-erreprodukzioa kontrolatzeko. Ikus 4. kapitulua, **"Siri"**, 51. orrialdean, eta **"Ahots bidezko kontrola"**, 36. orrialdean.

Ahots bidezko kontrola edo Siri erabiltzeko: Luze sakatu hasierako botoia

 Musika erreproduzitzeko edo pausatzeko: Esan "reproducir" edo "reproducir música". Geldialdi bat egiteko, esan "pausa", "detener música" edo "detener". "Canción anterior" ere esan dezakezu.

 Album bat, artista bat edo erreprodukzio-zerrenda bat erreproduzitzeko: Esan "reproducir", eta jarraian, "álbum", "artista" edo "lista", eta izena.

- Uneko erreprodukzio-zerrenda ausaz berrantolatzeko: Esan "aleatorio".
- Uneko abestiari buruzko informazio gehiago eskuratzeko: Esan "qué suena", "quién canta esta canción" edo "de quién es esta canción".

 Genius erabiltzeko antzeko abestiak erreproduzitzeko: Esan "Genius" edo "reproducir más canciones como esta".

iTunes Match

iTunes Matchek zure musika-liburutegia gordetzen du iClouden (CDetatik inportatutako abestiak barne), eta zure bilduma iPhonean eta beste iOS gailu eta ordenagailu batzuetan izateko aukera ematen dizu. iTunes Match erabiltzeko, harpidetza ordaindu behar da.

iTunes Matchera harpidetzeko: iTunes atalean, zure ordenagailuan, aukeratu Store > "Activar iTunes Match, eta, gero, sakatu Suscribirse botoia.

Harpidetu ondoren, iTunesek zure musika, erreprodukzio-zerrendak eta Genius nahasteak gehituko dizkio iCloudi. Musikarekin bat datozen eta iTunes Store dendan dauden abestiak automatikoki eskuragarri jarriko dira iClouden. Beste abesti batzuk kargatzen dira. Bat datozen abestiak iTunes Plus kalitate handiarekin deskargatu eta erreproduzituko dituzu (AAC 256 kb/s, DRM gabe), nahiz eta jatorrizkoaren kalitatea txikiagoa izan. Informazio gehiago eskuratzeko, ikus www.apple.com/es/icloud/ features.

iTunes Match aktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Música.

iTunes Match aktibatzean, ezabatu egiten da iPhonean sinkronizatutako musika, eta desaktibatu egiten dira Genius nahasteak eta zerrendak.

Oharra. "Usar datos móviles" aktibatuta badago, datu mugikorren tarifak aplika daitezke.

Abestiak erreproduzitzen dituzunean deskargatzen dira iPhonean. Eskuz ere deskargatu ditzakezu abestiak.

iPhonean album bat deskargatzeko: Edukiak arakatu bitartean, sakatu Álbumes, sakatu album bat, eta sakatu \bigtriangleup .

iCloudetik deskargatutako musika soilik bistaratzeko: Zoaz hona: Ajustes > Música, eta desaktibatu "Mostrar toda la música" (iTunes Match aktibatuta badago soilik dago eskuragarri).

iTunes Match edo Descargas automáticas erabiliz gailuak kudeatzeko: iTunesen, zure ordenagailuan, zoaz hona: Store > Ver mi cuenta. Hasi saioa, eta sakatu "Gestionar dispositivos", "iTunes en la nube" atal barruan.

Etxean partekatzea

"Compartir en casa" funtzioarekin, iPhonean zure Mac edo PCko iTunes liburutegiko musika, filmak eta telebista-saioak erreproduzitzeko aukera duzu. iPhoneak eta ordenagailuak WiFi sare berera konektatuta egon behar dute.

Oharra. Funtzio hori erabiltzeko, iTunes 10.2 edo berriago bat izan behar da. Hemen daude: www.itunes.com/es/download. Ezin da partekatu eduki gehigarririk (liburuxka digitalak, iTunes Extra...).

iTuneseko liburutegiko musika erreproduzitzeko iPhonean:

 iTunesen, zure ordenagailuan, aukeratu Avanzado > Activar Compartir en casa. Hasi saioa, eta, gero, sakatu "Crear Compartir en casa".

2 iPhonean, zoaz hona: Ajustes > Música, eta, gero, hasi saioa "Compartir en casa" atalean, Appleko ID bera eta pasahitz bera erabilita.

3 Música atalean, sakatu Más; gero, sakatu Compartido, eta aukeratu liburutegia zure ordenagailuan.

iPhonearen edukira itzultzeko: Sakatu Compartido, eta hautatu "Mi iPhone".

Musikako doikuntzak

Zoaz Ajustes > Música atalera, musikako aukerak doitzeko, hala nola:

- Ausazko moduan jartzeko astintzea
- bolumena doitzea (audio-edukiaren bolumen-maila normalizatzeko)
- ekualizadorea (EQ)

Oharra. Ekualizadoreak soinu-irteera guztiei eragiten die, bai eta entzungailu-irteerari eta AirPlayri ere. Ekualizadorearen doikuntzak, oro har, Música aplikaziotik erreproduzitzen den musikari soilik aplikatzen zaizkio.

Nocturno doikuntza audio-irteera guztiei aplikatzen zaie (bai bideoari, bai musikari). Nocturno aktibatuta, konprimatu egiten da audioirteeraren tarte dinamikoa, jaitsi egiten da pasarte altuetako bolumena, eta handitu egiten da pasarte txikietakoa. Doikuntza hori erabil dezakezu hegazkin batean edo beste ingurune zaratatsu batean musika entzuteko, adibidez.

- podcasten letrak eta informazioa
- abestiak multzokatzea albumaren artistaren arabera
- iTunes Match
- etxean partekatzea

Bolumen-muga doitzeko: Zoaz Ajustes > Música > "Límite de volumen" atalera, eta doitu bolumen-erreguladorea.

Oharra. Europar Batasuneko herrialdeetan, EBk gomendatzen duen mailan ezar dezakezu entzungailuen gehienezko bolumena. Zoaz Ajustes > Música > "Límite de volumen" atalera, eta aktibatu "Límite de volumen UE".

Bolumen-mugaren aldaketa galarazteko: Zoaz Ajustes > General > Restricciones > "Límite de volumen" atalera, eta sakatu "No permitir cambios".

9 Mezuak



Nola bidali eta jaso mezuak

OHARRA. Gidatzean arreta galtzeari buruzko informazio garrantzitsua kontsultatzeko, ikus "Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua", 199. orrialdean.

Mensajes atalean, testu-mezuak (SMS eta MMS) truka ditzakezu beste gailu batzuekin, datu mugikorren konexioaren bidez, bai eta iMessage erabiltzen duten beste iOS gailu batzuekin ere.

iMessage Appleren zerbitzu bat da, eta aukera ematen du iOS edo OS X Mountain Lion duten beste erabiltzaile batzuei WiFi bidez (edo datu mugikorren konexioen bidez) nahi beste mezu bidaltzeko. iMessage erabiliz, beste pertsona hori idazten ari den ala ez ikusiko duzu, eta, haren mezuak irakurtzen dituzunean, horren berri jasoko du. iMessageko mezuak kontu berera konektatutako iOS gailu guztietan bistaratzen dira; beraz, gailu horietako batean has dezakezu elkarrizketa, eta beste batean jarraitu. Gainera, iMessageko mezuak enkriptatu egiten dira, segurtasun handiagoa izateko.



Kolore urdinak iMessageko elkarrizketa bat adierazten du.

Sakatu hau testua sartzeko.

Sakatu multimedia-edukia eransteko botoia argazki bat edo bideo bat gehitzeko.

Testu-mezu bidezko elkarrizketa bat hasteko: Sakatu ☑, eta, gero, sakatu ⓐ eta aukeratu kontaktu bat, bilatu zure kontaktuetan izen bat sartuz, edo idatzi telefono-zenbaki bat edo helbide elektroniko bat eskuz. Idatzi mezu bat, eta sakatu Enviar.

Ezin bada mezurik bidali, alerta-bunbuilo bat bistaratuko da ④. Sakatu elkarrizketa baten alerta mezua berriro bidaltzen saiatzeko. Sakatu bi aldiz mezua SMS testu-mezu gisa bidaltzeko.

Elkarrizketa bati berriro ekiteko: Sakatu elkarrizketa, Mensajes zerrendan.

Karaktere grafikoak erabiltzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Teclado > Teclados > "Añadir nuevo teclado". Gero, sakatu Emoji, teklatu hori eskuragarri egon dadin. Gero, mezu bat idatzi bitartean, askatu @, Emoji teklatua bistaratu dadin. Ikus "Idazteko modu bereziak", 196 orrialdean.

Pertsona baten kontaktu-informazioa ikusteko: Zoaz goiko aldera (sakatu egoera-barra) zer ekintza egin ditzakezun ikusteko (esaterako, FaceTimeko dei bat egin).

Elkarrizketako aurreko mezuak kontsultatzeko: Zoaz goiko aldera (sakatu egoera-barra). Beharrezkoa bada, sakatu "Cargar mensajes anteriores".

Talde bati mezuak bidaltzeko (iMessage y MMS): Sakatu 🕝 , eta, gero, gehitu hartzaileak. MMSetarako ere aktibatua izan behar da taldeko mezularitza Ajustes > Mensajes atalean. Erantzunak ez zaizkizu bidaliko zuri bakarrik, taldeko gainerako kideei ere bidaliko zaie kopia bana.

Elkarrizketak kudeatzea

Zure elkarrizketak Mensajes zerrendan gordetzen dira. Puntu urdin batek adierazten du zenbat mezu dauden irakurri gabe. Sakatu elkarrizketa bat, ikusteko edo harekin jarraitzeko.

Elkarrizketa bat birbidaltzeko: Sakatu Editar, aukeratu gehitu nahi dituzun elkarrizketa-zatiak, eta sakatu Reenviar.

Elkarrizketa bat editatzeko: Sakatu Editar, aukeratu ezabatu nahi dituzun zatiak, eta sakatu Eliminar. Mezu eta fitxategi erantsi guztiak ezabatzeko baina elkarrizketa bere horretan uzteko, sakatu "Borrar todo".

Elkarrizketa bat ezabatzeko: Mensajes zerrendan, lerratu hatza elkarrizketaren gainean, eta, gero, sakatu Eliminar.

Elkarrizketa bat bilatzeko: Sakatu pantailaren goialdea, bilaketa-eremua bistaratzeko, eta, ondoren, sartu bilatu nahi duzun testua. Bestela, bilatu elkarrizketak pantaila nagusitik. Ikus **"Nola egin bilaketak"**, 38. orrialdean.

Zure kontaktu-zerrendari pertsona bat gehitzeko: Sakatu telefono-

zenbaki bat Mensajes zerrendan, eta, jarraian, "Añadir contacto".

Nola partekatu argazkiak, bideoak eta bestelako informazioa

iMessage edo MMS erabiliz, argazkiak eta bideoak bidali eta jaso ditzakezu, bai eta kokapenak, harremanetarako datuak eta ahots-oharrak bidali ere. Fitxategi erantsien tamaina-muga zure zerbitzu-hornitzaileak zehazten du. iPhoneak argazki- edo bideo-fitxategiak konprima ditzake beharrezkoa bada.

Argazki bat edo bideo bat bidaltzeko: Sakatu 💿.

Kokapen bat bidaltzeko: Mapas aplikazioan, sakatu kokapen baten (), sakatu "Compartir ubicación", eta, azkenik, sakatu Mensaje.

Kontaktu bati buruzko informazioa bidaltzeko: Contactos atalean, aukeratu kontaktu bat, sakatu "Compartir contacto", eta, gero, sakatu Mensaje.

Ahots-ohar bat bidaltzeko: Notas de Voz atalean, sakatu ≡, sakatu ahots-oharra, sakatu Compartir, eta, gero, sakatu Mensaje.

Argazki edo bideo bat Carrete albumean gordetzeko: Sakatu argazkia edo bideoa, eta, gero, sakatu 🖻 .

Argazki edo bideo bat kopiatzeko: Luze sakatu fitxategi erantsia, eta, gero, sakatu Copiar.

Zure kontaktuetako pertsona bat gehitzeko Mensajes zerrendatik: Sakatu telefono-zenbakia edo helbide elektronikoa, sakatu egoera-barra goiko alderaino joateko, eta, gero, sakatu **Añadi**r.

Jasotako kontaktuari buruzko informazioa gordetzeko: Sakatu kontaktuaren bunbuiloa, eta, jarraian, sakatu "Nuevo contacto" edo "Contacto existente".

Mezuen doikuntzak

Zoaz **Ajustes > Mensajes** atalera, **Mensajes** ataleko aukerak doitzeko, hala nola:

- iMessage aktibatu edo desaktibatu;
- beste pertsona batzuei jakinarazi beren mezuak irakurri dituzula;
- Appleren ID bat edo helbide elektroniko bat zehaztu Mensajes funtzioarekin erabiltzeko;
- SMS eta MMSen aukerak;
- Asunto eremua bistaratu;
- · karaktere-kopurua bistaratu.

Mezuen jakinarazpenak kudeatzeko: Kontsultatu "Ez molestatzeko modua eta jakinarazpenak", 138. orrialdean.

Sarrerako testu-mezuen alerta-soinua doitzeko: Ikus "Soinuak", 190. orrialdean.

10 Egutegia



Ikuspegi orokorra

iPhonearekin, erraz bete ditzakezu programatutako ordutegiak. Egutegiak banaka ikus ditzakezu; edo bestela, hainbat egutegi aldi berean ikus ditzakezu.



Gertaera bat ikusteko edo editatzeko: Sakatu gertaera. Aukera hauek dituzu:

- lehen mailako eta bigarren mailako alerta bat ezarri;
- ekitaldiaren data, ordua edo iraupena aldatu;
- gertaera bat beste egutegi batera eraman;
- beste erabiltzaile batzuk gonbidatu iCloud, Microsoft Exchange eta CalDAV egutegietako gertaeretara joatera;
- gertaera ezabatu.

Gertaera bat mugi dezakezu, luze sakatu eta ordu berri batera arrastatuz edo hautatze-puntuak doituz.

Gertaera bat gehitzeko: Sakatu + , sartu gertaerari buruzko informazioa,

eta, ondoren, sakatu OK.

• Gertaera berrien egutegi lehenetsia ezartzeko: Zoaz hona: Ajustes > Correo, contactos, calendarios > "Calendario por omisión".

 Alerta-ordu lehenetsiak ezartzeko urtebetetze eta gertaeretarako: Zoaz hona: Ajustes > Correo, contactos, calendarios > Alertas por omisión.

Ekintzak bilatzeko: Sakatu Lista, eta, gero, idatzi testua bilaketa-eremuan. Bistaratzen ari zaren egutegietako izenburuetan, gonbidatuetan, kokapenetan eta oharretan bilatzen du. Bestela, bilatu egutegietako gertaerak pantaila nagusitik. Ikus **"Nola egin bilaketak"**, 38. orrialdean

Egutegiaren alerta-tonua doitzeko: Zoaz hona: Ajustes > Sonidos > Alertas calendario.

Asteka bistaratzeko: Biratu iPhonea posizio horizontalera.

Gertaerak inportatzeko egutegi-fitxategi batetik: Mailen .ics egutegifitxategi bat jasotzen baduzu, ireki mezua, eta sakatu egutegi-fitxategia haren gertaera guztiak inportatzeko. Bestela, inportatu Interneten argitaratutako .ics fitxategi bat fitxategirako esteka bat sakatuta. .ics fitxategi batzuk egutegi batera harpidetuko zaituzte zure egutegiari gertaerak gehitu ordez. Ikus ***Nola egin lan egutegi batekin baino gehiagorekin***, 96. orrialdean.

iCloud, Microsoft Exe edo CalDAV kontu bateragarri bat badaukazu, zure enpresako beste kide batzuen bileretarako gonbitak jasotzeko eta haiei erantzuteko aukera izango duzu.

Beste pertsona batzuk gertaera batera gonbidatzeko: Sakatu gertaera bat, sakatu Editar, eta, gero, sakatu Invitados, Contactos ataletik nahi dituzun pertsonak aukeratzeko.

Gonbidapen bati erantzuteko: Sakatu egutegiko gonbidapen bat. Bestela, sakatu c gertaeraren pantaila bistaratu dadin, eta, gero, sakatu gonbidapen bat. Antolatzaileari eta beste gonbidatu batzuei buruzko informazioa ikusi ahal izango duzu. Iruzkinen bat gehitzen baduzu (baliteke aukera hori eskuragarri ez egotea egutegi-mota guztietan), antolatzaileak ikusiko du, baina ez gainerako gonbidatuek.

Gertaera bat onartzeko ordua erreserbatu gabe: Sakatu gertaera, eta, gero, sakatu Disponibilidad, eta hautatu "flibre". Gertaerak zure egutegian jarraituko du, baina ez da hartutzat bistaratuko gonbidapenak bidaltzen dizkioten gainerako pertsonentzat.

Nola egin lan egutegi batekin baino gehiagorekin

Egutegi zehatzak banaka ikus ditzakezu; edo, bestela, hainbat egutegi

aldi berean ikus ditzakezu. iCloud, Google, Yahoo! eta iCalendar egutegietara eta Facebookeko urtebetetze eta gertaeretara harpidetu zaitezke.

iCloud, Google, Exchange eta Yahoo! Egutegiak aktibatzeko:]oan Ajustes > "Correo, contactos, calendarios" aukerara, sakatu kontu bat, eta, ondoren, aktibatu Calendario.

CalDAV kontu bat gehitzeko:]oan Ajustes > "Correo, contactos, calendarios" aukerara, sakatu "Añadir cuenta", eta, ondoren, sakatu Otras. Calendarios atalean, sakatu "Añadir cuenta CalDAV".

Facebookeko gertaerak ikusteko: Zoaz Ajustes > Facebook aukerara, eta hasi saioa zure Facebookeko kontuan. Gero, aktibatu egutegirako sarbidea.

Bistaratuko diren egutegiak aukeratzeko: Sakatu Calendarios; ondoren, sakatu ikusi nahi dituzun egutegiak, aukeratzeko. Aukeratutako egutegi guztietako gertaerak ikuspegi bakarrean bistaratuko dira.

Urtebetetze-egutegia ikusteko: Sakatu Calendarios, eta, gero, sakatu Cumpleaños, zure kontaktuen urtebetetzeak gehitzeko zure gertaerei. Facebookeko kontu bat sortu baduzu, Facebookeko zure lagunen urtebetetzeak rer gehitu ditzakezu.

iCalendar (ics) formatua erabiltzen duten egutegietara harpidetu zaitezke. Egutegietan oinarritutako zerbitzu askok, hala nola iCloud, Yahoo!, Google eta Mac OS X-ren Calendario aplikazioak, egutegietara harpidetzeko aukera ematen dute. Egutegi batera harpidetzen bazara, irakurtzeko baimena soilik izango duzu. Harpidetu zaren egutegietako ekintzak irakur ditzakezu iPhonean, baina ezin dituzu editatu, eta ezin duzu ekintza berririk sortu.

Egutegi batera harpidetzeko: Zoaz hona: Ajustes > "Correo, contactos, calendarios", eta sakatu "Añadir cuenta". Sakatu Ottas, eta, gero, sakatu "Añadir calendario suscrito". Idatzi harpidetu nahi duzun zerbitzariaren eta .ics zerbitzariaren izena. Bestela, harpidetu Interneten argitaratutako iCalendar (.ics) egutegi batera, egutegi horretarako esteka bat sakatuta.

Nola partekatu iCloudeko egutegiak

iCloudeko egutegi bat partekatu dezakezu iCloudeko beste erabiltzaile batzuekin. Egutegi bat partekatzen baduzu, gainerako erabiltzaileek ikusi egin ahal izango dute, eta gertaerak gehitzen edo aldatzen ere utzi ahal izango diezu. Bestela, irakurtzeko baimena soilik duen bertsio bat parteka dezakezu, edozeinek ikusteko modukoa.

iCloudeko egutegi bat sortzeko: Sakatu Calendarios, sakatu Editar, eta, gero, gehitu "Añadir calendario".

iCloudeko egutegi bat partekatzeko: Sakatu Calendarios, sakatu Editar, eta, gero, sakatu partekatu nahi duzun iCloudeko egutegia. Sakatu "Añadir persona", eta aukeratu Contactos ataleko pertsona bat. Pertsona horrek gonbidapen bat jasoko du posta elektroniko bidez egutegira gehitzeko, baina Appleko ID bat eta iCloud kontu bat beharko ditu gonbidapena onartzeko.

Egutegi partekatuen jakinarazpenak desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > "Correo, contactos, calendarios", eta desaktibatu "Alertas de compartir".

Pertsona baten egutegi partekatu baterako sarbidea aldatzeko: Sakatu Calendarios, sakatu Editar, eta, gero, sakatu egutegia partekatu nahi duzun pertsona. Pertsona horri egutegia editatzeko gaitasuna ken diezaiokezu, egutegira gehitzeko gonbidapena birbidali edo harekin egutegia partekatzeari utzi.

Irakurtzeko baimena soilik duen egutegi bat edonorekin partekatzeko: Sakatu Calendarios, sakatu Editar, eta, gero, sakatu partekatu nahi duzun iCloudeko egutegia. Aktibatu "Calendario público", eta, gero, sakatu "Compartir enlace" egutegiaren URLa kopiatzeko edo bidaltzeko. Edonork erabili ahal izango du URLa aplikazio bateragarri bat erabiliz (adibidez, iOS edo OS Xrako Calendario) zure egutegira harpidetzeko.

Egutegiaren doikuntzak

Calendario aplikazioari eta haren egutegi-kontuei eragiten dieten hainbat doikuntza daude Ajustes > "Correo, contactos, calendarios" atalean. Hauek, besteak beste:

• iraganeko gertaeren sinkronizazioa (etorkizunekoak beti sinkronizatzen dira);

alerta-tonua erreproduzitzea bilera-gonbidapen berrietarako;

 ordu-eremu batekin baino gehiagorekin bateragarria izatea, datak eta orduak bistaratzeko ordu-eremu desberdinak erabiliz.

11 Argazkiak



Nola bistaratu argazkiak eta bideoak

Fotos aplikazioarekin, iPhoneko argazkiak eta bideoak ikus ditzakezu hauetan:

 Carrete albuma: iPhonearekin egindako argazkiak eta bideoak edo mezu elektroniko batetik, testu-mezu batetik, webgune batetik edo pantaila-irudi batetik eskuratuta gordetakoak.

 "Fotos en Streaming" ataleko albumak: "Mis fotos en streaming" ataleko argazkiak (ikus "Streamingeko argazkiak", 75. orrialdean).

 Fototeka eta zure ordenagailutik sinkronizatutako beste album batzuk (ikus iTunesekin sinkronizatzea, 21. orrialdean).



Diapositiba-erakustaldi bat erreproduzitzeko.

Argazkia partekatzeko, kontaktu bati jartzeko, pantaila-atzealde gisa erabiltzeko edo inprimatzeko.

Argazkiak eta bideoak bistaratzeko: Sakatu album bat, eta ondoren, sakatu miniatura bat.

Hurrengo edo aurreko argazkia edo bideoa bistaratzeko: Mugitu

ezkerrera edo eskuinera.

- Irudia gerturatzeko edo urrutiratzeko: Sakatu bi aldiz edo egin atximur.
- Argazki bat mugitzeko: Arrastatu.

 Bideo bat erreproduzitzeko: Sakatu pantailaren erdian dagoen aukera. Pantaila osoko bistaratzetik pantailari doitutako bistaratzera aldatzeko, sakatu pantaila bi aldiz.

iPhoto 8.0 (iLife '09) edo berriago batekin edo Aperture v3.0.2 edo berriago batekin sinkronizatzen dituzun albumak gertaeren edo aurpegien arabera bistaratzeko aukera duzu. Lekuen arabera bistaratu ditzakezu argazkiak, etiketatze geografikoko funtzioarekin bateragarria den kamera batekin egin badituzu.

Diapositiba-erakustaldi bat ikusteko: Sakatu miniatura bat, eta ondoren, sakatu ▶. Hautatu aukerak, eta, gero, sakatu "Iniciar pase". Erakustaldia geldiarazteko, sakatu pantaila. Beste aukera batzuk doitzeko, zoaz hona: Ajustes > Fotos y câmara.

Diapositiba- edo bideo-emanaldi bat telebista batera denbora errealean transmititzeko: Ikus "AirPlay", 42. orrialdean.

Nola antolatu argazkiak eta bideoak

Album bat sortzeko: Sakatu Álbumes, sakatu +, sartu izen bat, eta, gero, sakatu Guardar. Aukeratu zer item gehitu nahi dizkiozun albumari, eta, gero, sakatu OK.

Oharra. iPhonean sortutako albumak ez dira sinkronizatuko ordenagailuarekin.

Album bati itemak gehitzeko: Miniaturak bistaratzen dituzunean, sakatu Editar, aukeratu itemak, eta, gero, sakatu "Añadir a".

Albumak kudeatzeko: Sakatu Editar.

 Album bati izena aldatzeko: Aukeratu album bat, eta, gero, idatzi izen berri bat.

iPhonearekin sortutako albumei izena aldatzeko edo ezabatzeko aukera soilik dago.

Streamingeko argazkiak

iClouden (ikus **"iCloud"**, 20. orrialdean) **"Fotos en streaming"** funtzioarekin, iPhonearekin ateratzen dituzun argazkiak automatikoki bistaratuko dira **"fotos en streaming"** funtzioarekin konfiguratutako gainerako zure gailuetan, baita zure Mac edo PCan ere. **"Fotos en streaming"** funtzioarekin, argazkiak parteka ditzakezu lagun eta senitartekoekin, zuzenean zure gailuekin edo Interneten.

"Fotos en Streaming"i buruz

"Fotos en streaming" funtzioa aktibatuta dagoenean, iPhonearekin ateratzen dituzun argazkiak (bai eta Carrete atalari gehitutako beste edozein argazki ere) bistaratzen dira streamingeko argazki-sekuentzian Cámara aplikaziorik irten eta iPhonea WiFi bidez Internetera konektatu ondoren. Argazki horiek iPhonearen "Mis fotos en streaming" albumean eta "Fotos en streaming" konfiguratua duten zure beste gailuetan bistaratuko dira.

 "Fotos en streaming" aktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > iCloud > Fotos en streaming.

Zure beste iCloud gailuetatik streamingeko argazki-sekuentziara gehitutako argazkiak ere bistaratuko dira **"Mis fotos en streaming"** funtzioan. iPhoneak eta gainerako iOS gailuek zure argazki berrienetako mila ere bistaratu ditzakete **"Mis fotos en streaming"** funtzioan. Zure ordenagailuek beti izan ditzakete **"Fotos en streaming"** funtzioan. Zure argazki guztiak.

Oharra. "Fotos en streaming" eko argazkiek ez dute lekurik hartzen iCloud biltegiratzean.

Streamingeko argazki-sekuentzien edukia kudeatzeko: Streamingeko argazki-album batean, sakatu Editar.

• iPhonean argazkiak gordetzeko: Aukeratu argazkiak, eta sakatu Guardar.

• Carrete albumean argazkiak partekatzeko, inprimatzeko, kopiatzeko edo gordetzeko: Aukeratu argazkiak, eta sakatu Compartir.

Argazkiak ezabatzeko: Aukeratu argazkiak, eta sakatu Eliminar.

Ohara. Ezabatutako argazkiak zure gailuetako streamingeko sekuentzietatik ezabatu arren, sortu ziren gailuko Carrete albumean geratuko dira jatorrizkoak. Streamingeko argazki-sekuentzia batetik gailu edo ordenagailu batean gordetako argazkiak ere ez dira ezabatuko. "Fotos en streaming" funtzioko argazkiak ezabatzeko, iOS 5.1 edo berriago bat instalatua izan behar duzu iPhonean eta zure beste iOS gailuetan. Ikus support.apple.com/kb/lT4486?viewlocale=es_ES.

Streamingeko argazki-sekuentzia partekatuak

Streamingeko argazki-sekuentzia partekatuekin, zuk aukeratzen dituzunekin soliik partekatuko dituzu zenbait argazki. iOS 6 eta OS X Mountain Lion duten erabiltzaileak beren streamingeko argazki-sekuentzia partekatuan harpidetu daitezke, gehitutako azken argazkiak ikusi, **"Me gusta"** marka jarri nahi duten argazkiei, eta iradokizunak egin (beren gailuetatik zuzenean). Bestela, webgune publiko bat sor daiteke streamingeko argazki-sekuentzia partekatu baterako, eta argazkiak beste batzuekin partekatu Internet bidez.

Oharra. Streamingeko argazki-sekuentzia partekatuek WiFi bidez eta sare mugikorren bidez funtzionatzen dute. Baliteke telefonia mugikorreko datu-tarifak aplikatzea.

Streamingeko argazki-sekuentzia partekatuak aktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > iCloud > Fotos en streaming.

Streamingeko argazki-sekuentzia partekatu bat sortzeko: Sakatu "Fotos en streaming", eta, gero, sakatu +. iOS 6 edo OS X Mountain Lion duten beste erabiltzaile batzuk argazki-sekuentzia partekatura harpidetzera gonbidatzeko, sartu haien helbide elektronikoak. Streamingeko argazkisekuentzia icloud.com-en argitaratzeko, aktibatu "Sito web público". Jarri izen bat albumari, eta, gero, sakatu Crear.

Streamingeko argazki-sekuentzia partekatu bati argazkiak gehitzeko: Aukeratu argazki bat, sakatu 📽, sakatu "Fotos en streaming", eta aukeratu streamingeko argazki-sekuentzia partekatua. Album bateko zenbait argazki gehitzeko, sakatu Editar, aukeratu argazkiak, eta, gero, sakatu Compartir.

Streamingeko argazki-sekuentzia partekatu batetik argazkiak ezabatzeko: Sakatu streamingeko argazki-sekuentzia partekatua, sakatu **Editar**, aukeratu argazkiak, eta, gero, sakatu **Eliminar**.

Streamingeko argazki-sekuentzia partekatu bat editatzeko: Sakatu **"Fotos** en streaming", eta, gero, sakatu **(2)**. Aukera hauek dituzu:

- argazkiari beste izen bat jarri;
- harpidedunak gehitu edo ezabatu eta gonbidapen bat birbidali;
- webgune publiko bat sortu eta esteka partekatu;
- streamingeko argazki-sekuentzia ezabatu.

Nola partekatu argazkiak eta bideoak

Argazkiak partekatzeko posta elektronikoa, testu-mezuak (MMS edo iMessage), streamingeko argazki-sekuentziak, Twitterreko mezuak eta

Facebookeko argitalpenak erabil ditzakezu. Bideoak partekatzeko, berriz, posta elektronikoa, testu-mezuak (MMS edo iMessage) eta YouTube erabil ditzakezu.

Argazki bat edo bideo bat partekatzeko edo kopiatzeko: Aukeratu argazki bat edo bideo bat, eta, gero, sakatu 😭 . 😭 ez bada ikusten, sakatu pantaila, kontrolak bistaratzeko.

Fitxategi erantsien tamaina-muga zure zerbitzu-hornitzaileak zehazten du. iPhoneak argazki- edo bideo-fitxategiak konprimi ditzake beharrezkoa bada.

Argazkiak eta bideoak kopiatu eta mezu elektroniko batean edo testumezu batean (MMS edo iMessage) itsasteko aukera ere baduzu.

Argazki eta bideo ugari partekatzeko edo kopiatzeko: Miniaturako irudiak bistaratu bitartean, sakatu Editar, aukeratu argazkiak edo bideoak, eta, gero, sakatu Compartir.

Hauetako argazki edo bideo bat gordetzeko:

 Mezu elektroniko bat: Sakatu deskargatzeko (beharrezkoa bada), sakatu argazkia edo luze sakatu bideoa, eta, gero, sakatu Guardar.

• estu-mezu bat: Sakatu itema elkarrizketan, sakatu , eta, gero, sakatu 🗃 "Guardar en Carrete".

 Webgune bat (argazkiak bakarrik): Luze sakatu argazkia, eta, gero, sakatu "Guardar imagen".

Jasotzen dituzun argazki eta bideoak nahiz webgune batetik gordetzen dituzunak Carrete albumean gordeko dira.

Argazkiak inprimatzea

AirPrintekin bateragarriak diren inprimagailuetan inprimatzeko:

Argazki bakar bat inprimatzeko: Sakatu is, eta gero, sakatu imprimir.

 Argazki ugari inprimatzeko: Argazki-album bat bistaratu bitartean, sakatu Editar, aukeratu argazkiak, sakatu Compartir, eta, gero, sakatu Imprimir.

Ikus "AirPrint bidez inprimatzea", 43. orrialdean.

12 Kamera



Ikuspegi orokorra

Kamera azkar irekitzeko iPhonea blokeatuta dagoena, eraman 🙍 gora.



iPhonearekin, argazki finkoak ateratzeko eta bideoak grabatzeko aukera duzu. Atzealdeko iSight kameraz gain, FaceTime kamera bat du aurrealdean, FaceTimeko deietarako eta norberaren argazkiak ateratzeko. Atzealdeko LED flash batek argi gehiago emango dizu behar duzunean.



Pantailan, laukizuzen batek kamerak fokatzen duen irudiaren eremua erakusten du, labur; esposizioa laukizuzen horretan doitzen da. iPhone 4S edo modelo berriagoak erabiliz pertsonei argazkiak ateratzean, iPhoneak aurpegiak detektatzeko funtzioa erabiltzen du automatikoki fokuratzeko eta esposizioa doitzeko (gehienez ere 10 aurpegi). Laukizuzen bat bistaratzen da detektatutako aurpegi bakoitzeko.

Argazki bat ateratzeko: Sakatu 🖸 edo bolumen-botoia.

 Irudia gerturatzeko edo urrutiratzeko: Egin atximur pantailari (iSight kamerarekin soilik).

Argazki panoramiko bat ateratzeko (iPhone 4S edo modelo berriago bat): Sakatu Opciones, eta, ondoren, sakatu "Foto panorámica". Apuntatu iPhonearekin hasi nahi duzun lekua, eta sakatu [®]. Eraman pixkanaka telefonoa geziaren norabidean, iPhoneari irmo eutsiz. Saiatu gezia lerro horizontalaren gainean izaten. Amaitzean, sakatu **Sali**r.

Argazki panoramikoaren norabidea aldatzeko: Sakatu gezia.

Bideo bat grabatzeko: Aldatu a vukerara eta sakatu e do bolumenbotoietako edozein grabaketari ekiteko edo geldiarazteko.

Argazki finko bat ateratzeko grabatu bitartean: Sakatu

 Argazki finko bat ateratzeko grabatu bitartean:

Argazki bat egitean edo bideo bat grabatzen hastean, iPhoneak itxigailuaren soinua igortzen du. Haren bolumena bolumen-botoien bidez kontrola dezakezu, edo isilarazi egin dezakezu tonua/modu isila etengailua erabiliz.

Oharra. Herrialde batzuetan, iPhonea isilarazita ere itxigailuak soinua egiten du.

Kokapen-funtzioa aktibatuta badago, argazki eta bideoak kokapendatuekin etiketatuko dira, eta argazkiak partekatzeko aukera ematen duten beste aplikazio eta webgune batzuetan erabili ahal izango dira. Ikus "**Pribatutasuna**", 191. orrialdean.

Fokuratzea eta esposizioa doitzeko:

 Hurrengo argazkirako fokuratzea eta esposizioa doitzeko: Sakatu pantailan bistaratzen den objektua. Aurpegiak detektatzeko funtzioa desaktibatu egiten da aldi baterako.

 Fokuratzea eta esposizioa blokeatzeko: Luze sakatu pantaila, laukizuzena mugitu arte. Pantailaren beheko aldean "Bloqueo de AE/AF" bistaratzen da, eta fokuratzea eta esposizioa blokeatuta geratzen dira berriro pantaila sakatu arte.

Pantaila-irudi bat egiteko: Sakatu eta askatu egoneanjaktibatuta botoia eta hasierako botoia 🖸. Pantaila-irudia Carrete albumera gehituko da.

HDR argazkiak

HDR argazkiek (iPhone 4 edo modelo berriagoak) hiru esposizio nahasten dituzte argazki bakarrean, eta "maila dinamiko handia" dute. Ahalik eta emaitza onena lortzeko, iPhoneak eta argazkiaren helburuak finko egon behar dute.

HDR aktibatzeko: Sakatu Opcion, eta, ondoren, doitu HDR. HDR funtzioa aktibatuta dagoenean, flasha desaktibatu egiten da.

Argazki normala eta HDR bertsioa gordetzeko: Zoaz hona: Ajustes > Fotos y cámara. Bi bertsioak gordetzen badituzu, argazkien goialdeko eskuineko ertzean ➡ HDR bistaratuko da Carrete albumean (kontrolak ikusgai badaude).

Nola ikusi, partekatu eta inprimatu

Cāmara aukerarekin hartutako argazkiak eta grabatutako bideoak Carrete albumean gordetzen dira. **"Fotos en streaming"** aktibatu baduzu, argazki berriak ere "Fotos en streaming" albumean bistaratuko dira, eta zure gainerako iOS gailu eta ordenagailuetara transferituko dira. Ikus **"Streamingeko argazkiak"** atala, 101. orrialdean.

Carrete albuma ikusteko: Zoaz ezkerrera, edo sakatu miniaturako irudia. Fotos aplikazioan ere ikus dezakezu Carrete albuma.

- Argazki bat edo bideo bat ikusi bitartean kontrolak bistaratzeko edo ezkutatzeko: Sakatu pantaila.
- Argazki bat edo bideo bat partekatzeko: Sakatu 🖻 . Argazki edo bideo bat baino gehiago bidaltzeko, sakatu 🖻 miniaturak ikusi bitartean, aukeratu itemak, eta, gero, sakatu Compartir.

Argazkiak eta bideoak zure ordenagailuan kargatzeko: Konektatu iPhonea zure ordenagailura.

- Mac: Aukeratu nahi dituzun argazki eta bideoak, eta sakatu Importar o Descargar de iPhoto botoia (ordenagailuan instalatutako bestelako argazki-aplikazio bateragarriak ere erabil daitezke).
- PC: Jarraitu zure argazki-aplikazioko argibideei.

Ordenagailura kargatzean iPhoneko argazki eta bideoak ezabatzen badituzu, Carrete albumetik ezabatuta geldituko dira. iTuneseko doikuntzapanela erabil dezakezu iPhoneko Fotos aplikazioarekin argazkiak eta bideoak sinkronizatzeko (bideoak Mac batekin soilik sinkroniza daitezke). Ikus **"iTunesekin sinkronizatzea",** 21. orrialdean.

Argazkiak editatzea eta bideoak ebakitzea



Argazki bat editatzeko: Argazki bat pantaila osoan bistaratu bitartean, sakatu Editar, eta, gero, sakatu tresna bat.

 Automatikoki hobetzeko: Ukitu batzuk emanda, hobetu egiten dira argazkien iluntasuna edo argitasuna, kolore-saturazioa eta beste zenbait ezaugarri, oro har. Ukituak ezeztatu nahi badituzu, sakatu berriro tresna (aldaketak gordeta egon arren).

Begi gorriak kentzeko: Sakatu begiak banan-banan.

 Ebakitzeko: Arrastatu laukizuzenaren ertzak, arrastatu argazkia berriro kokatzeko, eta, azkenik, sakatu Recortar. Proportzio jakin batzuk ezartzeko, sakatu Proporción.



Bideo bat ebakitzeko: Bideo bat bistaratzen duzun bitartean, sakatu pantaila, kontrolak agerrarazteko. Arrastatu goialdean dagoen fotogramen bistaratzailearen bi muturretako bat, eta sakatu **Cortar**.

Garrantzitsua. "Cortar original" aukeratuz gero, moztutako fotogramak betiko kenduko dira jatorrizko bideotik. "Guardar como video nuevo" aukeratuz gero, Carrete albumean bideo-klip berri bat gordeko da, eta ez da aldatuko jatorrizko bideoa.

13 Bideoak



Erabili Videos aplikazioa filmak, telebista-saioak eta musika-bideoak ikusteko. Bideo-podcastak ikusteko, instalatu Podcasts doako aplikazioa App Store dendatik. Ikus 31. kapitulua, "Podcastak", 151. orrialdean. iPhonearen kamerarekin grabatutako bideoak ikusteko, ireki Fotos aplikazioa.

Sakatu bideo bat, erreproduzitzeko.



OHARRA. Entzumen-galera prebenitzeari buruzko informazio garrantzitsua kontsultatzeko, ikus "Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua", 153. orrialdean.

Bideoak eskuratzeko:

 iTunes Store dendan bideoak erosteko edo alokatzeko (ez dago eskuragarri leku guztietan): Ireki iTunes aplikazioa iPhonean, eta sakatu Videos. Ikus 22. kapitulua, "iTunes Store denda", 127. orrialdean.

 Ordenagailutik bideoak transferitzeko: Konektatu iPhonea eta sinkronizatu iTuneseko bideoak zure ordenagailuan. Ikus "iTunesekin sinkronizatzea", 21. orrialdean.

Bideoak transmititzeko, denbora errealean, zure ordenagailutik: Zure
ordenagailuan, iTunesen, aktibatu "Compartir en casa". Gero, iPhonean, zoaz Ajustes > Vídeos atalera, eta sartu ordenagailuan "Compartir en casa" konfiguratzeko erabilitako Appleko ID eta pasahitz bera. Gero, ireki Vídeos iPhonean, eta sakatu Compartido, bideo-zerrendaren hasieran.

Bideo bat bihurtzeko iPhonearekin bateragarria izan dadin: iTunesetik iPhonera bideo bat gehitzen saiatu eta bideoa iPhonean ezin dela erreproduzitu adierazten duen mezu bat agertzen bada, bideoa bihurtu egin dezakezu. aukeratu bideoa iTunesen liburutegian, eta aukeratu Avanzado > "Crear versión del iPod o el iPhone". Ondoren, gehitu bihurtutako bideoa iPhonean.



Bideo bat ikusteko: Sakatu bideoa, bideo-zerrendan.

doitzeko

• Bideoaren eskala doitzeko pantaila osoa har dezan edo pantailaren tamainara doitzeko: Sakatu 💽 edo 💽 . Bestela, sakatu bideoa bi aldiz eskala doitzeko kontrolak bistaratu gabe.

 Berriro hasieratik hasteko: Bideoak kapituluak baditu, arrastatu erreprodukzio-kurtsorea ezker-ezkerrera erreprodukzio-barran. Atalik ez badu, sakatu I

 Aurreko edo hurrengo atalera joateko (eskuragarri badago): Sakatu edo Iwa Bestela, sakatu erdiko botoia edo entzungailu bateragarri batzuen baliokidea bi aldiz (hurrengora joateko) edo hiru aldiz (aurrekora joateko).

• Atzera edo aurrera azkar egiteko: Luze sakatu I≪ edo ൝ .

 Audiorako beste hizkuntza bat aukeratzeko (eskuragarri badago): Sakatu, eta, gero, aukeratu hizkuntza bat Audio zerrendan.

- Gorrentzako azpitituluak bistaratzeko edo ezkutatzeko (eskuragarri badaude): Zoaz hona: Ajustes > Vídeos.
- Bideoa telebista batean ikusteko: Ikus "iPhonea telebista batera edo beste gailu batera konektatzea", 42. orrialdean.

Egonean uzteko tenporizadore bat doitzeko: Ireki Reloj aplikazioa eta sakatu Temporizador; gero, mugitu hatza ordu- eta minutu-kopurua doitzeko. Sakatu "Al finalizar", eta aukeratu "Detener reproducción". Sakatu **Ajusta**r, eta, jarraian, Iniciar, tenporizadorea martxan jartzeko. Tenporizadorea amaitzean, iPhoneak musika edo bideoa erreproduzitzeari uzten dio, irekita dauden beste aplikazio guztiak ixten ditu, eta biokeatu egiten da.

Bideo bat ezabatzeko: Zerrenda barruan, zoaz ezkerrera edo eskuinera, bideo gainean. Bideo bat iPhonetik ezabatzean, ez da ezabatzen iTuneseko liburutegitik (film alokatu bat ez bada).

Garrantzitsua. iPhonetik film alokatu bat kentzen baduzu, behin betiko ezabatuko duzu, eta ezingo da berriro ordenagailura transferitu.

Bideo bat iPhonetik ezabatzen duzunean (alokatutako filmak salbu), ez da ezabatzen ordenagailuko iTuneseko liburutegitik, eta bideoa iPhonearekin sinkronizatu ahal izango duzu berriro beste noizbait. Bideoa berriro iPhonearekin sinkronizatu nahi ez baduzu, konfiguratu iTunes bideoa sinkronizatu ez dezan. Ikus **"iTunesekin sinkronizatuea"**, 21. orrialdean.

14 Mapak



Nola bilatu kokapenak

OHARRA. Modu seguruan nabigatzeari eta gidatzean arreta galtzeari buruzko informazio garrantzitsua kontsultatzeko, ikus "Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua", 199. orrialdean.



Garrantzitsua. Mapek, argibideek, 3Dko ikuspegiek Flyoverrek eta kokapen geografikoko informazioan oinarritzen diren aplikazioek datuzerbitzua kerabiltzen dituzte. Datu-zerbitzu horiek aldatu egin daitezke, eta baliteke eremu guztietan eskuragarri ez egotea; ondorioz, mapak, argibideak, 3D, Flyover edo kokapen-datuak ez-erabilgarri egon daitezke, edo zehaztugabeak edo osagabeak izan daitezke. Konparatu iPhoneak emandako datuak zure inguruarekin, eta erabili agerian dauden seinaleak desadostasunak ebazteko. Mapen funtzio batzuk erabiltzeko, kokapen-funtzioa aktibatua izan behar da. Ikus **"Pribatutasuna"**, 191. orrialdean.

Kokapen bat bilatzeko: Sakatu bilaketa-eremua, eta, gero, idatzi helbide bat edo beste informazio bat. Adibidez:

- Intersección ("octava y mercado")
- Área ("greenwich village")
- · Punto de referencia ("guggenheim")
- Código postal
- Negocio ("cines", "restaurantes madrid", "apple españa")

Bestela, sakatu bilaketa-eremuaren azpiko zerrendako iradokizunetako bat.

Mapetan nabigatzeko:

- · Gora, behera, ezkerrera edo eskuinera mugitzeko: Arrastatu pantaila.
- Mapa biratzeko: Biratu bi hatz pantailan. Iparrorratz bat bistaratuko da goiko eskuineko ertzean, maparen orientazioa bistaratzeko.
- Iparreko orientaziora itzultzeko: Sakatu 🛞 .

Kontaktu baten, duela gutxi egindako bilaketa baten edo gogokoetara gehitutako baten kokapen-informazioa bilatzeko: Sakatu 🐵.

Kokapen bati buruzko informazioa lortzeko eta partekatzeko: Sakatu markagailua informazioa ikusteko, eta, gero, sakatu @. Eskuragarri dagoenean, Yelpeko kritikak eta argazkiak ikusi ahal izango dituzu. Argibideak eskuratu ahal izango dituzu, enpresarekin harremanetan jarri, webgunea bisitatu, enpresa zure kontaktuei gehitu, kokapena partekatu edo gogokoetara gehitu.

 Aipamenak irakurtzeko: Sakatu Reseñas. Yelpen beste funtzio batzuk erabiltzeko, sakatu aipamenen azpiko botoiak.

Argazkiak ikusteko Sakatu Fotos.

 Kokapen bat bidaltzeko posta bidez, testu-mezu bidez, Twitterreko mezu bidez edo Facebooken argitaratuz: Sakatu "Compartir ubicación".
 Twitterren edo Facebooken argitaratzeko, zure kontuetan saioa hasia izan behar duzu. Ikus "Partekatzea", 41. orrialdean.

Markagailua erabiltzeko kokapen bat markatzeko: Luze sakatu mapa, markagailua bistaratu arte.

Ikuspegi estandarra, hibridoa edo satelite bidezko aukeratzeko: Sakatu beheko eskuineko ertza. Arazo baten berri emateko: Sakatu beheko eskuineko ertza.

Nola lortu argibideak

Gidatzeko argibideak lortzeko: Sakatu ➡, sakatu ➡, idatzi hasierako eta amaierako kokapenak, eta sakatu Ruta. Bestela, aukeratu zerrendako leku bat edo ibilbide bat, eskuragarri badago. Bide bat baino gehiago bistaratzen badira, sakatu jarraitu nahi duzuna. Hasteko, sakatu Inicio.

 Argibideak pausoz pauso entzuteko (iPhone 4S edo berriagoak): Sakatu Inicio.

Mapas aplikazioak pixkanaka egiten du aurrera, eta pausoz pauso ematen dizkizu argibideak helmugara iritsi arte. Kontrolak bistaratzeko edo ezkutatzeko, sakatu **pantaila**.

iPhonea automatikoki blokeatzen bada, Mapas aplikazioa pantailan geratzen da, eta argibideak ematen jarraitzen du. Beste aplikazioren bat irekitzen baduzu ere jarraitu dezakezu argibideak pausoz pauso entzuten. Mapas aplikaziora itzultzeko, sakatu pantailaren goiko aldeko zerrenda.

- Argibideak pausoz pauso entzuteko (iPhone 4 edo berriagoak): Sakatu Inicio, eta zoaz ezkerrera hurrengo argibidea ikusteko.
- Bidearen ikuspegi orokorrera itzultzeko: Sakatu "Visión general".
- Argibideak zerrenda gisa ikusteko: Sakatu =, "Visión general" pantailan.
- Pausoz pauso argibideak ematea geldiarazteko: Sakatu Final.

Gidatzeko argibide azkarrak eskuratzeko uneko kokapenetik: Sakatu
a , helburuko zerrendan, eta sakatu "Ruta hasta aqui".

Oinezko argibideak eskuratzeko: Sakatu r, sakatu ネ, idatzi hasierako eta amaierako kokapenak, eta sakatu Ruta. Bestela, aukeratu zerrendako leku bat edo ibilbide bat, eskuragarri badago. Sakatu Inicio, eta zoaz ezkerrera hurrengo argibidea ikusteko.

Garraio publikoko argibideak eskuratzeko: Sakatu ➡, sakatu ➡, idatzi hasierako eta amaierako kokapenak, eta sakatu Ruta. Bestela, aukeratu zerrendako leku bat edo ibilbide bat, eskuragarri badago. Deskargatu erabili nahi dituzun garraio-zerbitzuen ibilbideen aplikazioak, eta ireki.

Zirkulazioaren egoera bistaratzeko: Sakatu pantailaren beheko eskuineko ertza, eta sakatu "Mostrar tráfico". Puntu laranjek zirkulazio mantsoa adierazten dute, eta, gorriek, berriz, auto-ilarak. Gorabehera-txosten bat bistaratzeko, sakatu markagailu bat.

3D eta Flyover

iPhone 4S modeloan eta berriagoetan, erabili 3D (ikuspegi estandarra) edo Flyover (ikuspegi hibridoa edo satelite bidezkoa) munduko hiri askotako hiru dimentsioko ikuspegia izateko. Ohi bezala nabigatu ahal izango duzu, eta zooma erabili ikuspegia hurbiltzeko eta eraikinak ikusteko. Kameraren ikuspuntua doitzeko aukera ere baduzu.



Transamerica Pyramid Building es una marca de servicio registrada de Transamerica Corporation.

3D edo Flyover erabiltzeko: Hurbildu zooma 3Draino edo A aktibatu arte, eta sakatu botoia. Bestela, arrastatu bi hatz gora. 3D eta Flyoverren batetik bestera aldatzeko aukera duzu eskuineko beheko ertza sakatuz eta ikuspegia aldatuz.

Kameraren ikuspuntua doitzeko: Arrastatu bi hatz gorantz edo beherantz.

Mapen doikuntzak

Mapen aukerak doitzeko: Zoaz hona: Ajustes > Mapas. Doikuntzetan hauek sartzen dira:

- Nabigazio-ahotsaren bolumena (iPhone 4S edo modelo berriagoak)
- Miliak edo kilometroak erabiltzea distantziak kalkulatzeko
- Etiketen hizkuntza eta tamaina

15 Eguraldia



Munduko hiri batean edo gehiagotan zer tenperatura dagoen eta hurrengo sei egunetarako zer aurreikuspen dagoen jakin dezakezu, eta ordu oro pronostikoak eskuratu hurrengo 12 orduetarako. Horrez gain, **Tiempo** aplikazioak kokapena erabiltzen du uneko kokapeneko aurreikuspena eskuratzeko.



Eguraldi-panela urdin argia bada, egun-argia da hiri horretan. More iluna bada, gaua da.

Hiri-zerrenda kudeatzeko: Sakatu ♥, eta, gero, gehitu hiri bat edo egin beste aldaketa batzuk. Amaitutakoan, sakatu OK.

- Hiri bat gehitzeko: Sakatu +. Sartu hiri bat edo posta-kode bat, eta sakatu Buscar.
- Hirien hurrenkera berrantolatzeko: Arrastatu 🚍 gora edo behera
- Hiri bat ezabatzeko: Sakatu 😑 , eta ondoren, sakatu Eliminar.
- Aukeratu Fahrenheit edo Celsius: Sakatu °F edo °C.

Beste hiri bateko eguraldia ikusteko: Mugitu ezkerrera edo eskuinera. Ezker-ezkerreko pantailak tokiko eguraldia bistaratzen du.

Ordu oro aurreikuspena ikusteko:

- iPhone 5: Mugitu ordu oroko pantaila ezkerrera edo eskuinera.
- iPhone 4S edo modelo zaharragoak: Sakatu "Cada hora".

Tokiko eguraldia aktibatzeko edo desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Privacidad > Localización. Ikus "Pribatutasuna", 146. orrialdean.

Yahoo.com-en hiri bati buruzko informazioa kontsultatzeko: Sakatu 👀

iCloud erabiltzeko zure hiri-zerrenda beste iOS gailu batzuetara transferitzeko push teknologia erabiliz: Zoaz hona: Ajustes > iCloud > "Documentos y datos", eta, gero, aktibatu "Documentos y datos" (lehenespenez aktibatuta dago). Ikus "iCloud", 20. orrialdean.

16 Passbook



Passbook erabiliz, zure txartel guztiak antola ditzakezu (ontziratze-txartelak edo zinemarako sarrerak, adibidez) leku bakarrean.



Gorde Passbooken zure opari-txartelak, sarrerak eta gainerako txartelak. Txartel bat ikusi edo erabili behar duzunean, egin ezazu Passbooken edo blokeo-pantailan.

Passbookera txartel bat gehitzeko: Sakatu "Añadir a Passbook"

hornitzaile baten webgunean edo berrespen-mezu batean. Passbookekin bateragarria den aplikazio batetik ere gehitu dezakezu txartel bat.

Zure iCloud kontuan saioa hasia izan behar duzu Passbookera txartelak gehitzeko.

Txartel bat erabiltzeko: Aukeratu txartela, eta, gero, apuntatu barrakodearekin irakurle edo eskanerrera. Localización aukera aktibatua badago eta hornitzaileak onartzen badu, txartel bat bistaratuko da behar duzunean blokeo-pantailan. Adibidez, aireportura iristean, hotelean edo zineman.



Sakatu hau xehetasunak ikusteko.

Informazio gehiago ikusteko: Sakatu 🙆 .

Txartel bat ezabatzeko: Sakatu 🛛 , eta ondoren, sakatu 🛍 .

Blokeo-pantailan txartelak bistaratu ez daitezen: Aukeratu Ajustes > General > "Bloqueo con código", sakatu "Activar código", eta, gero, sartu "Permitir acceso mientras está bloqueado" aukeran, eta desaktibatu Passbook.

Txartel bat beste iPhone edo iPod touch batera transferitzeko: Joan Ajustes > iCloud aukerara, eta aktibatu Passbook.

17 Oharrak



Idatzi oharrak iPhonean, eta iCloudek eskuragarri jarriko ditu zure beste iOS gailuetan eta Mac ordenagailuetan. Beste kontu batzuetan (Gmail edo Yahoo, adibidez) oharrak irakurtzeko eta sortzeko aukera ere baduzu.



Aurreko edo hurrengo oharra ikusteko

iCloud erabiltzeko zure oharrak eguneratuak izateko zure iOS gailuetan eta Mac ordenagailuetan:

• iClouderako me.com edo mac.com helbide elektroniko bat erabiltzen baduzu: Joan Ajustes > iCloud aukerara, eta aktibatu Notas.

Gmaileko kontu bat edo beste IMAP kontu bat erabiltzen baduzu iClouderako: Zoaz hona: Ajustes > "Correo, contactos, calendarios", eta aktibatu dagokion kontuaren Notas aukera.

Ohar berrien kontu lehenetsia aukeratzeko: Zoaz hona: Ajustes > Notas.

Kontu jakin batean ohar bat sortzeko: Sakatu Cuentas, eta aukeratu kontua. Gero, sakatu + oharra sortzeko. Cuentas botoia ikusten ez baduzu, sakatu lehenik Notas botoia. Kontu jakin bateko oharrak soilik ikusteko: Sakatu Cuentas, eta aukeratu kontua. Cuentas botoia ikusten ez baduzu, sakatu lehenik Notas.

Ohar-zerrenda bistaratu bitartean ohar bat ezabatzeko: Zerrenda barruan, zoaz ezkerrera edo eskuinera, oharrean bertan.

Oharrak bilatzeko: Ohar-zerrenda bistaratu bitartean, zoaz zerrendaren goiko aldera bilaketa-eremua ikusteko. Sakatu, eta idatzi bilatu nahi duzuna. Bestela, bilatu oharrak pantaila nagusitik. Ikus "Nola egin bilaketak", 38. orrialdean.

Ohar bat inprimatzeko edo posta elektronikoz bidaltzeko: Oharra irakurri bitartean, sakatu ☎. Oharra posta elektroniko bidez bidaltzeko, iPhoneak posta elektronikoko kontu bat konfiguratua izan behar du. Ikus "Posta eta beste kontu batzuk konfiguratzea", 18. orrialdean.

Letra-mota aldatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Notas.

18 Gogorarazpenak



Recordatorios aplikazioarekin, egin behar duzun guztia kontrola dezakezu.

Bistaratze-zerrendak



Gogorarazpenen xehetasunak ikusteko: Sakatu gogorarazpen bat. Aukera hauek dituzu:

- aldatu edo ezabatu
- mugaegun bat konfiguratu
- lehentasun bat konfiguratu
- oharrak gehitu
- beste zerrenda batera aldatu

Gogorarazpenek ohar bat egin diezazukete leku batera iristen zarenean edo handik alde egiten duzunean.

Kokapen-alerta bat gehitzeko: Gogorarazpen bat sartzean, sakatu 🕥 , eta, gero, aktibatu **"Avisarme en un lugar"**

Beste kokapen bat erabiltzeko, sakatu bere uneko kokapena. Zerrenda honetako lekuek **Contactos** ataleko zure informazio pertsonaleko txarteleko helbideak dituzte; esate baterako, zuk gehitu dituzun etxeko eta lantokiko helbideak. Beste helbide bat erabiltzeko, sakatu **"Introducir dirección"**.

Oharra. iPhone 3GS modeloan ez daude eskuragarri kokapen-gogorarazpenak. Ezingo duzu kokapenik doitu Microsoft Exchange eta Outlook kontuen gogorarazpenetarako.

Zure gogorarazpenetan bilatzeko: Sakatu ≡ bilaketa-eremua ikusteko, edo, bestela, bilatu pantaila nagusitik. Gogorarazpenak izenaren arabera bilatzen dira. Siri ere erabil daiteke gogorarazpenak bilatzeko edo gehitzeko.

Gogorarazpenen jakinarazpenak desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Notificaciones. Informazioa eskuratzeko, ikus "Ez molestatzeko modua eta jakinarazpenak", 179. orrialdean.

Jakinarazpenen tonua doitzeko: Zoaz hona: Ajustes > Sonidos.

Beste gailu batzuetan gogorarazpenak eguneratuak izateko: Zoaz hona: Ajustes > iCloud, eta, gero, aktibatu Recordatorios. OS X Mountain Lionen gogorarazpenak eguneratuak izateko, aktibatu iCloud zure Mac-ean ere. Beste kontu-mota batzuek ere (Exchangek, esaterako) onartzen dute Recordatorios. Zoaz hona: Ajustes > "Correo, contactos, calendarios", eta aktibatu Recordatorios aukera erabili nahi dituzun kontuetan.

Kontaktu berrientzat zerrenda lehenetsi bat ezartzeko: Zoaz hona: Ajustes > "Correo, contactos, calendarios", eta, gero, Recordatorios barruan, sakatu "Lista por omisión".

19 Erlojua



Erlojuak ezabatzeko edo haien ordena aldatzeko.



Erloju bat gehitzeko.

Erlojuak ikusteko, alarma bat doitzeko, zerbait kronometratzeko edo tenporizadorea doitzeko.

Erloju bat gehitzeko: Sakatu +, eta, gero, idatzi hiri baten izena edo aukeratu zerrendako hiri bat. Ez baduzu aurkitzen bilatzen ari zaren hiria, proba egin ordu-eremu bereko beste hiri handiago batekin.

Erlojuak antolatzeko: Sakatu Editar, eta arrastatu ≡ mugitzeko edo sakatu ⊜ ezabatzeko.

Alarma bat doitzeko: Sakatu Alarma, eta ondoren, sakatu +.

Alarma bat aldatzeko: Sakatu Editar, eta sakatu > doikuntzak aldatzeko, edo 👄 ezabatzeko.

Egonean uzteko tenporizadore bat ezartzeko iPhoneari: Ezarri tenporizadore bat, sakatu "Al finalizar", eta aukeratu "Detener reproducción".

20 Burtsa



Jarraitu zure akzioen bilakaera, ikusi baloreak nola aldatzen diren, eta jaso zure inbertsioei buruzko albisteak.



yahoo.com-era joan eta informazio gehiago eskuratzeko.

Zure balore-zerrenda kudeatzeko: Sakatu (2), eta, gero, gehitu baloreak edo egin beste aldaketa batzuk. Amaitzean, sakatu Salir.

 Item bat gehitzeko: Sakatu + . Sartu sinbolo bat, enpresaren izena, eta funts edo indizearen izena; gero, sakatu Buscar.

- Itemen hurrenkera berrantolatzeko: Arrastatu **=** gora edo behera. Burtsako informazioa ikusteko:

 Ehuneko-aldaketa, prezio-aldaketa edo merkatuaren kapitalizazioa ikusteko pantaila konfiguratzeko: Sakatu pantailaren eskuinaldeko edozein balore.

 Laburpena, grafikoa edo albisteak ikusteko: Mugitu balore-zerrendaren azpiko informazioa. Sakatu albiste-titular bat artikulua Safarin ikusteko. Grafikoaren denbora-tartea aldatzeko, sakatu 1d, 1s, 1m, 3m, 6m, 1a edo 2a.

- Albiste-artikulu bat gehitzeko zure irakurketa-zerrendari: Luze sakatu albistearen titularra, eta, gero, sakatu "Añadir a la lista de lectura".
- \bullet Yahoo.com-en burtsari buruzko informazio gehiago ikusteko: SakatuS!

Kotizazioek 20 minutu edo gehiagoko atzerapena izan dezakete, informazio-zerbitzuaren arabera. Zure baloreak burtsako teletipo gisa ikusteko jakinarazpen-zentroan, ikus **"Jakinarazpenak"**, 39. orrialdean.

Grafiko bat pantaila osoan ikusteko: Biratu iPhonea horizontalean jartzeko.

Data edo ordu jakin bateko balioa ikusteko: Ukitu grafikoa hatz batez.



 Baloreak denboran zehar izan duen aldea ikusteko: Ukitu grafikoa bi hatzez.



iCloud erabiltzeko balore-zerrenda gainerako iOS gailuekin egunera-

tuta egon dadin: Zoaz hona: Ajustes > iCloud > "Documentos y datos", eta, gero, aktibatu "Documentos y datos" (lehenespenez aktibatuta dago). Ikus "iCloud", 20. orrialdean.

21 Kioskoa



Quioscok zure egunkari eta aldizkarien aplikazioak antolatzen ditu, eta ale berriak noiz dauden jakinarazten dizu.



Quioscok apal batean antolatzen ditu egunkari eta aldizkariak, haietara sartzea erraza izan dadin.

Quioscoko aplikazioak bilatzeko: Sakatu Quiosco, apala bistaratzeko, eta, gero, sakatu Store. Quioscoko aplikazio bat eskuratzen duzunean, zure apalari gehituko zaio. Aplikazioa deskargatu ondoren, ireki, haren aleak eta harpidetza-aukerak ikusteko. Harpidetzak erosketa integratuak dira, eta zure dendako kontuan fakturatzen dira.

Ale berriak automatikoki deskargatzea desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Quiosco. Aplikazio batek horretarako aukera ematen badu, Quioscok ale berriak deskargatuko ditu WiFi-ra konektatzen denean.

22 iTunes Store denda



Ikuspegi orokorra

Erabili iTunes Store iPhonera musika, telebista-saioak eta podcastak gehitzeko.



Hauetarako erabil dezakezu iTunes Store denda:

- musika, telebista-saioak, filmak, tonuak eta beste gauza asko bilatzeko, nabigatuz edo zuzenean bilatuz;
- Geniusen zuretzako gomendio pertsonalak kontsultatzeko;
- aurreko erosketak deskargatzeko;

Oharra. Interneteko konexio bat eta Appleren ID bat behar dituzu iTunes Store denda erabiltzeko.

Edukia arakatzeko: Sakatu kategorietako bat. Sakatu Géneros, zerrendak zehazteko. Item bati buruzko informazio gehiago ikusteko, sakatu.

Edukiak bilatzeko: Sakatu Buscar, eta, ondoren, sakatu bilaketa-eremua, sartu hitz bat edo gehiago, eta sakatu Buscar.

Item baten zati bat ikusteko edo entzuteko: Bilatu abesti bat edo bideo

bat, lagin bat erreproduzitzeko.

Item bat erosteko: Sakatu itemaren prezioa (edo sakatu Gratis), eta, segidan, sakatu berriro, erosteko. Itema jada erosi baduzu, "Descargar" bistaratuko da prezioaren ordez, eta ez da berriro kobratuko. Itemak deskargatu bitartean, sakatu Más, eta, gero, sakatu Descargas, deskargen aurrerapena ikusteko.

Film bat alokatzeko: Leku batzuetan, film batzuk alokatzeko aukera izaten da. 30 egun dituzu alokatutako film bat ikusten hasteko. Erreproduzitzen hasi ondoren, nahi bestetan ikusi ahal izango duzu 24 orduko epean. Epea bukatu ondoren, filma ezabatu egingo da.

Aurretik egindako erosketa bat deskargatzeko: Sakatu Más, eta, gero, sakatu Comprado. Beste gailu batzuetan egindako erosketak automatikoki deskargatzeko, aukeratu Ajustes > iTunes Store y App Store.

Txartel bat edo opari-kode bat trukatzeko: Sakatu edozein kategoria (Música, adibidez), joan amaieraraino, eta sakatu Canjear.

Kontua ikusteko edo editatzeko: Aukeratu Ajustes > "iTunes y App Store", sakatu Appleko zure IDa, eta, gero, sakatu "Ver ID de Apple". Sakatu item bat, editatzeko. Pasahitza aldatzeko, sakatu "ID de Apple" eremua.

iTunes Match aktibatzeko edo desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > iTunes Store y App Store. iTunes Match harpidetza-zerbitzu bat da, eta zure musika guztia iClouden gordetzen du, edonondik sartzeko aukera izan dezazun.

Appleko beste ID batekin saioa hasteko: Aukeratu Ajustes > "iTunes Store y App Store", sakatu zure kontuaren izena, eta, gero, sakatu Desconectarse. Aplikazio bat deskargatzen duzun hurrengo aldian, Appleko beste ID bat sartu ahal izango duzu.

Telefonia mugikorreko sarea erabiliz erosketak deskargatzeko: Aukeratu Ajustes > iTunes Store y App Store > Usar datos móviles. Erosketak deskargatu eta telefonia mugikorreko sarearen bidez iTunes Match erabiliz gero, baliteke operadoreak tarifaren bat aplikatzea.

Nola aldatu arakatze-botoiak

Pantailaren behealdeko botoiak aldatu eta berrantolatu egin ditzakezu. Adibidez, tonuak sarri deskargatzen badituzu baina ez badituzu ikusten telebista-saio asko, botoi horiek aldatu egin ditzakezu.

Arakatze-botoiak aldatzeko: Sakatu Más, sakatu Editar, eta arrastatu botoi bat pantailaren beheko aldera, ordeztu nahi duzun botoiaren gainera. Bukatzen duzunean, sakatu Salir.

23 App Store denda



Ikuspegi orokorra

Erabili App Store iPhonean aplikazioak bilatzeko, erosteko eta deskargatzeko.



Hauetarako erabil dezakezu App Store denda:

 doako edo ordainpeko aplikazio berriak bilatzeko, nabigatuz edo zuzenean bilatuz,

- eguneraketak eta lehen egindako erosketak deskargatzeko,
- opari-txartel bat edo deskarga-kode bat trukatzeko,
- lagun bati aplikazio bat gomendatzeko,
- App Storeko zure kontua kudeatzeko.

Oharra: Interneteko konexio bat eta Appleko ID bat behar dituzu App Store denda erabiltzeko.

Aplikazio bat erosteko: Sakatu aplikazioaren prezioa (edo sakatu Gratis),

eta, segidan, sakatu **Comprar**. Aplikazioa jada erosi baduzu, prezioaren ordez "Instalar" agertuko da. Ez zaizu ezer kobratuko berriz deskargatzeagatik. Aplikazio bat deskargatu bitartean, haren ikonoa bistaratzen da hasiera-pantailan, egoera-adierazle batekin.

Lehen egindako erosketa bat deskargatzeko: Sakatu Actualizar, eta, gero, sakatu Comprado. Beste gailu batzuetan egindako erosketa berriak deskargatzeko, zoaz hona: Ajustes > iTunes Store y App Store.

Eguneratutako aplikazioak deskargatzeko: Sakatu Actualizar. Sakatu aplikazio bat bertsio berriari buruzko informazioa irakurtzeko, eta gero, sakatu Actualizar hura deskargatzeko. Edo sakatu "Actualizar todas" zerrendako aplikazio guztiak deskargatzeko.

Opari-txartel bat edo deskarga-kode bat trukatzeko: Sakatu Destacados, joan amaieraraino, eta sakatu Canjear.

Aplikazio bat partekatzeko: Bilatu aplikazioa, eta, gero, sakatu 🖻, eta hautatu nola partekatu nahi duzun.

Zure kontua ikusteko eta editatzeko: Joan Ajustes > iTunes Store y App Store aukerara, sakatu Appleko zure IDa, eta, gero, sakatu "Ver ID de Apple". iTuneseko buletinetarako zure harpidetza aktiba dezakezu, eta Appleren pribatutasun-politika ikusi. Pasahitza aldatzeko, sakatu "ID de Apple" eremua.

Saioa Appleko beste ID batekin hasteko: Joan Ajustes > "iTunes Store y App Store" aukerara, sakatu zure kontuaren izena, eta, ondoren, sakatu Desconectarse. Aplikazio bat deskargatzen duzun hurrengo aldian, Appleko beste ID bat sartu ahal izango duzu.

Appleko beste ID bat sortzeko: Zoaz hona: Ajustes > iTunes Store y App Store. Gero, sakatu "Crear nuevo ID de Apple", eta bete pantailan agertzen diren jarraibideak.

Telefonia mugikorreko sarea erabiliz erosketak deskargatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Tunes Store y App Store > Usar datos móviles. Baliteke zure operadoreak tarifaren bat aplikatzea telefonia mugikorreko sarea erabiliz erosketak deskargatzeko. Quioscoko aplikazioak WiFi bidez soilik eguneratzen dira.

Aplikazioak ezabatzea

Aplikazio bat App Store dendatik ezabatzeko: Sakatu luze aplikazioaren ikonoa hasierako pantailan ikonoa mugitzen hasten den arte, eta, gero, sakatu . Engo dituzu ezabatu integratutako aplikazioak. Amaitu ondoren, sakatu hasierako botoia ...

Aplikazio bat ezabatzean, hark dituen datuak ere ezabatuko dira. App

Store dendan erositako edozein aplikazio berriro deskargatzeko aukera duzu.

Aplikazioak eta datuak ezabatzeari eta doikuntzei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus **Berrezartzea**, 189. orrian

24 Game Center



Ikuspegi orokorra

Game Center-ek aukera ematen dizu iPhone bat, iPad bat, iPod touch bat edo OS X Mountain Lion duen Mac bat duten lagunekin gogokoen dituzun jokoetara jolasteko.

OHARRA: Behin eta berriz mugimendu bera egiteak eragindako lesioak prebenitzeari buruzko informazio garrantzitsua kontsultatzeko, ikus "Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua", 199. orrialdean.



Adierazi zure egoera, aldatu zure argazkia, edo itxi saioa.

Saioa hasteko: Ireki Game Center. Pantailaren goiko aldean zure ezizena eta argazkia ikusten badituzu, dagoeneko saioa hasi duzulako da. Ikusten ez badituzu, sartu Appleko zure IDa eta pasahitza, eta, gero, sakatu Conectarse. iClouderako edo dendan erosteko erabiltzen duzun Appleko ID bera erabil dezakezu, edo "Crear nueva cuenta" sakatu, Appleko ID berri bat nahi baduzu jolasteko. Joko bat erosteko: Sakatu Juegos, eta, gero, sakatu gomendatutako joko bat edo "Buscar juegos de Game Center".

Jokatzeko: Sakatu Juegos, aukeratu joko bat, eta, ondoren, sakatu Jugar.

Jokatu ondoren **Game Center**-era itzultzeko: Sakatu hasierako botoia 🗅, eta, ondoren, sakatu **Game Center**, hasierako pantailan.

Saioa ixteko: Sakatu Yo, sakatu zure kontuaren bannerra, eta, ondoren, sakatu Desconectarse. Ez da beharrezkoa Game Center-etik irteten zaren bakoitzean saioa ixtea.

Nola jokatu lagunekin

Jokalari askoko joko batera lagunak gonbidatzeko: Sakatu Amigos, hautatu lagun bat, aukeratu joko bat, eta, azkenik, sakatu Jugar. Jokoak jokalari gehiagorekin aritzeko aukera ematen badu edo jokalari gehiago eskatzen baditu, hautatu beste jokalari batzuk, eta, gero, sakatu Siguiente. Bidali zure gonbidapena, eta, gero, itxaron beste jokalariek gonbidapena onartu arte. Denak prest daudenean, ekin partidari. Lagun bat ez badago edo zure gonbidapenari erantzuten ez badio, Automático sakatu dezakezu, jokalariak Game Center-ek aurkitzeko zure partez, edo, bestela, "Invitar amigo", beste lagunen bat gonbidatzeko.

Lagun-eskaera bat bidaltzeko: Sakatu Amigos edo Solicitudes, sakatu +, eta, ondoren, sartu lagun baten helbide elektronikoa edo ezizena Game Center-en. Zure kontaktuetan bilatzeko, sakatu 📎. Eskaera berean lagun bat baino gehiago sartzeko, sakatu Retorno helbide bakoitzaren ondoren.

Zu gainditzeko norbaiti erronka botatzeko: Sakatu zure puntuazio edo lorpenetako bat, eta, gero, sakatu "Retar a amigos".

Lagun bat zer jokotan ibiltzen den eta zer puntuazio dituen ikusteko: Sakatu Amigos, sakatu zure lagunaren izena, eta, ondoren, sakatu Juegos edo Puntos.

Lagun batek duen joko bat erosteko: Sakatu Amigos, eta, gero, sakatu zure lagunaren izena. Sakatu jokoa zure lagunaren jokoen zerrendan, eta, gero, sakatu prezioa, pantailaren goiko aldean.

Lagun baten lagunen zerrenda ikusteko: Sakatu Amigos, sakatu lagun baten izena, eta, ondoren, sakatu Amigos, haren irudiaren azpian.

Lagun bat ezabatzeko: Sakatu Amigos, sakatu izen bat, eta, ondoren, sakatu "Eliminar amigo".

Zure posta elektronikoaren pribatutasuna mantentzeko: Desaktibatu "Perfil público" Game Center-eko zure kontuko doikuntzetan. Gero, ikusi "Ajustes de Game Center".

Lagun-eskaerak edo jokalari askoko jarduera desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Restricciones, eta desaktibatu "Juegos multijugador" edo "Añadir amigos". Hautagailuak desaktibatuta badaude, sakatu lehenbizi "Activar restricciones" (goiko aldean).

Portaera iraingarri edo desegokien berri emateko: Sakatu Amigos, sakatu pertsona horren izena, eta, ondoren, sakatu "Informar del problema".

Game Centerren doikuntzak

Game Center-en doikuntza batzuk saioa hasteko erabiltzen duzun Appleko IDari lotuta daude. Beste batzuk **Ajustes del iPhone** aplikazioan daude.

Appleko zure IDa erabiltzeko Game Center-en doikuntzak aldatzeko: Hasi saioa Appleko zure IDarekin, sakatu Yo, sakatu zure kontuaren bannerra, eta, gero, hautatu "Ver cuenta".

Game Center-etik zer jakinarazpen jaso nahi duzun zehazteko: Zoaz hona: Ajustes > Notificaciones > Game Center. Game Center agertzen ez bada, aktibatu Notificaciones.

Game Center-en murrizketak aldatzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Restricciones.

25 Kontaktuak

Ikuspegi orokorra



Kontu pertsonaletako edo laneko kontuetako kontaktu-zerrendetara sartzeko eta haiek erraz editatzeko aukera ematen dizu iPhoneak.



Zure "Mis datos" konfiguratzeko: Zoaz hona: Ajustes > "Correo, Contactos, Calendarios", sakatu "Mis datos", eta hautatu zure datuak eta zuri buruzko informazioa dituen kontaktu-txartela. Sirik eta beste aplikazio batzuek "Mis datos" txartela erabiltzen dute. Sirik harreman jakin batzuen berri izatea nahi baduzu, erabili erlazionatutako pertsonen eremuak haiek zehazteko; hala, besteak beste, "Ilama a mi hermana" eta antzekoak esan ahal izango dituzu.

Kontaktuak bilatzeko: Sakatu bilaketa-eremua kontaktu-zerrendaren goiko aldean, eta sartu egin nahi duzun bilaketa. Bestela, bilatu kontaktuetan, pantaila nagusian. Ikus "Nola egin bilaketak", 29. orrialdean.

Kontaktu bat partekatzeko: Sakatu kontaktu bat, eta, gero, sakatu "Compartir contacto". Kontaktuaren datuak posta elektronikoz edo mezu bidez bidal ditzakezu.

Kontaktu bat gehitzeko: Sakatu +. Direktorio batean -hala nola Microsoft Exchangeko helbide-zerrenda orokor batean- irakurtzeko baimena soilik baduzu, ezin duzu han kontakturik gehitu.

Gogokoen zerrendari kontaktu bat gehitzeko: Hautatu kontaktu bat, joan beherantz, eta sakatu "Añadir a favoritos" botoia. "No molestar" moduak gogokoen zerrenda erabiltzen du. Kontsultatu "Ez molestatzeko modua eta jakinarazpenak", 129. orrialdean.

Telefono-zenbaki bat markatzean kontaktuetan gordetzeko: Teléfono aukeran, sakatu Teclado, sartu zenbaki bat, eta sakatu +L. Sakatu "Nuevo contacto", edo sakatu "Contacto existente", eta hautatu kontaktu bat.

Duela gutxi deitu dizun pertsona bat kontaktuetan gordetzeko: Teléfono aukeran, sakatu Recientes, eta, gero, sakatu i zenbakiaren ondoan. Gero, sakatu "Nuevo contacto", edo sakatu "Contacto existente", eta hautatu kontaktu bat.

Kontaktu bat ezabatzeko: Hautatu kontaktu bat, eta sakatu Editar. Egin beherantz, eta sakatu "Eliminar contacto".

Kontaktu bat editatzeko: Hautatu kontaktu bat, eta sakatu Editar. Aukera hauek dituzu:

- Eremu berri bat gehitzeko: Sakatu 😳, eta, gero, aukeratu edo idatzi etiketa bat eremurako.
- Eremu baten etiketa aldatzeko: Sakatu etiketa, eta aukeratu beste bat.
 Eremu berri bat gehitzeko, sakatu "Etiqueta personalizada".
- Dei-tonua edo kontaktuaren testu-mezuetarako tonua aldatzeko: Sakatu dei-tonuaren edo SMS-tonuaren eremua, eta aukeratu beste soinu bat. Kontaktuen tonu lehenetsia aldatzeko, aukeratu Ajustes > Sonidos.
- iPhonearen bibrazio-modua aldatzeko deietarako edo kontaktuen mezuetarako: Sakatu dei-tonuaren edo SMS-tonuaren bibrazio-eremua, eta aukeratu bibrazio-sekuentzia bat. Bibrazio-eremua ikusten ez baduzu, sakatu Editar, eta gehitu. Bibrazio-sekuentzia pertsonalizatuak sortzeari buruzko informazioa eskuratzeko, ikus "Soinuak", 190. orrialdean.
- Kontaktuari argazki bat esleitzeko: Sakatu "Añadir foto". Kamerarekin argazki bat atera edo lehendik daukazun argazki bat erabil dezakezu.
- Kontaktu-informazioa eguneratzeko Twitter bidez: Zoaz hona: Ajustes
 Twitter Actualizar contactos. Helbide elektronikoak erabiliz lotzen dira kontaktuak. Zuk jarraitzen dituzun lagunen kasuan, kontaktu-txarte a eguneratu egingo da, Twitterreko erabiltzaile-izena eta argazkia jarrita.
- Kontaktu-informazioa eguneratzeko Facebook bidez: Zoaz hona: Ajustes > Facebook > Actualizar contactos. Helbide elektronikoak erabiliz lotzen dira kontaktuak. Zure lagun-zerrendako kontaktuak bat datozenean,

kontaktu-txartela eguneratu egingo da, Facebookeko erabiltzaile-izena eta argazkia jarrita.

 Telefono-zenbaki batean etenaldi bat sartzeko: Sakatu ese, eta ondoren, sakatu Pausa edo Esperar. Etenaldi bakoitzak bi segundo irauten du. Itxaronaldi bakoitzak gelditu egiten du markaketa, berriro Marcar sakatu arte. Erabili aukera horiek luzapen baten edo sarbide-kode baten markaketa automatizatzeko, adibidez.

Nola gehitu kontaktuak

iPhonean kontaktuak gehitzeaz gainera, aukera hauek dituzu:

 Zure iCloudeko kontaktuak erabiltzeko: Zoaz hona: Ajustes > iCloud, eta, gero, aktibatu Contactos.

 Zure Facebookeko lagunak inportatzeko: Aukeratu Ajustes > Facebook, eta aktibatu Contactos, "Permitir que estas aplicaciones usen su cuenta" zerrendan. Hala, Facebookeko talde bat sortuko da Contactos atalean.

 Microsoft Exchangeko helbide-zerrenda global batera sartzeko: Aukeratu Ajustes > "Correo, contactos, calendarios", sakatu zure Exchangeko kontua, eta, ondoren, aktibatu Contactos.

 LDAP edo CardDAV kontu bat konfiguratzeko enpresa edo erakunde akademikoen zerrendetara sartzeko: Zoaz hona: Ajustes > Correo, contactos, calendarios > "Añadir cuenta > Otras. Gero, sakatu "Añadir cuenta LDAP" edo "Añadir cuenta CardDAV", eta idatzi kontuaren informazioa.

 Ordenagailuko, Yahoo!-ko edo Googleko kontaktuak sinkronizatzeko: ITunesen, zure ordenagailuan, aktibatu datuen sinkronizazioa Información del dispositivo panelean. Informazioa eskuratzeko, ikus iTunesen laguntza.

SIM txartel batetik kontaktuak inportatzeko (GSM): Zoaz hona: Ajustes

> Correo, contactos, calendarios > Importar contactos de la SIM.

 vCard txartel batetik kontaktuak inportatzeko: Aukeratu mezu elektroniko baten, mezu baten edo webgune baten .vcf fitxategi erantsi bat.

GAL, CardDAV edo LDAP zerbitzari batean bilatzeko: Sakatu Grupos, sakatu bilaketa egin nahi duzun direktorioa, eta, gero, sartu bilatu nahi duzuna.

GAL, LDAP edo CardDAV zerbitzari bateko kontaktu-informazioa gordetzeko: Bilatu gehitu nahi duzun kontaktua, eta, gero, sakatu "Añadir contacto".

Talde bat bistaratzeko edo ezkutatzeko: Sakatu Grupos, eta aukeratu zein talde ikusi nahi dituzun. Kontaktu-iturri bat baino gehiago badituzu soilik bistaratuko da botoi hori.

Iturri ugaritako kontaktuak badituzu, baliteke pertsona berarentzat sarrera bat baino gehiago egotea. **"Todos los contactos"** zerrendan kontaktuak errepikatuta bistaratu ez daitezen, iturri desberdinetakoak izan arren izen bera duten kontaktuak konbinatu egiten dira, eta kontaktu bateratu gisa bistaratzen dira. Kontaktu bateratu bat dagoenean, Info unificada titulua agertzen da pantailaren goialdean.

Kontaktu bat lotzeko: Editatu kontaktu bat, sakatu Editar, sakatu (), eta aukeratu lotu nahi duzun kontaktuaren sarrera. Lotutako kontaktuak ez dira elkartzen. Kontaktu bateratu bateko informazioa aldatu edo gehituz gero, informazio hori zeukan jatorrizko kontu bakoitzean kopiatuko dira aldaketak.

Izen edo abizen desberdinak dituzten kontaktuak lotzen badituzu, txartel indibidualen izenak ez dira aldatuko, baina txartel bateratuan izen bakarra bistaratuko da. Txartel bateratua bistaratzean agertu behar lukeen izena aukeratzeko, sakatu zuk nahiago duzun izena duen txartela, eta, gero, sakatu **"Usar este nombre para la tarjeta unif."**.

Jatorriko kontu bateko kontaktu-informazioa ikusteko: Sakatu jatorrizko kontuetako bat.

Kontaktu bat askatzeko: Sakatu Editar, eta gero sakatu 👄. Ondoren, sakatu Desenlazar.

Kontaktuen doikuntzak

Kontaktuen doikuntzak aldatzeko, aukeratu **Ajustes > Correo, contactos,** calendarios. Aukera hauek dituzu:

- Kontaktuak ordenatzeko irizpidea zehaztu;
- kontaktuak izenaren edo abizenaren arabera bistaratu;
- kontaktu berrientzat kontu lehenetsi bat ezarri.
- Zure "Mis datos" txartela doitu

26 Kalkulagailua



Sakatu **Calculadora** aplikazioko zenbaki eta funtzioak beste edozein kalkulagailutan egingo zenukeen bezala.

Memoria ezabatzeko.



Kalkulagailu zientifikoa erabiltzeko: Biratu iPhonea horizontalean jartzeko.

27 Iparrorratza





Zure egungo kokapena Mapasen bistaratzeko.

iPhonearen norabidea zehazteko: Hartu iPhonea eskuan, horizontalean, zoruarekiko paraleloan.

Brújula aplikazioa irekitzen duzunean kokapen-zerbitzuak desaktibatuta badaude, haiek aktibatzeko eskatuko dizu. Hala eta guztiz ere, haiek aktibatu gabe erabil dezakezu **Brújula**. Ikus **"Pribatutasuna"**, 146. orrialdean.

Garrantzitsua. Iparrorratzaren zehaztasunari eragin diezaiokete interferentzia magnetikoek edo inguruneko interferentziek. iPhonearen botoientzungailuen imanek ere eragin ditzakete desbideratzeak. Iparrorratz digitala oinarrizko nabigazio-jarraibideak edukitzeko erabili behar da, eta ez da erabili behar kokapen, gertutasun, distantzia eta norabide zehatzen erreferentzia-iturri nagusitzat.

28 Ahots-oharrak



Ikuspegi orokorra

Notas de Voz aplikazioak aukera ematen dizu iPhonea grabagailu mugikor gisara erabiltzeko, mikrofono integratuarekin, iPhonearen esku libreko entzungailuen edo bluetooth bidezko entzungailuen mikrofonoarekin edo kanpoko mikrofono bateragarri batekin konbinatuta.



Jarri martxan grabaketa, eten une batez edo amaitu.

Grabaketa bat egiteko: Sakatu ● edo entzungailuen erdiko botoia. Sakatu ■ grabaketa une batez eteteko, □ edo amaitzeko, edo sakatu entzungailuen erdiko botoia.

Mikrofono integratuarekin egiten diren grabaketak mono moduan egiten dira, baina grabaketa estereoak ere egin daitezke, iPhonearen entzungailuen hargunera, Lightning konektorera (iPhone 5) edo Dock konektorera konekta daitekeen kanpoko mikrofono estereo bat erabiliz. Bilatu Appleren **"Made for iPhone"** eta **"Works with iPhone"** logotipoa duten osagarriak.

Grabaketa-maila doitzeko: Hurbildu edo urrundu mikrofonoa grabatzen ari zaren soinu-iturritik. Kalitate handieneko grabazioa egiteko, maila-

neurgailuaren erregistro altuenak 3 eta 0 dB artean egon behar du.

Hastekojamaitzeko tonua aktibatu eta desaktibatzeko: Erabili iPhonearen bolumen-botoiak bolumena minimoraino jaisteko.

Beste aplikazio bat erabiltzeko grabaketa egin bitartean: Sakatu hasierako botoia ≡, eta ireki aplikazioa. Notas de voz aplikaziora itzultzeko, sakatu pantailaren goialdeko barra gorria.

Grabazio bat erreproduzitzeko: Sakatu grabazio bat, eta ondoren, sakatu ▶. Sakatu II erreprodukzioan etenaldia egiteko.



Bozgorailutik hargailura eta alderantziz aldatzeko.

Grabaketa bat laburtzeko: Sakatu (), laburtu nahi duzun grabaketaren alboan, eta, gero, sakatu "Acortar nota". Arrastatu audio-pasartearen ertzak, eta, gero, sakatu) aurrebista ikusteko. Beharrezkoa bada, doitu ezazu, eta, azkenik, sakatu "Acortar nota de voz", gordetzeko. Ebakitzen dituzun zatiak ezin dira berreskuratu.

Nola partekatu ahots-oharrak zure ordenagailuarekin

iPhonea ordenagailura konektatzean, ahots-oharrak bere liburutegiarekin sinkroniza ditzake iTunesek.

Zure ahots-oharrak iTunesekin sinkronizatu arren, **Notas de Voz** aplikazioan gordeko dira, ezabatu arte. iPhonean ahots-ohar bat ezabatzen baduzu, ohar hori ez da ezabatuko iTuneseko **"Notas de voz"** erreprodukzio-zerrendatik. Baina iTunesen ahots-ohar bat ezabatzen baduzu, iPhonetik ezabatu egingo da iTunesekin sinkronizatzen duzun hurrengo aldian. iTunesekin ahots-oharrak sinkronizatzeko: Konektatu iPhonea ordenagailura, eta aukeratu iPhonea iTuneseko gailu-zerrendan. Aukeratu Música pantailaren goiko aldean ("Aplic." eta "Películas" artean), aukeratu "Sincronizar la música", aukeratu "Incluir notas de voz", eta sakatu Aplicar.

iPhoneko ahots-oharrak iTuneseko **"Notas de voz"** erreprodukziozerrendan bistaratuko dira.

29 Nike + iPod



Nike + iPod sentsore baten bidez (bereiz saltzen da), Nike + iPod aplikazioak informazio entzungarria ematen du korrika edo oinez zoazela zer abiadura daramazun, zer distantzia egin duzun, zenbat denbora igaro den eta zenbat kaloria erre dituzun jakiteko.



Entrenamendu estandar bat aukeratzeko.

Nike + iPod aplikazioa ez da bistaratzen pantaila nagusian aktibatu arte.

Nike + iPod aktibatzeko: Aukeratu Ajustes > Nike + iPod.

Nike + iPod aplikazioak zapatiletan jartzen den haririk gabeko sentsore batek (bereiz saltzen da) erregistratzen dituen entrenamendu-datu guztiak biltzen ditu. Lehen aldiz erabili aurretik, sentsorea iPhonearekin lotu beharko duzu.

Zure sentsorea iPhonearekin lotzeko:]arri sentsorea zapatilan, eta aukeratu Ajustes > Nike + iPod > Sensor.

Entrenamendu bati ekiteko: Sakatu Entrenamientos, eta aukeratu bat.

- Entrenamenduan geldialdi bat egiteko: Aktibatu iPhonea, eta sakatu
- 🛚 blokeo-pantailan. Jarraitzeko prest zaudenean, sakatu 🕨
• Entrenamendu bat bukatzeko: Aktibatu iPhonea, sakatu II, eta, gero, sakatu Finalizar.

Entrenamenduaren doikuntzak aldatzeko: Aukeratu Ajustes > Nike + iPod.

Nike + iPod doitzeko: Erregistratu entrenamendu bat, gutxienez 400 metroko distantzia ezaguna duena. Gero, sakatu Finalizar, sakatu Calibrar entrenamenduen laburpen-pantailan, eta sartu egiaz egindako distantzia.

Lehenespenezko doikuntzak berrezartzeko: Aukeratu Ajustes > Nike + iPod.

Entrenamenduetako datuak nikeplus.com-era bidaltzeko: iPhonea Internetera konektatuta dagoela, ireki Nike + iPod, sakatu Historial, eta, gero, sakatu "Enviar a Nike+".

Zure entrenamenduak nikeplus.com-en ikusteko: Safarin, zoaz nikepluscom-era, hasi saioa zure kontuarekin, eta jarraitu pantailako argibideei.

30 iBooks



Ikuspegi orokorra

Liburuak irakurtzeko eta erosteko aparteko modua da **iBooks**. Deskargatu **iBooks** doako aplikazioa App Storetik, eta eskuratu mota guztietako liburuak, klasikoak zein lanik salduenak.



Liburuak eta PDF fitxategiak irakurtzeko modu ezin hobea da **iBooks**. Deskargatu doako **iBooks** aplikazioa App Store dendan. Liburu-mota guztiak izango dituzu eskura iBookstore dendan: klasiko handietatik hasi eta gehien saldutako obretara. **iBooks** aplikazioa deskargatzeko eta **iBookstore** erabiltzeko, Interneteko konexioa eta Appleko ID bat behar dituzu.

iBookstore bisitatzeko: iBooks atalean, sakatu Tienda. Hauek egin ditzakezu:

- liburuak bilatu, nabigatuz edo bilaketa espezifikoak eginez;
- liburu baten lagin bat eskuratu, gustatzen zaizun ala ez ikusteko;
- iritziak irakurri eta idatzi, eta gehiena saltzen diren liburuak ikusi;

• lagun bati liburu bati buruz hitz egin posta elektroniko bidez.

Liburu bat erosteko: Bilatu nahi duzuna, sakatu prezioa, eta sakatu berriro, deskargatzeko.

Liburu bati buruzko informazioa lortzeko: Liburu baten laburpena irakurri, aipamenak kontsultatu eta haren lagin bat ikus dezakezu erosi aurretik. Liburu bat erosi ondoren, zuk ere aipamen bat idatz dezakezu.

Aurretik egindako erosketa bat deskargatzeko: Sakatu Comprado. Nabigatu bitartean erosketa bat deskargatzeko, sakatu Descargar (prezioa egon ohi den lekuan). Ez zaizu berriro kobratuko. Beste gailu batzuetan erositako itemak automatikoki deskargatzeko, aukeratu Ajustes > iTunes Store y App Store.

Liburuak irakurtzea

Erraza da liburu bat irakurtzea. Zoaz apalera, eta sakatu irakurri nahi duzun liburua. Liburu bakoitzak bere ezaugarriak ditu, edukian eta formatuan oinarrituta. Baliteke hemen deskribatzen diren funtzioetako batzuk ez egotea eskuragarri irakurtzen ari zaren liburuan.

Liburu bat irekitzeko: Sakatu irakurri nahi duzun liburua. Apalean ikusten ez baduzu, joan ezkerrera edo eskuinera beste bilduma batzuk ikusteko.

- Kontrolak bistaratzeko: Sakatu orri baten erdialdean.
- Irudi bat handitzeko: Sakatu bitan irudia. Liburu batzuetan, luze sakatu pantaila lupa bat bistaratu arte. Lupa hori erabili ahal izango duzu irudiak ikusteko.
- Orrialde jakin batera joateko: Erabili pantailaren behealdean dauden orrien nabigazio-kontrolak. Bestela, sakatu Q, sartu orri-zenbakia, eta sakatu orrialde-zenbakia bilaketaren emaitzetan.

 Hitz baten definizioa bilatzeko: Sakatu bi aldiz hitz bat, erabili hautatze-puntuak aukeratutako zatia doitzeko, eta, bistaratzen den menuan, sakatu Definir. Definizioak ez daude eskuragarri hizkuntza guztietan.

• Aurkibidea ikusteko: Sakatu 😑 Liburu batzuetan, atximur-mugimendua eginda ere bistaratzen da aurkibidea.

Liburu bat oharrak gehitzeko: Liburu bati oharrak gehitzeko eta haren

zati batzuk nabarmentzeko aukera duzu.

- Zati bat nabarmentzeko: Sakatu bi aldiz hitz bat, erabili hautatze-puntuak aukeratutako zatia doitzeko, sakatu **Resaltar**, eta aukeratu kolore bat edo azpimarratzea.
- Nabarmendutakoa ezabatzeko: Sakatu nabarmendutako testua, eta ondoren, sakatu 🚫
- Ohar bat ezabatzeko: Ezabatu zure testua. Oharra eta hark nabarmendutako zatia ezabatzeko, sakatu nabarmendutako zatia, eta sakatu S.
- Ohar guztiak ikusteko: Sakatu ☷, eta sakatu Notas. Sakatu 🖻 oharrak inprimatzeko edo posta elektroniko bidez bidaltzeko.

Liburu baten itxura aldatzeko: Liburu batzuek aukera ematen dute letratamaina eta -mota eta orrialdearen kolorea aldatzeko.

- Letra-mota edo -tamaina aldatzeko: Sakatu orrialdearen erdialdean, kontrolak bistaratzeko, eta sakatu **A**. Sakatu **"Tipos de letra"** mota bat aukeratzeko. Liburu batzuek iPhonea orientazio bertikalean dagoela bakarrik ematen dute aukera letra-tamaina aldatzeko.
- Orrialdearen eta testuaren kolorea aldatzeko: Sakatu orrialdearen erdialdean, kontrolak bistaratzeko, sakatu ${}_{\mathbf{A}}\mathbf{A}$, eta sakatu **Tema**. Doikuntza hori horretarako aukera ematen duten liburu guztiei aplikatzen zaie.
- Distira aldatzeko: Sakatu orrialdearen erdialdean, kontrolak bistaratzeko, eta sakatu ** ** ikusten ez baduzu, sakatu *A lehenik.
- Justifikazioa eta lerro-bukaeran hitzak banatzea aktibatzeko edo desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > iBooks. PDF fitxategiak eta liburu batzuk ezin dira justifikatu, eta ezin zaie aplikatu lerro-bukaeran hitzak banatzeko aukera.

Apalategia antolatzea

Liburuak eta PDF dokumentuak miatzeko eta antolatzeko balio du apalategiak. Itemak bildumaka antolatzeko aukera ere badago.



Liburu bat edo PDF bat bilduma batera mugitzeko: Sakatu Editar. Aukeratu mugitu nahi dituzun itemak, eta, sakatu Trasladar, eta aukeratu bilduma bat.

Bildumak ikusteko eta kudeatzeko: Sakatu uneko bildumaren izena (pantailaren goiko aldean), libros edo PDF, esaterako, bilduma-zerrenda bistaratzeko. Berez datozen libros eta PDF bildumak ezin dira editatu, ez eta ezabatu ere.

Apalategia antolatzeko: Sakatu egoera-barra edo joan pantailaren goiko aldera. Gero, sakatu ≡ eta aukeratu antolatzeko metodo bat pantailaren beheko aldean.

Apalategitik item bat ezabatzeko: Sakatu editar, eta sakatu ezabatu nahi dituzun itemak, egiaztatze-marka bat bistaratu dadin. Sakatu Eliminar. Amaitzen duzunean, sakatu Salir. Erositako item bat ezabatuz gero, berriz ere deskargatzeko aukera duzu, iBookstore dendako Compras atalean.

Liburu bat bilatzeko: Zoaz apalategira. Sakatu egoera-barra pantailaren goiko aldera joateko, eta, gero, sakatu Q. Izenburuaren eta egilearen izenaren arabera egiten da bilaketa.

Liburuak eta PDF dokumentuak sinkronizatzea

Erabili iTunes zure liburuak eta PDF dokumentuak sinkronizatzeko iPhonearen eta ordenagailuaren artean eta liburuak erosteko iTunes Store dendan. iPhonea ordenagailuari konektatuta dagoenean, sinkronizatu nahi dituzun itemak hautatzen utziko dizu **Libros** panelak. Interneten DRM gabeko ePub liburuak eta PDF fitxategiak bilatu eta zure iTunes liburutegira gehitu ditzakezu.

iPhonearekin liburu bat edo PDF fitxategi bat sinkronizatzeko: Zure ordenagailuan, iTunesen, aukeratu Archivo > "Añadir a la biblioteca", eta aukeratu fitxategia. Ondoren, egin sinkronizazioa.

Liburu bat edo PDF bat iBooksera gehitzeko sinkronizaziorik egin gabe: Liburua edo PDFa oso handia ez bada, bidali mezu elektroniko bat zeure helbidera ordenagailutik. Ireki mezu elektronikoa iPhonean, luze sakatu fitxategi erantsia eta aukeratu "Abiri en iBooks" bistaratzen den menuan.

PDF bat inprimatzea edo posta elektroniko bidez bidaltzea

iBooks erabil dezakezu PDF baten kopia bat posta elektronikoz bidaltzeko eta osorik edo haren zati bat AirPrint inprimagailu batean inprimatzeko.

PDF bat posta elektroniko bidez bidaltzeko: Ireki PDFa, sakatu i , eta aukeratu "Enviar por correo".

PDF bat inprimatzeko: Ireki PDFa, sakatu 🗟, eta aukeratu Imprimir. Informazio gehiago lortzeko, ikus "AirPrint bidez inprimatzea", 43. orrian.

iBooksen doikuntzak

Zure Appleko IDa erabiliz gordetzen ditu iBooksek bildumak, markatzaileak, oharrak eta uneko orriari buruzko informazioa, liburuak etenik gabe irakurri ahal izan ditzazun zure iOS gailu guztietan. iBooksek zure liburu guztiei buruzko informazioa gordetzen du aplikazioa irekitzen eta ixten duzunean. Liburu bakoitzaren informazioa gordetzen du hura irekitzen edo ixten duzunean.

Sinkronizazioa aktibatzeko edo desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > iBooks. Bildumak eta markatzaileak sinkronizatzeko aukera ere baduzu.

Liburu batzuek Interneten biltegiratutako audio- eta bideo-fitxategietarako sarbidea ere ematen dute. IPhoneak telefonia mugikorreko datu-konexio bat badu, baliteke operadoreak tarifaren bat aplikatzea fitxategi horiek erreproduzitzeagatik.

Audio- eta bideo-fitxategietarako sarbidea aktibatzeko edo desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > iBooks > Audio y vídeo en línea.

Ezkerreko marjina sakatzean hurrengo orrira joateko norabidea aldatzeko: Aukeratu Ajustes > iBooks > Pulsar margen izq.

31 Podcastak



Deskargatu **Podcasts** doako aplikazioa App Store dendatik, eta bilatu podcastak, harpidetu, eta erreproduzitu zure audio- eta bideo-podcast gogokoenak.

Eskuragarri dauden podcast guztiak arakatzeko.



Zure liburutegiko podcastak ikusteko.

Podcastak eskuratzeko:

 Katalogo osoa arakatzeko: Sakatu Catálogo, eta, gero, sakatu interesatzen zaizun podcast bat.

 Podcast ezagunenak arakatzeko: Sakatu "Principales emisoras" (ikusten ez baduzu, lehenengo, sakatu Biblioteca). Joan ezkerrera edo eskuinera kategoria aldatzeko, eta gora edo behera uneko kategoria arakatzeko. Sakatu podcast bat azken atalaren aurrebista ikusteko edo sakatu @ atal-zerrenda bat ikusteko.

- Atal bat denbora errealean transmititzeko: Sakatu edozein atal.
- Atal bat deskargatzeko WiFi sare batera konektatutakoan entzun ahal

izateko: Sakatu I, edozein atalen ondoan.

 Podcast batera harpidetzeko beti azken atala eskuratzeko: Katalogoa arakatzen ari bazara, sakatu podcast bat atal-zerrenda ikusteko, eta, gero, sakatu Suscribirse. Atal bat jada deskargatu baduzu, sakatu zure liburutegiko podcasta, sakatu berriro atal-zerrendaren hasieran, eta, gero, aktibatu Suscripción.

 Automatikoki eskuratzeko harpidetuta zauden podcast baten azken atala: Sakatu podcasta zure liburutegian. Sakatu berriro atal-zerrendako goiko aldean, eta aktibatu "Descarga automática".

Audio-erreprodukzioa kontrolatzeko: Egin gora erreproduzitzen ari den podcastaren irudian erreprodukzio-kontrol guztiak bistaratzeko.



Podcast hau partekatzeko.

Bideo-erreprodukzioa kontrolatzeko: Sakatu pantaila bideo-podcast bat ikusi bitartean.

32 Irisgarritasuna

Irisgarritasun-funtzioak

iPhoneak irisgarritasun-funtzio hauek ditu:

- VoiceOver
- Deien audioa bideratzea
- Siri ahots bidezko laguntzailea
- Zoomarekin handitzea
- Testu handia
- Koloreak alderantzikatzea
- Hautatua irakurtzea
- Testu automatikoa irakurtzea
- Mono audioa eta balantzea
- Audifonoak eta entzumen-laguntzako modua
- Eslei daitezkeen dei-tonuak eta bibrazioak
- Alertetarako keinuak
- Sarbide gidatua
- AssistiveTouch
- Braille pantailetarako laguntza
- dukia azpitituluekin erreproduzitzea

iPhonean irisgarritasun-funtzioak aktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Accesibilidad.

iTunesen irisgarritasun-funtzioak aktibatzeko: Konektatu iPhonea ordenagailura, eta aukeratu iPhonea iTuneseko gailu-zerrendan. Sakatu Resumen, eta, gero, sakatu "Configurar Acceso Universal", Resumen pantailaren beheko aldean.

iPhonearen irisgarritasun-ezaugarriei buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus www.apple.com/es/accessibility. www.apple.com/mx/ accessibility edo www.apple.com/la/accessibility.

"Texto grande" funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko, iPhonearen doikuntzak erabili behar dira ezinbestean. Ikus "Testu handia", 169. orrialdean.

VoiceOver

VoiceOver funtzioak ozenki deskribatzen ditu pantailako elementuak, iPhonea ikusi gabe ere erabili ahal izateko.

VoiceOver aplikazioak pantailan hautatutako item bakoitzaren gaineko azalpena ematen du. Item bat aukeratzen denean, VoiceOverreko kurtsorearekin nabarmentzen da (laukizuzen beltz bat), eta VoiceOverrek itemaren izena esaten du edo deskribatu egiten du.

Ukitu pantaila edo arrastatu hatzak pantailako itemak entzuteko. Testua aukeratzen denean, **VoiceOver**rek irakurri egiten du. **"Leer indicaciones"** aktibatzen baduzu, **VoiceOver**rek itemaren izena esan diezazuke, eta jarraibidea eman (adibidez, **"puise dos veces para abrir"**). Pantailako itemekin (botoiekin eta estekekin, adibidez) elkarreraginean aritzeko, erabili **"VoiceOverreko keinuak ikastea"** atalean, 158. orrialdean, deskribatzen diren keinuak.

Beste pantaila batera igarotzean, soinu bat egingo du **VoiceOver** aplikazioak; ondoren, pantailako lehen itema hautatu (normalean, goialdean ezkerrean dagoen itema), eta ozenki irakurriko du. Pantaila posizio bertikal eta horizontalaren artean aldatzen denean ere, horren berri ematen du **VoiceOver** aplikazioak, baita pantaila blokeatzen eta desblokeatzen denean ere.

Oharra. Internacional doikuntzetan zehaztutako hizkuntzan hitz egiten du VoiceOver aplikazioak. Kontu egin, baina, Ajustes > General > Internacional ataleko "Formato regional" doikuntzak eragina izan dezakeela konfigurazioan. VoiceOver aplikazioak hizkuntza ugari ditu aukeran, baina ez guztiak.

VoiceOverri buruzko oinarrizko kontzeptuak

Garrantzitsua. VoiceOver aplikazioak aldatu egiten ditu iPhonea kontrolatzeko erabiltzen dituzun keinuak. Beraz, VoiceOver aktibatutakoan, haren keinuak erabili beharko dira iPhonea kontrolatzeko, baita VoiceOver funtzioa bera desaktibatzeko eta berriz ohiko jardunbidera itzultzeko ere.

VoiceOver aktibatzeko edo desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver. Era berean, "Clic triple en Inicio" ere doitu dezakezu VoiceOver aktibatzeko edo desaktibatzeko. Ikus "Hasieran hiru aldiz sakatzea", 168. orrialdean.

Pantaila arakatzeko: Arrastatu hatza pantailan. VoiceOverrek ozen esango du ukitzen duzun item bakoitzaren izena. Altxatu hatza item bat hautatuta gera dadin.

· Item bat aukeratzeko: Sakatu edo altxatu hatza itemaren gainean

arrastatzen ari zarela.

 Hurrengo edo aurreko itema aukeratzeko: Joan eskuinera edo ezkerrera hatz bat erabiliz. Itemen ordena hau da : ezkerretik eskuinera eta goitik behera.

 Goiko edo beheko itema aukeratzeko: Erabili errotorea nabigazio bertikala aktibatzeko, eta joan hatz batekin gora edo behera.

 Pantailako lehen edo azken itema aukeratzeko: Lerratu lau hatz gorantz edo beherantz.

 Item bat izenaren arabera aukeratzeko: Sakatu hiru aldiz bi hatzekin pantailako edozein leku "Selector de item" irekitzeko. Gero, idatzi izen bat bilaketa-eremuan edo joan ezkerrera edo eskuinera alfabetoaren araberako zerrendan mugitzeko, edo sakatu zerrendaren eskuineko aurkibide alfabetikoa eta joan gora edo behera item-zerrendan azkar mugitzeko.

 Aukeratutako item baten izena aldatzeko, aurkitzeko errazagoa izan dadin: Luze sakatu bi hatzekin pantailako edozein leku.

• Aukeratutako itemaren testua irakurtzeko: Doitu errotore-kontrola karaktere edo hitzetara, eta joan gora edo behera hatz batekin.

 Ahozko azalpenak aktibatzeko edo desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver.

 Ortografia fonetikoa gehitzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver > Alfabeto por palabras.

 Pantailako elementu guztiak irakurtzeko goiko aldetik hasita: Eraman bi hatz gora.

• Uneko itemetik pantaila-amaieraraino irakurtzeko: Eraman bi hatz behera.

 Lokuzioa geldiarazteko: Sakatu behin bi hatzekin. Berriz ere ozenki irakurtzeari ekiteko, sakatu berriz ere bi hatzez. Beste item bat aukeratzen duzunean, berriro irakurtzeari ekingo zaio.

 VoiceOver isilarazteko: Sakatu hiru aldiz hiru hatzez. Ostera ere hizketan hasteko, sakatu berriro hiru aldiz hiru hatzez. VoiceOverren soinuak soilik desaktibatzeko, jarri tonuajisilik etengailua Silencio kokagunean. Kanpoko teklatu bat konektatu baduzu, Control tekla sakatu dezakezu, VoiceOver aplikazioaren soinua aktibatzeko edo desaktibatzeko.

Ahotsa doitzeko: VoiceOverren ahotsaren ezaugarriak doitu ditzakezu ulertzeko errazagoa izan dadin:

Ahotsaren bolumena aldatzeko: Erabili iPhonearen bolumen-botoiak.
Bestela, gehitu bolumena errotoreari, eta joan gora eta behera, doitzeko.

Horretarako, ikus **"VoiceOverren errotore-kontrolaren erabilera"**, 160. orrialdean.

 Ahotsaren abiadura aldatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver, eta arrastatu "Velocidad de habla" erreguladorea.
Bestela, gehitu "Velocidad de habla" errotoreari, eta, gero, joan gora edo behera doikuntzak egiteko.

 Tonu-aldaketak erabiltzeko: VoiceOverrek tonu ozena erabiltzen du multzo bateko lehen osagaia esateko (zerrenda edo taula batean, esaterako), eta tonu apala azken osagaia esateko. Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver > Cambio de tono.

 iPhonearen hizkuntza aldatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Internacional > Idioma. VoiceOverren hizkuntza batzuetako ahoskera aldatu egiten da Ajustes > General > Internacional > Formato regional doikuntzaren arabera.

 Ahoskera aldatzeko: Egokitu errotorea Idioma aukerara, eta mugitu gorantz edo beherantz. Ahoskera bat baino gehiago aukeratzen badituzu soilik egongo da eskuragarri "Idioma" aukera errotorean.

 Hizkuntza-errotorean eskuragarri dauden ahoskerak aukeratzeko: Aukeratu Ajustes - General - Accesibilidad - VoiceOver - Rotor de idiomas. Hizkuntza baten zerrendako kokapena aldatzeko, arrastatu gora edo behera.

• Oinarrizko irakurketako ahotsa aldatzeko: Aukeratu Ajustes > General

> Accesibilidad > VoiceOver > Usar voz compacta.

iPhonea VoiceOverrekin erabiltzea

iPhonea desblokeatzeko: Aukeratu Desbloquear, eta sakatu pantaila bi aldiz.

Aukeratutako itema sakatuta aktibatzeko: Sakatu birritan pantailaren edozein leku.

Aukeratutako itema bi aldiz sakatuta aktibatzeko: Sakatu hirutan pantailaren edozein leku.

Erreguladoreak doitzeko: Aukeratu erreguladorea, eta joan gora edo behera hatz bakarrarekin.

Keinu estandar bat erabiltzeko VoiceOver aktibatuta dagoenean:

Sakatu bi aldiz eta mantendu hatza pantaila gainean. Zenbait tonuk joko dute elkarren segidan, ohiko keinuak aktibo daudela adierazteko. Aktibo geratuko dira hatza askatu arte. Orduan, VoiceOverreko keinuak martxan jarriko dira berriro. Pantailako zerrenda edo eremu baten barruan mugitzeko: Lerratu hiru hatz gora edo behera. Zerrenda bateko orrietan mugitzen ari bazara, bistaratutako item-tartea irakurriko du VoiceOverrek (adibidez, "mostrando filas 5 a 10").

 Zerrenda batean etengabe mugitzeko: Sakatu birritan, eta eutsi sakaldiari. Zenbait tonu entzuten dituzunean, mugitu hatza gorantz edo beherantz, zerrendan barrena ibiltzeko. Hatza askatzen duzun unean geratuko da lekualdatze jarraitua.

 Zerrenda-aurkibide bat erabiltzeko: Zenbait zerrendatan alfabetoaren araberako aurkibide bat egoten da pantailaren eskuinaldean. Item batetik bestera joanda ezin da aurkibide hori hautatu; zuzenean ukitu behar da aurkibidea, hura hautatzeko. Aurkibidea hautatutakoan, mugitu gorantz eta beherantz, aurkibidean atzera eta aurrera mugitzeko. Orobat, bi aldiz saka dezakezu, eta hatza gorantz edo beherantz lerratu.

 Zerrenda bat berrantolatzeko: Zerrenda batzuetako elementuen ordena alda dezakezu; adibidez, errotoreko itemak eta hizkuntza-errotorea, irisgarritasun-doikuntzetan. Hautatu itemen eskuinean dagoen ≡ ikurra; sakatu birritan, eta eutsi azken sakaldiari soinu bat entzun arte. Ondoren, arrastatu elementua gorantz edo beherantz. Arrastatze-norabidearen arabera gorantz edo beherantz mugitu duzun itema irakurriko du ozenki VoiceOverrek.

Pantaila nagusia berrantolatzeko: Pantaila nagusian, aukeratu mugitu nahi duzun ikonoa. Sakatu birritan ikonoa, eta eutsi sakaldiari; ondoren, arrastatu ikonoa. VoiceOverrek ilararen eta zutabearen kokapena adieraziko ditu ozenki, ikonoa arrastan daramazula. Ikonoa nahi duzun kokapenean dagoenean, aska ezazu. Beste ikono batzuk ere arrastatu ditzakezu. Item bat pantaila nagusiko beste orrialde batera mugitzeko, arrastatu pantailaren ezkerraldera edo eskuinaldera. Amaitu ondoren, sakatu hasierako botoia O.

iPhonearen egoera-informazioa irakurtzeko: Sakatu pantailaren goiko aldea informazioa eskuratzeko: ordua, bateriaren iraupena, WiFi bidezko seinalearen intentsitatea eta beste zenbait datu interesgarri.

Jakinarazpenak irakurtzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver, eta aktibatu "Leer notificaciones". Jakinarazpenak (baita sarrerako testu-mezuen testua ere) ozen irakurriko dira gertatu ahala, nahiz eta iPhonea blokeatuta egon. Jakinarazpen bat hartu izana adierazi ez bada, errepikatu egingo da iPhonea desblokeatu ondoren.

Pantailaren errezela aktibatzeko edo desaktibatzeko: Sakatu lau aldiz hiru hatzez. Pantailaren errezela aktibatuta badago, pantailaren edukia aktibatuta egongo da, pantaila bera desaktibatuta egon arren.

VoiceOverren keinuak ikastea

VoiceOver aktibatuta dagoenean, ukipen-pantailaren keinu estandarrek bestelako eragin batzuk izaten dituzte. Keinu horien eta beste batzuen bidez, aukera izango duzu pantailan barrena ibiltzeko eta hautatuko itemak kontrolatzeko. VoiceOver aplikazioaren keinuetan, bi eta hiru hatz erabiltzen dira, sakatzeko edo batetik bestera mugitzeko. Bi eta hiru hatzez egindako keinuak albait ondoen erabiltzeko, lasaitu hatzak, eta ukitu pantaila hatzen artean tartetxo bat utzita.

Zenbait teknika daude **VoiceOver**ren keinuak erabiltzeko. Adibidez, bi hatzeko sakaldia egiteko, esku bateko bi hatz edo esku bakoitzeko hatz bana erabil ditzakezu. Erporuak ere erabil ditzakezu. Erabiltzaile askori oso eraginkorra iruditzen zaie "sakaldi bereiziaren" keinua: alegia, item bat hautatu eta birritan sakatu ordez, itema hatz batez sakatu, sakaldiari eutsi eta bitartean beste hatz batez pantaila sakatu. Teknika batzuk eta besteak saiatzea da onena, gustukoen duzuna hautatzeko.

Egiten dituzun keinuek ez badute funtzionatzen, saiatu mugimenduak azkarrago egiten, batik bat birritan sakatzeko eta batetik bestera mugitzeko keinuetan. Batetik bestera mugitzeko, mugitu hatz bat edo gehiago pantailatik arin-arin. **VoiceOver** aktibatuta dagoenean, **"Práctica de VoiceOver"** botoia agertuko da. **VoiceOver** aplikazioarekin benetako jarduna hasi aurretik, keinuekin saiakerak egiteko aukera ematen du.

VoiceOverren keinuak praktikatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver y, eta sakatu "Práctica de VoiceOver". Praktikatzen amaitzen duzunean, sakatu Salir. "Práctica de VoiceOver". botoia ikusten ez baduzu, begiratu VoiceOver aktibatuta dagoen.

Hona hemen VoiceOverren keinu garrantzitsuenak laburbilduta:

Nabigatzeko eta irakurtzeko

- Sakatuta: Itema ozen irakurtzen da.
- Eskuinera edo ezkerrera mugituta: Hurrengo itema eta aurrekoa hautatzen da.

 Gorantz edo beherantz mugituta: Errotore-kontrolaren doikuntzaren araberakoa da. Ikus "VoiceOverren errotore-kontrolaren erabilera", 160. orrialdean.

- Bi hatzez sakatuta: Uneko itema esateari uzten zaio.
- Bi hatzez gorantz mugituta: Pantailaren goialdetik hasita guztia irakurtzen da.

 Bi hatzez beherantz mugituta: Uneko kokapenetik aurrerako guztia irakurtzeko. Bi hatz gainetik pasatuta: Bi hatzez hiru mugimendu arin eginda ("z" bat marraztuta), abisu bat bertan behera uzten da edo aurreko pantailara joaten da.

· Hiru hatzez gorantz edo beherantz mugituta: Orrialde bat pasatzen da.

 Hiru hatzez eskuinera edo ezkerrera mugituta: Hurrengo edo aurreko orrialdera joaten da (esate baterako, pantaila nagusian edo **Bolsa** edo Safari aukeretan).

 Hiru hatzez sakatuta: Informazio gehigarria irakurtzen da, adibidez, zerrenda bateko kokapena eta testua hautatuta dagoen ala ez.

• Lau hatzez pantailaren goiko aldea sakatuta: Orrialdeko lehen itema hautatzen da.

 Lau hatzez pantailaren beheko aldea sakatuta: Orrialdeko azken itema hautatzen da.

Aktibatzeko

- Bi aldiz sakatuta: Hautatutako itema aktibatzen da.
- Hiru aldiz sakatuta: Item bat bi aldiz sakatzen da.

 Sakaldi bereizia: Item bat hautatu eta, aktibatzeko, birritan sakatu ordez, itema hatz batez sakatu, eta, bitartean, beste hatz batez pantaila sakatu.

 Birritan sakatu eta sakaldiari eutsi (segundo batez) + keinu estandarra eginda: Keinu estandar bat erabil daiteke. Sakaldi bikoitza egin eta sakaldiari eutsiz gero, iPhoneak ulertuko du hurrengo keinua ohiko keinutzat jo behar duela. Esate baterako, urrats hauek egin ditzakezu etengailu bat lerratzeko: birritan sakatu, sakaldiari eutsi eta, jarraian, hatza altxatu gabe arrastatu.

 Bi hatzez bi aldiz sakatuta: Dei bati erantzuten zaio, edo deia amaitzen da. Música, Videos, Notas de voz eta Fotos aplikazioak martxan jarri edo erreprodukzioa gelditu egiten da. Argazki bat egiten da Cámara aplikazioan. Kameraren edo ahots-oharren grabazioari ekiten zaio edo grabazioa eteten da. Kronometroa abian jartzen edo geldiarazten da.

• Bi hatzez bi aldiz sakatu eta sakaldiari eutsita: Item baten etiketa aldatzen da, aurkitzeko errazagoa izan dadin.

- Bi hatzez hiru aldiz sakatuta: "Selector de ítem" irekitzen da.
- Hiru hatzez hiru aldiz sakatuta egin: **VoiceOver**ren soinua aktibatzen edo desaktibatzen da.

• Hiru hatzez lau aldiz sakatuta: Pantailaren errezela aktibatzen edo desaktibatzen da.

VoiceOverren errotore-kontrolaren erabilera

Erabili errotorea VoiceOver aktibatuta dagoenean gora edo behera mugitzean zer gertatuko den aukeratzeko.

Errotorea abian jartzeko: Biratu bi hatz iPhonearen pantaila gainean, bien arteko puntu baten inguruan.



Errotorearen aukerak aldatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver > Rotor, eta hautatu errotorea erabiltzean eskuragarri izan nahi dituzun aukerak.

Errotorearen doikuntzaren eragina aldatu egiten da unean uneko jardueraren arabera. Adibidez, mezu elektroniko bat irakurtzen ari zarela, testua hitzez hitz entzun beharrean karakterez karaktere entzuteko erabil dezakezu errotorea, baita alderantzizko eragiketa egiteko ere, kasuan kasu gorantz edo beherantz mugituta. Webgune batean nabigatzen ari zarela, errotorea erabil dezakezu testu guztia entzuteko (hitzez hitz edo karakterez karaktere) baita item jakin batetik bestera jauzi egiteko ere (esate baterako, izenburutik izenburura edo estekatik estekara).

VoiceOverrekin testua idaztea eta editatzea

Testu-eremu editagarri baten barruan idazteko, pantailako teklatua erabil dezakezu, edo, bestela, iPhonera konektatutako kanpoko teklatu bat.

Testua idazteko: Aukeratu testu-eremu editagarri bat, sakatu bi aldiz txertatze-puntua eta teklatua pantailan bistaratzeko, eta, gero, idatzi karaktereak.

 Normal idazteko: Hautatu teklatuko tekla bat, hatz bat ezkerrerantz edo eskuinerantz mugituta, eta sakatu birritan karakterea txertatzeko.
Bada beste modu bat ere: mugitu hatza teklatutik tekla bat hautatu arte, eta tekla hori hatz batez sakatuta duzula, sakatu pantaila beste hatz batez. VoiceOverrek zer tekla aukeratu duzun esango dizu, eta berriro ahoskatuko du karakterea txertatzen duzunean.

 Ukipen bidez idazteko: Teklatuko tekla bat hautatzeko, ukitu tekla hori, eta altxatu hatza, karakterea txertatzeko. Okerreko tekla ukitzen baduzu, mugitu hatza teklatuan, nahi duzun tekla hautatu arte. VoiceOverrek ukitzen duzun tekla bakoitzaren karakterea ahoskatuko du, baina ez du karaktere bat ere txertatuko hatza altxatzen duzun arte. Testua txertatzen duten teklekin soilik funtzionatzen du ukipen bidezko idazketak. Gainerako tekletarako (maiuskula-tekla, ezabatzeko tekla eta atzera tekla), ohiko idazketa erabili beharko duzu.

 Ohiko idazketa edo ukipen bidezko idazketa aukeratzeko: VoiceOver aktibatuta badago eta teklatuan tekla bat hautatuta badago, erabili errotorea idazketa-mota hautatzeko, eta, ondoren, eraman hatza gorantz edo beherantz.

Txertatze-puntua mugitzeko: Mugitu gorantz edo beherantz, txertatzepuntua testu barruan aurrera edo atzera eramateko. Erabili errotorea txertatze-puntua nola mugitu nahi duzun adierazteko: karakterez karaktere, hitzez hitz edo lerroz lerro.

VoiceOverrek soinu bat egingo du txertatze-puntua mugitzen denean, eta zein karaktere, hitz edo lerrotan geratu den adieraziko dizu ozen. Hitz batetik bestera aurrera doala, hitz bakoitzaren amaieran kokatzen da txertatze-puntua, alegia hitzaren ondoko zuriunearen edo puntuazio-ikurraren aurretik. Hitz batetik bestera atzera doala, berriz, aurreko hitzaren amaieran kokatzen da txertatze-puntua, alegia, aurreko hitz horren ondoko zuriunearen edo puntuazio-ikurraren aurretik.

Txertatze-puntua mugitzeko hitz edo esaldi baten bukaerako puntuazioikurraren atzeraino: Erabili errotorea karaktere-modura itzultzeko.

Txertatze-puntua lerroz lerro mugituz gero, VoiceOverrek banan bana irakurriko ditu lerroak haietatik igaro ahala. Lerro batetik bestera aurrera doala, hurrengo lerroaren hasieran kokatzen da txertatze-puntua (paragrafo bateko azken lerroan izan ezik: orduan, irakurri berri duen lerroaren amaieran kokatuko da). Atzera egitean, berriz, irakurritako lerroaren hasieran kokatzen da txertatze-puntua.

Idatzi ahala ahoskatzeko funtzioa aldatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver > Pronunciar al escribir.

Idatzitakoa ahoskatzean hitzen bidezko alfabetoa erabiltzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver > Alfabeto por palabras.

Testua karakterez karaktere irakurriko da. VoiceOverrek karakterea ahoskatzen du lehenik, eta, gero, haren baliokide fonetikoa; adibidez, "f", eta, gero, "foxtrot".

Testua hautatzeko: Ezarri errotorea Editar atalean, eta mugitu gorantz edo beherantz, "Seleccionar" eta "Seleccionar todo" aukeren artean hautatzeko, eta ondoren, sakatu birritan. Seleccionar hautatzen baduzu, txertatze-puntutik gertuen dagoen hitza geratuko da hautatuta, birritan sakatzean. "Seleccionar todo" aukeratuz gero, berriz, testu osoa geratuko da hautatuta. Egin atximur hautatua handitzeko edo txikitzeko.

Ebaki, kopiatu edo itsasteko: Ziurtatu errotorea doituta dagoela Editar aukeran. Testua hautatuta daukazula, mugitu gorantz eta beherantz Cortar, Copiar edo Pegar aukeren artean hautatzeko, eta, ondoren sakatu birritan.

Desegiteko: Astindu iPhonea, mugitu ezkerrerantz edo eskuinerantz desegin nahi duzun aukera hautatzeko, eta, ondoren, sakatu birritan.

Azentu-marka duten karaktereak txertatzeko: Idazkera arruntean, hautatu azentu-markarik gabeko karakterea, eta sakatu birritan. Eutsi sakaldiari, soinu bat entzun arte: azentu-marka duten karaktereak agertuko dira orduan. Arrastatu ezkerrerantz edo eskuinerantz, aukerak hautatzeko eta entzuteko. Askatu hatza, eta hautatuta daukazun karakterea txertatuko da.

Teklatuaren hizkuntza aldatzeko: Egokitu errotorea Idioma aukerara, eta mugitu gorantz edo beherantz. Hautatu "Idioma por omisión", Internacional doikuntzetan ezarritako hizkuntza erabiltzeko. Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver > Rotor de idiomas aukeran hizkuntza bat baino gehiago hautatzen baduzu soilik bistaratzen da hizkuntza-errotorea.

VoiceOver aplikazioarekin telefono-deiak egiteko

Dei bati erantzuteko edo deia amaitzeko: Sakatu pantaila bi aldiz bi hatzekin.

VoiceOver aktibatuta dagoela deia egiten duzunean, pantailak zenbakizko teklatua erakutsiko du lehenespenez, dei-aukerak erakutsi beharrean.

Dei-aukerak erakusteko: Hautatu behealdeko eskuin-izkinan dagoen Ocultar botoia, eta sakatu birritan.

Zenbaki-teklatua berriz erakusteko: Hautatu pantailaren erdialdean dagoen Teclado botoia, eta sakatu birritan.

VoiceOver Safarirekin erabiltzea

VoiceOver aktibatua duzula Safarirekin Interneten bilaketak egiten dituzunean, "Resultados de la búsqueda" errotorearen itemekin, iradokitako bilaketa-esaldien zerrenda entzun ahal izango duzu

Interneten bilaketak egiteko: Aukeratu bilaketa-eremua, idatzi bilatu nahi duzuna, eta joan eskuinera edo ezkerrera iradokitako bilaketaesaldien zerrendan igotzeko edo jaisteko. Gero, sakatu pantaila bi aldiz webgunean bilaketa egiteko hautatutako esaldiarekin.

Nabigatzean irudiak ez bistaratzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver > Explorar imágenes. Irudirik ez bistaratzea edo deskribapenik ez dutenak ez bistaratzea aukeratu dezakezu.

Orria soiltzeko, irakurtzea eta nabigatzea errazagoa izan dadin: Hautatu Lector aukera Safariren helbide-eremuan (ez dago eskuragarri orrialde guztietan).

VoiceOver Mapas aplikazioarekin erabiltzea

VoiceOver erabil dezakezu leku bat arakatzeko, puntu interesgarriak bilatzeko, errepideei jarraitzeko, ikuspegia handitzeko edo txikitzeko, markatzailea bat hautatzeko edo leku bati buruzko informazioa eskuratzeko.

Mapa arakatzeko: Arrastatu hatza pantailan edo joan ezkerrera edo eskuinera, beste item bateraino.

Irudia gerturatzeko edo urrutiratzeko: Aukeratu mapa, doitu errotorea Zoomen, eta, gero, mugitu hatz batekin gora edo behera.

Mapa mugitzeko: Mugitu hiru hatzekin.

Ikusgai dauden puntu interesgarriak arakatzeko: Doitu errotorea "Puntos de interés" atalean, eta mugitu hatz batez gora edo behera.

Errepide bati jarraitzeko: Jarri hatza errepide baten gainean, eta itxaron "Pausa para segui" entzun arte. Gero, mugitu hatza errepidean, gidariaren tonua entzun bitartean. Tonua handitu egingo da errepidetik urruntzen zarenean.

Markatzaile bat hautatzeko: Ukitu markatzaile bat edo joan ezkerrera edo eskuinera, hautatzeko.

Kokapen bati buruzko informazioa lortzeko: Markatzaile bat hautatua duzula, sakatu birritan informazio-adierazlea bistaratzeko. Mugitu ezkerrerantz edo eskuinerantz "Más información" botoia hautatzeko, eta, ondoren, sakatu birritan informazio-orrialdea erakusteko.

Mugitu ahala kokapenari buruzko argibideak entzuteko: Aktibatu

norabidearen jarraipena kale-izenak eta puntu interesgarriak entzuteko haietara hurbildu ahala.

Bideoak eta ahots-oharrak editatzea VoiceOver erabiliz

VoiceOverren keinuak erabil ditzakezu kameraren bideoen eta ahotsoharren grabazioak laburtzeko.

Ahots-ohar bat mozteko: "Notas de voz" pantailan, hautatu laburtu nahi duzun oharraren eskuinean dagoen botoia, eta sakatu ibotoia birritan. Ondoren, hautatu "Acortar nota", eta sakatu birritan. Hautatu Acortar tresnaren hasiera edo amaiera. Egin gorantz, eskuinerantz arrastatzeko, edo beherantz, ezkerrerantz arrastatzeko. Une horretako kokapenaren arabera grabazioa zenbat laburtuko duen adieraziko dizu VoiceOverrek. Grabazioa laburtzeko, hautatu "Acortar nota de voz", eta sakatu birritan.

Bideo bat ebakitzeko: Fotos aplikazioan bideo bat bistaratu bitartean, sakatu pantaila bi aldiz bideo-kontrolak bistaratzeko, eta, gero, aukeratu Acortar tresnaren hasiera edo bukaera. Ondoren, egin gorantz, eskuinerantz arrastatzeko, edo beherantz, ezkerrerantz arrastatzeko. Une horretako kokapenaren arabera grabazioa zenbat laburtuko duen adieraziko dizu VoiceOverrek. Laburtzen amaitzeko, hautatu Cortar, eta sakatu birritan.

Nola kontrolatu VoiceOver Appleren haririk gabeko teklatu batekin

iPhonearekin lotutako Appleren haririk gabeko teklatu baten bidez kontrola dezakezu VoiceOver. Ikus **"Appleren haririk gabeko teklatua"**, 34 orrialdean.

VoiceOver teklatuaren komandoek aukera ematen dute pantailan barrena ibiltzeko, itemak hautatzeko, pantailaren edukia irakurtzeko, errotorea doitzeko eta VoiceOverren beste zenbait ekintza egiteko. Teklatuaren komando guztiek (batek izan ezik) Control + Opción aukera dute ("CO" laburtzapenarekin agertzen da hurrengo taulan.

VoiceOverren Ayuda funtzioak ozen irakurtzen ditu teklatuaren teklak edo komandoak, idatzi ahala. VoiceOverren Ayuda erabil dezakezu, halaber, teklatuaren antolaeraren nondik norakoak ezagutzeko eta teklakonbinazioen bidez egin daitezkeen ekintzen berri izateko.

VoiceOver teklatuaren komandoak

CO = Control + Opción

Dena irakurtzeko uneko kokapenetik hasita: CO + A

- Goitik behera irakurtzeko: CO + B
- Egoera-barrara joateko: CO + M
- Hasierako botoia sakatzeko CO + H
- Hurrengo edo aurreko itema aukeratzeko: CO + eskuinera gezia edo CO + ezkerrera gezia
- Item bat sakatzeko: CO + zuriune-barra
- Bi hatzez birritan sakatzeko: CO + "-"
- Errotoreko hurrengo edo aurreko itema aukeratzeko: CO + gora gezia edo CO + behera gezia
- Hizkuntza-errotoreko hurrengo edo aurreko itema aukeratzeko: CO + komandoa + ezkerrera edo CO + komandoa + eskuinera gezia
- Hizkuntza-errotorearen item bat doitzeko: CO + komandoa + gora gezia edo CO + komandoa + behera gezia
- VoiceOverren soinua aktibatzeko edo desaktibatzeko: CO + S
- Pantailaren errezela aktibatzeko edo desaktibatzeko: CO + Maiuskula + S
- VoiceOverren laguntza aktibatzeko: CO + K
- Aurreko pantailara itzultzeko edo VoiceOverren laguntza desaktibatzeko: Esc

Nabigazio azkarra

Aktibatu nabigazio-funtzioa, norabide-gezien bidez VoiceOver kontrolatzeko.

- Nabigazio azkarraren funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko: Ezkerrera gezia + eskuinera gezia
- Hurrengo edo aurreko itema aukeratzeko: Eskuinera gezia edo ezkerrera gezia
- Errotorearen doikuntzaren bidez zehaztutako hurrengo itema edo aurrekoa hautatzeko: Flecha arriba o flecha abajo
- · Lehen edo azken itema hautatzeko: Control + gora gezia edo Control
- + behera gezia
- Item bat sakatzeko: Gora gezia + behera gezia
- Gora, behera, ezkerrera edo eskuinera mugitzeko: Opción + gora gezia, Opción + behera gezia, Opción + ezkerrera gezia edo Opción + eskuinera gezia
- Errotorea aldatzeko: Gora gezia + ezkerrera gezia edo gora gezia + eskuinera gezia

Appleren haririk gabeko teklatuko teklak erabilita, telefono-zenbaki bat markatu edo kalkulagailuan zenbakiak sar ditzakezu.

Letra bakar bateko nabigazio azkarra Interneterako

Nabigazio azkarreko funtzioa aktibatuta dagoela webgune bat bistaratzen duzunean, teklatuko tekla hauek erabil ditzakezu orrialdean azkar mugitzeko. Tekla sakatzean, adierazitako motako hurrengo itemera joango da. Aurreko itemera joateko, luze sakatu maiuskula-tekla letra idaztean.

- Izenburua: H
- Esteka: L
- Testu-eremua: R
- Botoia: B
- Inprimaki-kontrola: C
- Irudia: I
- Taula: T
- Testu estatikoa: S
- ARIA erreferentzia-puntua: W
- Zerrenda: X
- Mota bereko itema: M
- 1. mailako goiburua: 1
- 2. mailako goiburua: 2
- 3. mailako goiburua: 3
- 4. mailako goiburua: 4
- 5. mailako goiburua: 5
- 6. mailako goiburua: 6

VoiceOverrekin Braille pantaila bat erabiltzea

Braille Bluetooth pantaila erabil dezakezu Braillen irakurtzeko VoiceOverren testu-irteera, eta Braille pantaila bat erabil dezakezu, sarrera-tekla eta beste kontrol batzuen bidez, iPhonea kontrolatzeko VoiceOver aktibatuta dagoela. Haririk gabeko Braille pantaila-modelo askorekin bateragarria da iPhonea. Hemen ikus dezakezu pantaila bateragarrien zerrenda bat: www.apple.com/es/accessibility/iphone/braille-display.html

Braille pantaila bat konfiguratzeko: Piztu pantaila, aukeratu Ajustes > Bluetooth, eta aktibatu bluetootha. Gero, aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver > Braille, eta hautatu pantaila.

Zortzi puntuko Braille sistema edo laburtua aktibatzeko edo desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver > Braille.

VoiceOverren nabigatzeko Brailleko ohiko komandoei buruzko informazioa eskuratzeko eta zenbait pantailatako informazio espezifikoa eskuratzeko, ikus http://support.apple.com/kb/HT4400?viewlocale=es_ES.

Braille pantailak **"Control por voz"** aukerarako zehaztutako hizkuntza erabiltzen du. Normalean, **Ajustes - Internacional - Idioma** atalean iPhonerako zehaztutako hizkuntza izaten da. VoiceOverren hizkuntzadoikuntza erabili dezakezu, VoiceOverrerako eta Braille pantailetarako beste hizkuntza bat ezarri nahi izanez gero.

VoiceOverrerako hizkuntza hautatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Internacional > "Control por voz", eta aukeratu hizkuntza.

iPhonearen hizkuntza aldatzen baduzu, baliteke VoiceOverrerako eta Braille pantailarako hizkuntza berrezarri behar izatea.

Braille pantailaren ezker- edo eskuin-bazterrean dagoen gelaxka erabil dezakezu, sistemaren egoera zein den jakiteko eta bestelako informazioa eskuratzeko:

- · Abisuen historiak irakurri gabeko mezu bat du
- Abisuen historiaren une honetako mezua ez da irakurri
- VoiceOverren hizketa-funtzioa geldiarazita dago
- iPhonearen bateria-maila txikia da (karga: % 20 baino gutxiago)
- iPhonearen orientazioa horizontalean dago
- Pantaila itzalita dago
- Uneko lerroak testu gehiago du ezkerrean
- Uneko lerroak testu gehiago du eskuinean

Ezker- edo eskuin-bazterreko gelaxkak egoerari buruzko informazioa adierazteko:

Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver > Braille > "Celda de estado", eta sakatu Izquierda edo Derecha.

Egoera-gelaxkari buruzko azalpen luzeagoa ikusteko: Braille pantailan, sakatu egoera-gelaxkaren kokatze-botoia.

Nola bideratu sarrerako deien audioa

Sarrerako deien audioa iPhonearen hargailura joan beharrean mikrofonoa edo bozgorailua duten entzungailu batzuetara desbideratzeko

aukera duzu.

Sarrerako deien audioa bideratzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > "Llamadas entrantes", eta aukeratu non entzun nahi dituzun zure deiak.

Siri

Siri erabiliz, zure iPhonearekin hainbat eragiketa egin ditzakezu, hala nola aplikazioak ireki eskatze hutsarekin. VoiceOverrek irakur ditzake Siriren erantzunak. Informazioa eskuratzeko, ikus 4. kapitulua, **"Siri"**, 51. orrialdean.

Hasierako botoia hiru aldiz sakatzea

Hasierak botoia hiru aldiz sakatzeko funtzioarekin, irisgarritasun-funtzio batzuk aktibatu edo desaktibatu ditzakezu hasierako botoia ⊖ hiru aldiz azkar sakatuta. Hasierako botoia hiru aldiz sakatuta, hauek erabil ditzakezu:

- VoiceOver
- Koloreak alderantzikatzea
- Zooma
- AssistiveTouch
- Audifono-kontrola

 Sarbide gidatua (hasierako botoian hiru aldiz klik eginez gero, funtzioa martxan jarriko da, aktibatuta badago. Ikus "Sarbide gidatua" atala, 172. orrialdean).

"Clic triple en Inicio" funtzioa doitzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > VoiceOver > Clic triple en Inicio. Bat baino gehiago aukeratuz gero, zein kontrolatu nahi duzun galdetuko zaizu hasierako botoia hiru aldiz sakatzen duzun bakoitzean.

Sakatzeko abiadura moteltzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > Velocidad de clic.

Zooma

Aplikazio askotan, item jakin batzuk gerturatzeko edo urrutiratzeko aukera dago. Esate baterako, Safarin web-orrialde bateko zutabeak handitu ditzakezu, birritan sakatuta edo atximur eginda. Zoom irisgarritasun-funtzioa ere badago; haren bidez, erabiltzen ari zaren edozein aplikazioren pantaila osoa handitu daiteke. Eta VoiceOverrekin ere erabil

dezakezu Zoom funtzioa.

Irudia gerturatzeko edo urrutiratzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > Zoom. Edo, bestela, erabili "Clic triple en Inicio". Ikus "Hasieran hiru aldiz sakatzea", 168. orrialdean.

Irudia gerturatzeko edo urrutiratzeko: Sakatu pantaila bi aldiz hiru hatzekin.

Handitze-maila aldatzeko: Hiru hatz erabiliz, sakatu eta arrastatu gora edo behera. Birritan sakatzeko keinuaren antzekoa da sakatu eta arrastatzeko keinua, baina honako honetan, bigarren sakaldian hatzak altxatu beharrean, pantailan arrastu behar dira. Arrastatzen hasten zarenean, hatz bakarrarekin arrastatu ahal izango duzu. iPhonea doitutako handitze-mailara itzuliko da bi hatzekin bi aldiz sakatzearen bidez urruntzen eta gerturatzen duzunean.

Pantailan mugitzeko: Pantaila handituta dagoela, arrastatu hiru hatzekin. Arrastatzen hasitakoan, hatz bakarra erabil dezakezu, pantailaren azalera handiagoa bistan izateko. Bestela, hatz bakar bat eduki pantailaren ertzetik hurbil, alde horretara mugitzeko. Gerturatu hatza ertzerantz, abiadura biziagoan mugitzeko. Beste pantaila bat irekitzean, pantailaren goialdera joko du zoomak.

Appleren haririk gabeko teklatu batekin zooma erabiliz gero (Ikus "Appleren haririk gabeko teklatua", 34. orrialdean), pantailako irudiak txertatze-puntuari jarraitzen dio, eta pantailaren erdialdean mantentzen du.

Testu handia

"Texto grande" aukeraren bidez, testuaren tamaina handitu dezakezu Calendario, Contactos, Mail, Mensajes eta Notas funtzioetako alertetan.

Testuaren tamaina doitzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > Texto grande.

Koloreak alderantzikatzea

Batzuetan, iPhonearen pantailako koloreak alderantzikatuz gero errazago irakurtzen da. **"Invertir colores"** aukera aktibatuta dagoenean, argazki baten negatiboa dirudi pantailak.

Pantailaren koloreak alderantzikatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > Invertir colores.

Hautatua irakurtzea

VoiceOver desaktibatuta dagoela ere posible da iPhoneak ozen irakurtzea zuk hautatzen dituzun testuak. iPhoneak testua analizatuko du zer hizkuntzatan dagoen zehazteko, eta dagokion ahoskera erabiliz irakurriko du.

"Leer selección" aktibatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > Leer selección. Hauek ere egin ditzakezu:

- Ahotsaren abiadura doitu
- Irakurtzean hitz guztiak nabarmentzea aukeratu

Sistemari testu bat irakurrarazteko: Aukeratu testua, eta sakatu Voz.

Testu automatikoa irakurtzea

Testua idatzi ahala iPhoneak egiten dituen zuzenketak eta iradokizunak irakurtzen ditu "Leer texto automático" funtzioak.

"Leer texto automático" aktibatzeko edo desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > Leer texto automático.

VoiceOver eta Zoom aukerekin ere erabil daiteke **"Leer texto automático"** funtzioa.

Audio monoa

"Audio mono" funtzioak mono seinale batean konbinatzen du ezkerreko eta eskuineko kanalen soinua, eta soinua bi kanaletan errepikatzen da. Mono seinalearen balantzea doitu dezakezu eskuineko edo ezkerreko irteerako bolumena doitzeko.

"Audio mono" aktibatu edo desaktibatu eta balantzea doitzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > Audio mono.

Audiofonoak

"Made for iPhone" audifonoak

"Made for iPhone" audifono bat baduzu (iPhone 4Srako eta modelo berriagoetarako daude eskuragarri), iPhoneko konfigurazioa doitu ahal izango duzu zure beharretara egokitzeko.

Audifonoaren konfigurazioa doitzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > Audifonos, edo doitu "Clic triple en Inicio" aukera audifono-kontrola irekitzeko. Ikus "Hasieran hiru aldiz sakatzea", 129. orrialdean.

Audifonoekiko bateragarritasuna

Komunikazio Batzorde Federalak (FCC, ingelesezko siglen arabera) audifonoekiko bateragarritasun-araudia (HAC) onartu du haririk gabeko telefono digitaletarako. Araudi horren arabera, zenbait telefonori probak egin behar zaizkie, eta Estatu Batuetako Normalizazioko Institutu Nazionaleko (ANSI, ingelesezko siglen arabera) C63.19-2007 audifonoekiko bateragarritasun-estandarren arabera ebaluatu behar dira.

Estatu Batuetako Normalizazioko Institutu Nazionalaren (ANSI, ingelesezko siglen arabera) audifonoen bateragarritasun-estandarrek bi sailkapen-mota dituzte:

 "M" sailkapena, irrati-frekuentziako interferentzia txikientzat; telefonobobina gisa funtzionatzen ez duten audifonoekiko akoplatze akustikoa egin daiteke.

• "T" sailkapena; telefono-bobina gisa funtzionatzen duten audifonoekiko akoplatze induktiboa egin daiteke.

Sailkapen horiek batetik laurako eskala batean oinarrituak dira (lauak bateragarritasunik handiena adierazten du) Telefono bat audifonoekiko bateragarria da, FCCren arauaren arabera, M3 edo M4 balioa badu akoplatze akustikorako eta T3 edo T4 balioa badu akoplatze induktiborako.

iPhonearen gaur egungo audifonoekiko bateragarritasun-balioak kontsultatzeko, ikus **support.apple.com/kb/HT4526?viewlocale=es_ES**.

Audifonoekiko bateragarritasun-balioek ez dute bermatzen audifono jakin bat eta telefono jakin bat bateragarriak direnik. Baliteke audifonoetako batzuek ondo funtzionatzea zenbait balio betetzen ez dituzten telefonoekin. Audifono batek eta telefono batek elkarrekin funtziona dezaketela bermatzeko, probatu batera erabiltzen ezer erosi aurretik.

Telefono honi hainbat proba eta ebaluazio egin zaizkio audifonoekiko erabilera dela eta (telefonoak erabiltzen dituen haririk gabeko teknologia batzuei dagokienez). Edonola era, baliteke telefono honetan erabiltzen diren haririk gabeko teknologia berrienak audifonoekin batera probatu gabeak izatea. Garrantzitsua da telefono honen funtzioak arretaz eta leku desberdinetan aztertzea audifonoarekin edo kokleako inplantearekin, interferentziaren bat entzuten den ala ez jakiteko. Galdetu zure zerbitzu-homitzaileari edo Appleri audifonoekiko bateragarritasunari buruzko informazioa eskuratzeko. Itzulketa- edo aldaketa-politikei buruzko galderaren bat baduzu, galdetu zure zerbitzu-hornitzaileari edo zure telefonia-dendan.

Entzumen-laguntzako modua

iPhoneak entzumen-laguntzako modu bat du. Hura aktibatzean,

audifono-modelo batzuekiko interferentziak murritz daitezke. Entzumenlaguntzako moduak murriztu egiten du irrati-komunikazio mugikorren transmisio-potentzia GSMko 1900 MHz-eko bandan, eta baliteke 2G mugikor-estaldura murriztea ere.

Entzumen-laguntzako modua aktibatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > Audífonos.

Eslei daitezkeen dei-tonuak eta bibrazioak

Kontaktuen zerrendako pertsonei dei-tonu bereizgarriak eslei diezazkiekezu, doinuaren bidez nork deitzen dizun jakin ahal izateko. Hauei ere eslei diezazkiekezu bibrazio-sekuentziak: aplikazio espezifikoen jakinarazpenei, FaceTimeko deiei edo kontaktu berezietatik jasotzen dituzun mezuei. Beste zenbait gertaeraren berri ere eman diezazukete, hala nola ahots-mezu berriak, mezu elektroniko berriak, mezu elektronikoen bidalketa, Twitter edo Faceboekeko argitalpenak eta gogorarazpenak. Aukeratu lehendik dauden sekuentzietako bat edo sortu sekuentzia berriak. Ikus **"Soinuak"**, 190. orrialdean.

iTunes Store dendan hainbat tonu dituzu aukeran, eta iPhonetik bertatik eros ditzakezu. Ikus 22. kapitulua, **"iTunes Store denda"**, 127. orrialdean.

Alertetarako keinuak

Sarrerako deiak eta bestelako alertak iragartzen dituzten soinuak entzun ezin badituzu, iPhonearen argi-adierazleari keinu eginaraz diezaiokezu (kameraren lentearen alboko adierazlea, iPhonearen atzealdean dagoena). iPhonea blokeatuta edo egunean dagoenean soilik funtzionatzen du. iPhone 4rako eta modelo berriagoetarako dago eskuragarri.

Alertetarako keinuak aktibatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > Parpadeo para las alertas.

Sarbide gidatua

Sarbide gidatuak lan jakin batean aritzen laguntzen dio erabiltzaileari. Sarbide gidatuak aplikazio bakarra erabiltzeko aukera ematen dio iPhoneari, eta aukera ematen dio kontrolatzeko aplikazioaren zer funtzio jarri eskuragarri. Erabili sarbide gidatua hauetarako:

- iPhonearen erabilera aplikazio jakin batera mugatzeko.
- Zeregin baterako beharrezkoak ez diren pantailako eremuak edo nahi gabe egindako keinu batek arreta galtzea eragin dezakeen eremuak desaktibatzeko.
- iPhonearen botoi fisikoak desaktibatzeko.

Sarbide gidatua erabiltzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > Acceso Guiado. Aukera hauek dituzu:

- Sarbide gidatua aktibatu edo desaktibatu
- Sarbide gidatuaren erabilera kontrolatzen duen eta erabiltzaileak saio bat aktibo uztea eragozten duen kode bat ezarri
- · Saio bat martxan dagoela egonean gera daitekeen ala ez ezartzeko

Sarbide gidatuko saio bat hasteko: Ireki exekutatu nahi duzun aplikazioa, eta sakatu hiru aldiz hasierako botoia. Doitu saioaren konfigurazioa, eta, gero, sakatu Iniciar.

- Aplikazioaren pantailako kontrolak eta eremuak desaktibatzeko: Inguratu biribil batekin desaktibatu nahi duzun pantailako edozein zati. Tira egiteko puntuak erabil ditzakezu eremua doitzeko.
- · Pantailako ukitu guztiei ezikusi egiteko: Desaktibatu Tacto aukera.
- iPhonea orientazio bertikaletik horizontalera alda ez dadin eta beste mugimenduei erantzun ez diezaien: Desaktibatu **Movimiento**.

Sarbide gidatuko saio bat amaitzeko: Sakatu hiru aldiz hasierako botoia, eta sartu sarbide gidatuko kodea.

AssistiveTouch

AssistiveTouchek iPhonea erabiltzen laguntzen dizu zailtasunak badituzu pantaila ukitzeko edo botoiak sakatzeko. Egokitzeko osagarri bateragarri bat erabil dezakezu (joystick bat, adibidez) AssistiveTouch ekin batera iPhonea kontrolatzeko. Osagarririk gabe ere erabil dezakezu Assistive-Touch keinu zailenak egiteko.

AssistiveTouch aktibatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > AssistiveTouch. "Clic triple en Inicio" funtzioa doitzeko AssistiveTouch aktibatu edo desaktibatu dezan, aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > Clic triple en Inicio.

Mugimendu-abiadura doitzeko (osagarri bat konektatuta): Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > AssistiveTouch > Velocidad del cursor.

AssistiveTouch menua bistaratzeko edo ezkutatzeko: Sakatu zure osagarriaren bigarren mailako botoia.

Menu-botoia mugitzeko: Arrastatu pantailaren edozein ertzetara.

Menu-botoia ezkutatzeko (osagarri bat konektatuta): Aukeratu Ajustes > General > Accesibilidad > AssistiveTouch > Mostrar menú siempre.

2, 3, 4 edo 5 hatz erabiliz mugitzeko edo arrastatzeko: Sakatu menu-

botoia, sakatu **Gestos**, eta, gero, sakatu keinua egiteko sakatu beharreko digituak. Pantailan biribilak bistaratzen direnean, egin mugimendu bat edo arrastatu keinuak eskatzen duen norabidean. Bukatzen duzunean, sakatu menu-botoia.

Atximur-keinu bat egiteko: Sakatu menu-botoia, sakatu Favoritos, eta, gero, sakatu Pellizcar. Atximur egiteko biribilak bistaratzen direnean, sakatu pantailaren edozein zati atximur-biribilak mugitzeko, eta, gero, arrastatu atximur-biribilak barrura edo kanpora atximur-keinua egiteko. Bukatzen duzunean, sakatu menu-botoia.

Zeure keinua sortzeko: Sakatu menu-botoia, sakatu Favoritos, eta, gero, sakatu keinu-markatzaile huts bat. Edo, bestela, sakatu Ajustes > General > Accesibilidad > AssistiveTouch > Crear nuevo gesto.

Pantaila blokeatzeko edo biratzeko, iPhonearen bolumena doitzeko edo hura astintzea simulatzeko: Sakatu menu-botoia eta, jarraian, sakatu Dispositivo.

Hasierako botoia sakatzea simulatzeko: Sakatu menu-botoia eta, jarraian, sakatu Inicio. Keinurik egin gabe menu batetik irteteko: Sakatu menutik kanpoko edozein leku.

Irisgarritasuna OS Xn

iTunes erabiltzen ari zarela Mac OS X-ko irisgarritasun-funtzioak balia ditzakezu, iTuneseko liburutegiko informazioa eta edukia iPhonearekin sinkronizatzeko. Finderrean, aukeratu **Ayuda > "Centro de ayuda"**, eta bilatu **"accesibilidad"**.

iPhonearen eta OS Xren irisgarritasun-funtzioei buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus www.apple.com/es/accessibility. www.apple.com/ mx/accessibility edo www.apple.com/la/accessibility.

TTY bateragarritasuna

TTY kable egokigailu bat erabil dezakezu (leku askotan bereiz saltzen da) iPhonea teletipo batera konektatzeko (TTY). Sartu www.apple.com/es/ store edo store.apple.com/mx webguneetan (baliteke leku guziteatn ez egotea eskuragarri), edo galdetu zure ohiko Apple dendan.

iPhonea teletipo batera konektatzeko: Aukeratu Ajustes > Teléfono, eta aktibatu TTY aukera. Ondoren, konektatu iPhonea TTY ekipamendura, iPhonerako TTY egokigailuaren bidez.

iPhonean TTY aktibatuta dagoenean, TTY ikonoa bistaratzen da pantailaren goiko aldeko egoera-barran. TTY ekipamendu jakin bat nola erabili jakiteko, irakurri gailuaren argibideak.

Mezu elektronikoetako gutxieneko letra-tamaina

Mezuak errazago irakurri ahal izateko, testuaren gutxieneko letratamaina doitu dezakezu. **Grande, Enorme** edo **Gigante** dituzu aukeran.

Mezu elektronikoetako gutxieneko letra-tamaina doitzeko: Aukeratu Ajustes > Correo, contactos, calendarios > Tamaño letra mínimo.

"Texto grande" doikuntzak baliogabetu egiten du gutxieneko letratamaina.

Eslei daitezkeen tonuak

Kontaktuen zerrendako pertsonei dei-tonu bereizgarriak eslei diezazkiekezu, doinuaren bidez nork deitzen dizun jakin ahal izateko. iTunes Store dendan hainbat tonu dituzu aukeran, eta iPhonetik bertatik eros ditzakezu. Ikus 22. kapitulua, **"iTunes Store denda"**, 127. orrialdean.

Irudi bidezko ahots-postontzia

Irudi bidezko ahots-postontziaren erreprodukzio- eta eten-kontrolen bitartez, mezuen erreprodukzioa kontrola dezakezu. Mezuaren zati bat ulertu ez baduzu, arrastatu erreprodukzio-kurtsorea erreprodukzio-barran, zati hori errepikatzeko. Ikus **"Irudi bidezko ahots-postontzia"** 67. orrialdean.

Teklatu panoramikoak

Aplikazio batzuek (**Mail, Safari, Mensajes, Notas** eta **Contactos** aplikazioek, esaterako) idaztean iPhonea biratzeko aukera ematen dute, teklatu handiagoa izan dezazun.

Telefono-teklatu handia

Kontaktuen eta gogokoen zerrendetako sarrerak sakatuta egin ditzakezu deiak. Telefono-zenbakia markatu nahi baduzu ere, erraz-erraza da iPhonearen zenbaki-teklatuaren bidez. Ikus **"Telefono-deiak"**, 61. orrialdean.

Ahots bidezko kontrola

Ahots bidez kontrolatzeko funtzioarekin telefono-deiak egin ditzakezu, eta musika-erreprodukzioa kontrolatu ahots-komandoen bidez. Ikus "Deiak egitea", 61. orrialdean, eta "Siri eta ahots bidezko kontrola", 88. orrialdean.

Azpitituluekin

Bideoetarako azpitituluak aktibatzeko: Aukeratu **Ajustes > Vídeos > Con** subtítulos. Bideo-eduki guztiek ez dituzte izaten azpitituluak.

33 Doikuntzak



Ajustes aplikazioak aukera ematen dizu iPhonea konfiguratzeko aplikazioen aukerak doitzeko, kontuak gehitzeko eta beste lehenespen batzuk konfiguratzeko. Ikus beste kapitulu batzuk aplikazio integratuen doikuntzei buruzko informazioa eskuratzeko. Adibidez, Safariren doikuntzen berri izateko, ikus 7. kapitulua, **"Safari"**, 78. orrialdean.

Hegazkin-modua

Hegazkin-moduak haririk gabeko funtzioak desaktibatzen ditu, interferentzien eraginez hegazkinaren edo beste ekipamendu elektriko batzuen funtzionamenduan trabarik gerta ez dadin.

Hegazkin-modua aktibatzeko: Aukeratu Ajustes, eta aktibatu hegazkinmodua.

Hegazkin-modua aktibatuta dagoenean, ikurra bistaratzen da pantailaren goialdeko egoera-barran, Ez da seinalerik emititzen iPhonetik (telefonoa, WiFi-a, bluetootha), eta GPS datuak jasotzeko aukera desaktibatzen da. Ezin dira erabili seinale horien mende dauden aplikazioak edo funtzioak (Internetera konektatzea, telefono-deiak eta mezuak bidatzea eta jasotzea, irudi bidezko ahots-postontzia kontsultatzea eta abar). Hegazkin-operadoreak eta aplika daitekeen legeriak edo araudiak onartzen badu, iPhonea eta seinale horiek behar ez dituzten aplikazioak erabili ahal izango dituzu.

WiFi bidezko konexio bat eskuragarri badago eta hegazkin-operadoreak eta indarrean dagoen legeriak edo araudiak horretarako baimena ematen badu, aukeratu **Ajustes > Wi-Fi**, aktibatzeko. Bluetootha aktibatzeko, sakatu **Ajustes > Bluetooth**.

WiFi-a

WiFi sareetara konektatzea

iPhonea Internetera konektatzeko tokian tokiko WiFi sareak noiz ari den erabiltzen zehazten dute WiFi doikuntzek. iPhonea WiFi sare batera konektatuta dagoenean, seinaleak zenbateko indarra duen adieraziko du pantailaren goialdeko egoera-barran dagoen WiFi ≈ ikonoak. Zenbat eta barra gehiago agertu, orduan eta indartsuagoa izango da seinalea. WiFi sarerik erabilgarri ez badago edo WiFi konexioa desaktibatua baduzu, iPhonea telefonia mugikorreko datu-sarearen bidez konektatuko da Internetera, sare hori erabiltzerik badago.

WiFi sarera lehen aldiz konektatu ondoren, aurrerantzean automatikoki konektatuko da sare horretara, haren irismen-eremuan dagoenean. Aurretiaz erabilitako sare bat baino gehiago badago irismen-eremuaren barruan, azkenezkoz erabilitako horretara konektatuko da iPhonea.

Zure etxerako edo bulegorako WiFi zerbitzuak emateko AirPort oinarrizko estazio bat konfiguratzeko ere erabil dezakezu iPhonea. Ikus **"AirPort oinarrizko estazio bat konfiguratzea"**, 177. orrialdean.

WiFi funtzioa aktibatzeko eta desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > Wi-Fi. Aukera hauek dituzu:

 iPhonea doitzeko, beste sare batera konektatu nahi duzun galde dezan: Aktibatu edo desaktibatu "Preguntar al conectar". "Preguntar al conectar" aukera desaktibatuta badago eta aurrez erabilitako sareetako bat ere ez badago eskuragarri, eskuz sartu beharko duzu sare batera Internetera konektatzeko

 Itxita dagoen WiFi sare batera konektatzeko: Sare-izenen zerrendan, sakatu Otras, eta idatzi sare itxiaren izena. Itxita dagoen sare batera konektatzeko, aurretiaz jakin behar dituzu haren izena, pasahitza eta segurtasun-mota.

 WiFi sare batera konektatzeko doikuntzak konfiguratzeko: Sakatu sare baten alboan. HTTP proxy bat defini dezakezu, sare estatikoko doikuntzak definitzeko edo DHCP zerbitzari batek emandako doikuntzak berritzeko.

AirPort oinarrizko estazio bat konfiguratzea

AirPort oinarrizko estazioak WiFi bidezko konexioa ematen dio zure etxeko, eskolako edo enpresa txikiko sareari. iPhonea erabil dezakezu AirPort Express, AirPort Extreme edo Time Capsule oinarrizko estazio bat konfiguratzeko.

AirPort konfigurazio-laguntzailea erabiltzeko: Aukeratu Ajustes > Wi-Fi. "Configurar una estación base AirPort" barruan, sakatu konfiguratu nahi duzun oinarrizko estazioaren izena. Gero, segitu pantailan agertuko diren jarraibideei. Konfiguratu nahi duzun oinarrizko estazioa zerrendan agertzen ez bada, ziurtatu elikadura duela, irismen-erradioaren barruan dagoela eta ez dagoela lehendik konfiguratuta. Oinarrizko estazio berriak edo berrezarriak soilik konfigura ditzakezu. AirPort oinarrizko estazioen modelo zahar batzuk ezin dira konfiguratu iOS gailuak erabilita. Konfigurazio-jarraibideak ikusteko, kontsultatu oinarrizko estazioarekin batera zetorren dokumentazioa.

AirPort sare bat kudeatzeko: iPhonea AirPort oinarrizko estazio batera konektatuta badago, sakatu ②, sare-izenaren alboan. Oraindik ez bada deskargatu AirPort utilitatea, App Store irekiko da lortu ahal izateko.

Bluetootha

iPhonea Bluetooth gailuetara konekta daiteke haririk erabili gabe; hala, esku libreko gailuak, aurikularrak eta automobileko kitak erabili ahal izango dituzu, eskuak erabili beharrik gabe musika entzuteko edo hitz egiteko. Appleren haririk gabeko teklatua ere konekta dezakezu bluetooth bidez. Ikus "Appleren haririk gabeko teklatua", 34. orrialdean.

Bluetootha aktibatzeko edo desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > Bluetooth.

Bluetootha darabilen gailu batera konektatzeko: Sakatu gailua, gailuzerrendan, eta jarraitu pantailan bistaratzen diren jarraibideei hara konektatzeko. Ikus gailuaren dokumentazioa, bluetooth bidezko loturak ezartzeari buruzko jarraibideak ikusteko.

VPN

Zure enpresak VPN bat erabil dezake pribatua ez den sare baten bidez informazio pribatua segurtasunez trukatzeko. Esate baterako, VPN bat konfiguratu beharra izan dezakezu, zure laneko posta elektronikoan sartzeko. iPhonean sare pribatu birtual bat edo VPN bat konfiguratzen denean agertzen da doikuntza hau, eta hura aktibatzeko edo desaktibatzeko aukera ematen du. Ikus **"Datu mugikorrak"**, 183. orrialdean.

Internet partekatzea

Compartir Internet (iPhone 4 edo modelo berriagoak) erabil dezakezu Interneteko konexio bat partekatzeko zure iPhoneari WiFi bidez konektatuta dagoen ordenagailu batekin edo eta WiFi-a darabilen beste gailu batekin (iPod touch bat, iPad bat edo beste iPhone bat). iPhoneari bluetooth edo USB bidez lotuta dagoen ordenagailu batekin Interneteko konexioa partekatzeko ere erabil dezakezu **Compartir Internet**. iPhonea telefonia mugikorreko datu-sare baten bidez Internetera konektatuta badago soilik funtzionatuko du **Compartir Internet** funtzioak.

Oharra. Baliteke funtzio hau leku guztietan erabilgarri ez egotea. Baliteke erabilera horregatik tarifa osagarriak ezartzea. Jarri harremanetan telefonia-operadorearekin horri buruzko informazio gehiago jasotzeko.

Interneteko konexioa partekatzeko: Aukeratu Ajustes > General > "Datos móviles", eta, gero, sakatu "Configurar Compartir Internet" (bistaratzen bada) zure operadorearekin zerbitzua konfiguratzeko.

Compartir Internet aktibatu ondoren, beste gailu batzuk konektatu ahal izango dira, honela:

• WiFi-a: Aukeratu zure iPhonea gailuan bistaratzen den WiFi sare eskuragarrien zerrendan.

 USBa: Konektatu iPhonea ordenagailura gailuarekin datorren kablearen bidez. Zure ordenagailuko sareko lehentasunen panelean, aukeratu iPhonea, eta konfiguratu sareko doikuntzak.

 Bluetootha: iPhonean, aukeratu Ajustes > Bluetooth, eta aktibatu Bluetooth. iPhonea zure gailuari lotzeko eta konektatzeko, ikus ordenagailuarekin batera zetorren dokumentazioa.

Gailu bat konektatuta dagoenean, iPhonearen pantailaren goiko aldean banda urdin bat bistaratuko da. **Compartir Internet** aukera aktibatuta egongo da USB bidez konektatzean, Interneteko konexioa modu aktiboan erabiltzen ari ez bazara ere.

Oharra. Compartir Internet aukeraren ikonoa **&** bistaratzen da **Compartir Internet** funtzioa erabiltzen duten gailuen egoera-barran.

iPhonearen WiFi-rako pasahitza aldatzeko: Aukeratu Ajustes > Compartir Internet > "Contraseña Wi-Fi", eta sartu gutxienez 8 karaktereko pasahitz bat.

Telefonia mugikorreko datu-sarearen erabilera gainbegiratzea: Aukeratu Ajustes > General > Uso > "Uso de la red móvil".

Ez molestatzeko modua eta jakinarazpenak

"Push" jakinarazpenak jakinarazpen-zentroan bistaratzen dira, eta nobedadeen berri ematen dute, nahiz eta lotutako aplikazioa martxan ez egon. Jakinarazpenak aldatu egiten dira aplikazio batetik bestera: testu edo soinu bidezko abisuak izan ditzakete, baita bunbuilo zenbakidun bat ere, pantaila nagusiko aplikazioaren ikonoan.

Jakinarazpen guztiak desaktibatzeko: Zoaz Ajustes atalera, eta aktibatu ez molestatzeko modua. Modu hori aktibatuta eta iPhonea blokeatuta daudela, jakinarazpen eta dei guztiak isilarazi egingo dira, baina alarmek soinua izaten jarraituko dute. **Ajustes > Notificaciones > No molestar** atalean, aukera hauek konfigura ditzakezu:

 Ez molestatzeko modua automatikoki aktibatzeko: Zehaztu inork zu molestatzerik nahi ez duzun denbora-tartearen hasiera- eta amaieraorduak. iPhonea ez molestatzeko moduan aktibatuko da ordu horietan egunero.

 Ez molestatzeko moduan dei batzuek soinua izan dezaten: Ez molestatzeko modua aktibatuta badago, deiak isilarazi egingo dira, eta ahotspostontzira bidaliko dira. Zenbait pertsonaren deiek soinua izan dezaten, sakatu "Permitir llamadas de". Zure gogoko-zerrendakoen deiak edo definitzen dituzun beste kontaktu-talde batzuenak jasotzeko baimena eman dezakezu. Gogokoei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus 25. kapitulua, "Kontaktuak", 135. orrialdean.

 Behin eta berriro deitzen ari direnen deiek soinua izan dezaten: Aktibatu "Ilamadas repetidas". Pertsona berak (dei-identifikazioan oinarrituta) bi aldiz deitzen baditu hiru minutuko tarte batean, iPhoneak soinua izango du.

Aplikazio baten jakinarazpenak aktibatzeko edo desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Notificaciones. Sakatu zerrendako item bat, eta aktibatu edo desaktibatu item horretarako jakinarazpenak. Jakinarazpenak desaktibatuak dituzten aplikazioak "Fuera del centro de notificaciones" zerrendan bistaratuko dira.

Jakinarazpenak bistaratzeko modua aldatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Notificaciones. Aukera hauek dituzu:

 Jakinarazpen-kopurua aldatzeko: Aukeratu item bat "En el centro de notificaciones" zerrendatik. Jakinarazpen-zentroan horrelako zenbat jakinarazpen bistaratuko diren definitzeko, sakatu Mostrar.

 Alerta-estiloak aldatzeko: Aukeratu item bat "En el centro de notificaciones" zerrendatik. Aukeratu alerta-estilo bat, edo hautatu Ninguna, alertak eta zerrendak desaktibatzeko. Jakinarazpenek bistaratzen jarraituko dute jakinarazpen-zentroan.

 Jakinarazpenen hurrenkera aldatzeko: Sakatu Editar. Arrastatu jakinarazpenak nahi duzun hurrenkeran. Jakinarazpen bat desaktibatzeko, arrastatu "Fuera del centro de notificaciones" zerrendara.

 Bunbuilo zenbakidunak bistaratzeko jakinarazpenak dituzten aplikazioetan: Aukeratu item bat "En el centro de notificaciones" zerrendatik, eta aktibatu "Globos en los iconos".

· Aplikazio baten alertarik ez bistaratzeko iPhonea blokeatuta
dagoenean: Aukeratu aplikazioa "En el centro de notificaciones" zerrendatik, eta desaktibatu "Ver en la pantalla bloqueada".

Aplikazio batzuek aukera gehigarriak dituzte. Adibidez, Mensajes aplikazioan zehaztu egin dezakezu zenbat aldiz errepikatu behar den alerta-soinua eta jakinarazpenean mezuaren aurrebistak egin behar diren ala ez.

Facebookeko argitalpenak eta Twitterreko mezuak ezabatzeko jakinarazpen-zentrotik: Facebookeko edo Twitterreko kontuak konfiguratu badituzu soilik bistaratuko dira partekatze-aukera horiek. Botoi horiek ezabatzeko, aukeratu Ajustes > Notificaciones, eta desaktibatu Compartir widqeta.

Gobernu-alertak bistaratzeko jakinarazpen-zentroan: Aukeratu zer alerta ikusi nahi dituzun "Alertas gubernamentales" zerrendatik. Gobernu-alertak ez daude eskuragari leku guzietan; aldatu egiten dira operadorearen eta iPhonearen modeloaren arabera, eta baliteke ez funtzionatzea kondizio guzitetan. Adibidez, Estatu Batuetan, iPhone 4S modeloak eta modelo berriagoek gobernu-alertak jaso ditzakete, eta AMBER alertak eta larrialdi-alertak (alerta larriak eta berehalako mehatxuen alertak barne) aktibatzeko edo desaktibatzeko aukera duzu. Japonian, iPhone 4 modeloak eta berriagoek Japoniako Meteorologia Agentziaren lurrikaretarako larrialdi-alertak jaso ditzakete.

Operadorea

GSM sareetan, doikuntza hau bistaratzen da zure ohiko saretik kanpo zaudenean eta tokiko operadoreen beste datu-sare batzuk daudenean zure telefono-deietarako, irudi bidezko ahots-postontzirako edo telefonia mugikorreko sareen bidezko Interneteko konexioetarako. Zure operadorearekin desplazamendu-kontratu bat aktibo duten operadoreekin soilik egin ahal izango dituzu deiak. Baliteke tarifa gehigarriak aplikatzea. Baliteke beste operadoreak desplazamendu-tarifak aplikatzea zure operadorearen bidez.

Operadore bat hautatzeko: Aukeratu Ajustes > Operador, eta, gero, hautatu erabili nahi duzun sarea.

Sarea hautatu ondoren, iPhoneak sare hori baino ez du erabiliko. Sarea eskuragarri ez badago, **"Sin servicio"** bistaratuko da iPhonean.

Orokorra

Doikuntza orokorrek hauek hartzen dituzte aintzat: sarearen konfigurazioa, erabilera partekatua, segurtasuna eta beste doikuntza batzuk. Doikuntzen panelean, halaber, iPhoneari buruzko informazioa aurkituko duzu, eta, horrez gain, iPhonearen zenbait doikuntza berrezartzeko aukera ere baduzu.

iPhoneari buruz

iPhoneari buruzko informazioa bistaratzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Información. Datu hauek ikus ditzakezu:

- eskuragarri dagoen biltegiratze-espazioa
- serie-zenbakia
- iOS bertsioa
- sareko helbideak
- IMEI kodea (ekipo mugikorraren nazioarteko identitatea)
- ICCID zenbakia (zirkuitu integratutako txartel-identifikatzailea edo txartel adimenduna), GSM sareetarako
- MEID zenbaki (ekipo mugikorretarako identifikatzailea), CDMA sarreretarako
- araudiak eskatzen dituen lege-oharrak, lizentziak eta markak

Serie-zenbakia eta beste identifikatzaile batzuk kopiatzeko, luze sakatu identifikatzailea, Copiar aukera bistaratu arte.

Gailuaren izena aldatzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Información, eta, gero, sakatu Nombre. Gailuaren izena alboko barran bistaratuko da iTunesera konektatzen zarenean eta iCloud erabiltzen ari zarenean.

Appleri bere produktu eta zerbitzuak hobetzen laguntzeko, iPhoneak diagnostiko- eta erabilera-datuak bidaltzen ditu. Datu horiek ez zaituzte pertsonalki identifikatzen, baina baliteke kokapen-informazioa izatea.

Diagnostiko-informazioa ikusteko edo desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Información > Diagnóstico y uso.

Softwarea eguneratzea

Softwarea eguneratuz, Appletik iOS eguneraketak deskargatzeko eta instalatzeko aukera duzu.

iOSren azken bertsiora eguneratzeko: Aukeratu Ajustes > General > Actualización de Software.

iOS bertsio berri bat badago eskuragarri, jarraitu pantailako argibideei deskargatzeko eta instalatzeko.

Erabilera

Erabilera-informazioa ikusteko: Aukeratu Ajustes > General > Uso. Aukera hauek dituzu:

datu mugikorren erabilera ikusi eta estatistikak berrezarri

 iClouden segurtasun-kopiak ikusi eta ezabatu, Carrete aukeraren segurtasun-kopiak egitea desaktibatu eta biltegiratze-leku gehigarria eskuratu

- aplikazio bakoitzaren biltegiratzea ikusi
- bateria-maila ehuneko gisa bistaratu
- · iPhonea kargatu denetik zenbat denbora igaro den ikusi

Siri

Siri aktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Siri.

Siri erabiltzeari eta Siriren doikuntzak aldatzeari buruzko informazioa eskuratzeko, ikus **"Nola doitu Siriren aukerak"**, 43. orrialdean.

Datu mugikorrak

Erabili "Datos móviles" doikuntzak datu mugikorrak eta desplazamendua aktibatzeko edo desaktibatzeko, "Compartir Internet" konfiguratzeko eta datu mugikorren aukerak doitzeko.

Aplikazio batek Internet erabili beharra duenean, iPhoneak eragiketa hauek egiten ditu, ordena honetan, konexioa ezarri arte:

- Eskuragarri dauden WiFi sareen artean, erabili den azkenaren bidez konektatzen da.
- Irismen-erradioko WiFi sareen zerrenda bat bistaratzen du, eta zuk aukeratzen duzuna erabiliz konektatzen da.
- Telefonia mugikorreko datu-sarearen bidez konektatzen da, eskuragarri badago.

iPhonea Internetera konektatuta badago datu-sare mugikorraren bidez, egoera-barran LTE, 4G, 3G, E edo o ikonoa bistaratuko da.

Telefonia mugikorreko GSM sareen LTE, 4G eta 3G zerbitzuek aukera ematen dute aldi berean ahots- eta datu-komunikazioak erabiltzeko. Telefonia mugikorreko gainerako konexioekin ezingo dituzu erabili Interneteko zerbitzuak telefonoz hitz egin bitartean, iPhoneak Interneteko WiFi konexio bat izan ezean. Eskuragarri dagoen sare-konexioaren arabera, baliteke deiak jasotzerik ez izatea iPhonea telefonia mugikorreko datu-saretik datuak transferitzen ari den bitartean (adibidez, webgune bat deskargatzen ari den bitartean).

GSM sareak: EDGE edo GPRS konexio batean, baliteke sarrerako deiak zuzenean ahots-postontzira joatea datuak transferitzeko eragiketetan. Sarrerako deiei erantzuten diezunean, datu-transferentziako eragiketak gelditu egingo dira.

CDMA sareak: EV-DO konexioetan, datuak transferitzeko eragiketak gelditu egingo dira aldi baterako sarrerako deiei erantzuten diezunean. 1xRTT konexio batean, baliteke sarrerako deiak zuzenean ahots-postontzira joatea datuak transferitzeko eragiketetan. Sarrerako deiei erantzuten diezunean, datu-transferentziako eragiketak gelditu egingo dira.

Datu-transferentzia berriro martxan jarriko da deia amaitzen duzunean.

Telefonia mugikorreko datuak desaktibatuta badaude, datu-zerbitzu guztiek WiFi konexioa soilik erabiliko dute, bai eta posta elektronikoak, Interneteko nabigazioak, "push" jakinarazpenek eta gainerakoek ere. Telefonia mugikorreko datuak aktibatuta badaude, baliteke operadoreak haiei dagokien tarifa aplikatzea. Adibidez, zenbait funtzio eta zerbitzuk datuak transferitzen dituzte (Sirik eta Mensajes funtzioak, adibidez), eta funtzio eta zerbitzu horiek erabiltzeak eragina izan lezake zure datuplanaren tarifetan.

Telefonia mugikorreko datuak aktibatzeko edo desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > General > "Datos móviles", eta, gero, aktibatu edo desaktibatu "Datos móviles". Baliteke aukera hauek ere eskuragarri egotea:

 Roaming-eko ahotsa aktibatzeko edo desaktibatzeko (CDMA): Desaktibatu "Itinerancia de voz" beste operadore batzuen sareen erabileraren ondoriozko gasturik ez izateko. Zure operadorearen sarea eskuragarri ez badago, iPhoneak ez du izango telefonia mugikorreko zerbitzurik (datuak edo ahotsa).

 Roaming-eko datuak aktibatzeko edo desaktibatzeko: Roaming-eko datuek Interneteko sarbidea aktibatzen dute, telefonia mugikorreko datu-sarearen bidez, zure operadorearen saretik kanpoko eremuren batean zaudenean. Kanpoan zabiltzanean, Roaming-eko datuak desaktiba ditzakezu, Roaming-eko tarifarik ez fakturatzeko. Ikus "Operadorea", 139. orrialdean.

 3G aktibatzeko eta desaktibatzeko: 3G erabilita, zenbaitetan, arinago kargatu ahalko dituzu Interneteko datuak; bateriaren errendimendua murriztu egiten da, ordea. Telefono-dei ugari egiten baduzu, agian 3G funtzioa desaktibatzea komeni zaizu, bateriak luzeago irauteko. Aukera hori ez dago erabilgarri leku guztietan.

"Compartir Internet" konfiguratzeko: Aukeratu Ajustes > General > Red > "Configurar Compartir Internet". "Compartir Internet" funtzioak iPhoneko konexioa partekatzen du zure ordenagailuarekin eta beste iOS gailu batzuekin. Ikus **"Internet partekatzea"**, 138. orrialdean.

Datu mugikorrak noiz erabili konfiguratzeko: Aukeratu Ajustes > General > "Datos móviles", eta aktibatu edo desaktibatu datu mugikorrak iCloudeko dokumentuetarako, iTuneserako, FaceTimerako, Passbooken eguneraketetarako edo irakurketa-zerrendarako. Doikuntza horiek desaktibatuta badaude, iPhoneak WiFi sarea soilik erabiliko du. iTunesek iTunes Match eta iTunes Store eta App Storeko deskarga automatikoak ditu.

VPN

VPNak enpresetan erabiltzen dira, pribatua ez den sare baten bidez informazio pribatua segurtasunez trukatzeko. Esate baterako, VPN bat konfiguratu beharra izan dezakezu, zure laneko posta elektronikoan sartzeko. Eskatu sare-administratzaileari zure sarean VPN bat konfiguratzeko doikuntzak. VPNko konfigurazio bat edo gehiago definitu ondoren, aukera hauek izango dituzu:

- VPNa aktibatzeko edo desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > VPN.
- VPN batetik bestera aldatzeko: Aukeratu Ajustes > General > VPN, eta hautatu konfigurazio bat.

Ikus A eranskina, "iPhonea lanean", 193. orrialdean.

iTunesekin sinkronizatzea Wi-Fi bidez

iPhonea iTunesekin sinkroniza dezakezu WiFi sare berera konektatuta dagoen ordenagailu batean.

"Sincr. con iTunes via Wi-Fi" aktibatzeko: Lehen aldiz WiFi bidezko sinkronizazioa konfiguratzeko, konektatu iPhonea sinkronizatu nahi duzun ordenagailura. Horri buruzko jarraibideak eskuratzeko, ikus "Tunesekin sinkronizatzea", 21. orrialdean.

WiFi bidezko sinkronizazioa konfiguratu ondoren, iPhonea iTunesekin sinkronizatuko da egunean behin, automatikoki...

- iPhonea elikadura-iturri batera konektatzen denean;
- iPhonea eta ordenagailua WiFi sare berera konektatuta daudenean;
- iTunes zure ordenagailuan exekutatzen ari denean.

Spotlighteko bilaketa

"Búsqueda en Spotlight" doikuntzaren bidez, Buscar funtzioaren bidez zein eduki-eremutan bilatu behar den zehaztu dezakezu, baita emaitzak

berrantolatu ere.

Buscar funtzioaren bidez bilaketa zer eduki-eremutan egin behar den zehazteko: Aukeratu Ajustes > General > "Búsqueda en Spotlight", eta, gero, aukeratu bilatu nahi dituzun itemak. Bestela, aldatu emaitzen kategorien ordena.

Blokeo automatikoa

iPhonea blokeatzean, pantaila itzali egiten da, bateria aurrezteko eta iPhonea desegokiro ezin erabili ahal izateko. Deiak eta testu-mezuak jasotzen jarraitu dezakezu, baita bolumena doitu edota aurikularretako mikrofonoaren botoia erabili ere, musika entzuten edo baten batekin hizketan ari zaren bitartean.

iPhonea blokeatu arte zenbat denbora igaroko den zehazteko: Aukeratu Ajustes > General > "Bloqueo automático" eta, gero, aukeratu denboratarte bat.

Kode bidezko blokeoa

Lehenespenez, iPhoneak ez du desblokeatzeko koderik eskatzen.

Kode bat ezartzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > "Bloqueo con código", eta sartu 4 digituko kode bat. Segurtasun handiagoa izateko, desaktibatu "Código simple", eta erabili kode luzeago bat.

Kodea ahaztu baduzu, iPhonearen softwarea berrezarri beharko duzu. Ikus **"iPhonearen softwarea eguneratzea eta berrezartzea"**, 208. orrialdean.

iPhonea blokeatuta dagoela sartzen uzteko: Zoaz hona: Ajustes > General > "Bloqueo con código". Hauek erabili ahal izango dituzu iPhonea blokeatu gabe:

- Siri (ikus "Nola doitu Siriren aukerak", 55. orrialdean)
- Ahots bidezko markaketa (Siri desaktibatuta dagoenean soilik dago
 eskuragarri doikuntza hori)
- Mezu bidez erantzutea (ikus "Deiak jasotzea", 62. orrialdean).
- Passbook (ikus 16. kapitulua, Passbook, 117. orrialdean)

Okerreko kode bat hamar aldiz sartu ostean datuak ezabatzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > "Bloqueo con código", eta sakatu "Borrar datos". Okerreko kodea hamar aldiz sartu ondoren, doikuntza guztiak berrezarri egingo dira, eta datu eta eduki guztiak ezabatu egingo dira; datuen enkriptatze-pasahitza ere ezabatu egingo da (256 biteko enkriptatze-sistemaren bidez enkriptatuak).

Murrizketak

Erositako aplikazio eta eduki batzuetarako murrizketak ezar ditzakezu. Adibidez, erreprodukzio-zerrendetan helduentzako edukia duen musika agertzea edo aplikazioak instalatzea eragotz dezakete gurasoek.

Murrizketak aktibatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Restricciones, eta sakatu "Activar restricciones". Murrizketetarako kode bat definitzeko eskatuko zaizu; kode hori beharko duzu doikuntzak aldatzeko. Ezin da izan iPhonea desblokeatzeko kode bera.

Garrantzitsua. Murrizketetarako kodea ahaztu baduzu, iPhonearen softwarea berrezarri beharko duzu. Ikus "iPhonearen softwarea eguneratzea eta berrezartzea", 208. orrialdean.

Murrizketak ezar ditzakezu aplikazio hauetarako:

- Safari
- Cámara (eta kamera erabiltzen duten aplikazioak)
- FaceTime
- iTunes Store denda
- iBookstore
- Siri (diktaketa eta ahots-komandoak barne)

Hauek murrizteko aukera ere baduzu:

• Instalar apps: App Store denda desaktibatuta dago, eta ez dago haren ikonorik pantaila nagusian. iPhonean ezin da instalatu aplikaziorik.

• Eliminar apps: Ezin da ezabatu aplikaziorik iPhonetik. (2) ez da bistaratzen aplikazioen ikonoetan pantaila nagusia pertsonalizatzean.

• Lenguaje explícito: Eduki esplizituko hitzak izartxo edo txistuekin ordezten saiatuko da Siri.

 Privacidad: Localización, Contactos, Calendarios, Recordatorios, Fotos, Compartir Bluetooth, Twitter eta Facebook aukeren gaur egungo pribatutasun-konfigurazioa blokeatu egin daiteke.

• Cuentas: "Correo, contactos, calendarios" en gaur egungo doikuntzak blokeatuta daude. Ezin da konturik gehitu, aldatu edo ezabatu. iCloudeko doikuntzak ere ezin dira aldatu.

 Buscar a mis amigos: "Buscar a mis amigos" aukeraren doikuntzak blokeatuta daude. Aukera hori eskuragarri dago "Buscar a mis amigos" aplikazioa instalatzen denean.

- · Límite de volumen: Bolumen-mugaren doikuntza blokeatuta dago.
- · Compras integradas: "Compras integradas" aukera desaktibatuta

badago, ezingo duzu eskuratu App Storetik deskargatu behar den aplikazioetarako eduki edo funtzio gehigarririk.

• Solicitar contraseñas: Zure Appleko IDa sartzeko eskatuko zaizu erosketa integratuetan, zehaztutako denbora-tartea igaro ondoren.

 Restricciones de contenido: Sakatu "Puntuaciones para", eta ondoren, hautatu zerrendako herrialde bat. Gero, doitu musikaren, podcasten, filmen, telebista-saioen eta aplikazioen doikuntzak. Aukeratutako puntuazioari doitzen ez zaion edukia ez da bistaratuko iPhonean.

 Juegos multijugador: "Juegos multijugador" aukera desaktibatua baduzu, ezin izango duzu Game Centerren jolasteko gonbitik ez egin ez jaso, ez eta hango lagunik gehitu ere.

 Añadir amigos: "Añadir amigos" aukera desaktibatuta badago, ezingo duzu laguntasun-eskaerarik bidali eta jaso Game Centerren. "Juegos multijugador" aukera aktibatuta badago, zure lagunekin jokatzen jarraitu ahal izango duzu.

Eguna eta ordua

Doikuntzak egin daitezke pantailaren goialdeko egoera-barran agertzen den orduan, nazioarteko erlojuetan eta egutegietan.

iPhonean ordua 24 edo 12 orduko formatuan agertuko den zehazteko: Aukeratu Ajustes - General - "Fecha y hora", eta, gero, aktibatu edo desaktibatu "Reloj de 24 horas". (Balteke "Reloj de 24 horas" aukera ez egotea eskuragarri leku guztietan)

iPhoneak data eta ordua automatikoki eguneratuko duen zehazteko: Aukeratu Ajustes - General - "Fecha y hora", eta, gero, aktibatu edo desaktibatu "Ajuste automatico". Ordua automatikoki eguneratzeko doitzen baduzu iPhonea, telefonia mugikorreko sarearen ordu zuzena eskuratuko duzu, eta eguneratu egingo da ordu-eremuaren arabera. Operadore batzuek ez dute onartzen ordua sarearen bidez eguneratzea; beraz, baliteke leku batzuetan iPhoneak tokiko ordua automatikoki zehazterik ez izatea.

Data eta ordua eskuz doitzeko: Aukeratu Ajustes > General > "Fecha y hora", eta, gero, desaktibatu "Ajuste automático". Sakatu "Zona horaria", zure ordu-eremua doitzeko. Sakatu "Fecha y hora" botoia, eta, gero, sakatu "Ajustar fecha y hora".

Teklatua

Hizkuntza batean baino gehiagotan idazteko teklatuak aktiba ditzakezu, eta idazketa-funtzioak aktibatu eta desaktibatu ditzakezu, egiaztatze ortografikoa, esaterako. Teklatuari buruzko informazioa eskuratzeko, ikus "Idaztea", 24. orrialdean.

Nazioarteko teklatuei buruzko informazioa eskuratzeko, ikus B eranskina, "Nazioarteko teklatuak", 195. orrialdean.

Nazioartekoa

Aukeratu Ajustes > General > Internacional, hau konfiguratzeko:

- iPhonearen hizkuntza.
- Egutegiaren formatua.
- · Ahots bidezko kontrolaren hizkuntza.
- Erabiliko dituzun teklatuak.
- Dataren, orduaren eta telefono-zenbakiaren formatuak.

Irisgarritasuna

Aukeratu **Ajustes > General > Accesibilidad**, eta aktibatu nahi dituzun funtzioak. Ikus 32. kapitulua, **"Irisgarritasuna"**, 153. orrialdean.

Profilak

iPhonean profil bat edo batzuk instalatuz gero agertuko da doikuntza hau. Sakatu Perfiles, instalatuta dauden profilei buruzko informazioa ikusteko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikus **"Konfigurazio-profilak erabiltzea"**, 193. orrialdean.

Berrezartzea

Teklatuaren hiztegia, sareko doikuntzak, pantaila nagusiaren kokapena eta kokapen-oharrak berrezar ditzakezu. Eduki eta doikuntza guztiak ere ezaba ditzakezu.

iPhonea berrezartzeko: Zoaz hona: Ajustes > General > Restablecer, eta, gero, hautatu aukera bat:

• Restablecer todos los ajustes: Lehenespen eta doikuntza guztiak leheneratuko dira.

- Borrar todo el contenido y los ajustes: Informazioa eta doikuntzak ezabatu egingo dira. Ezingo da erabili iPhonea berriro konfiguratu arte.
- Restablecer los ajustes de red: Sare-doikuntzak leheneratzen badituzu, aurretiaz erabilitako sareen zerrenda ezabatuko da, bai eta konfigurazio-

profil baten bidez instalatu ez diren VPN doikuntzak ere. WiFi sistema desaktibatu eta berriz ere aktibatuko da; deskonektatu egingo da, beraz, une horretan konektatuta zauden saretik. "WiFi" eta "Preguntar al conectar" doikuntzek aktibatuta jarraituko dute. Konfigurazio-profil baten bidez instalatutako VPN doikuntzak ezabatzeko, hautatu **Ajustes > General > Perfi**l; ondoren, hautatu profila, eta sakatu **Eliminar**. Eragiketa horrekin, profilak ematen dituen beste doikuntza edo kontu batzuk ere ezabatu egiten dira.

 Restablecer el diccionario del teclado: Hitzak gehitu ditzakezu hiztegian, iPhoneak idatzi ahala iradokitako hitzak errefusatuta. Teklatuaren hiztegia leheneratuz gero, gehitu diren hitz guztiak ezabatuko ditu.

 Restablecer la disposición de la pantalla de inicio: Integratutako aplikazioak jatorrizko kokapenera itzultzen dira pantaila nagusian.

• Restablecer localiz. y privacidad: Kokapen- eta pribatutasun-konfigurazioa berrezartzen du, jatorrizko balio lehenetsiekin.

Soinuak

iPhonea doitu dezakezu soinu bat egin dezan testu-mezuak, mezu elektronikoak, deiak, Twitterreko mezuak, Facebookeko argitalpenak, ahots-postontziko mezuak edo gogorarazpenak jasotzean. Soinuak konfigura ditzakezu, halaber, mezu elektronikoak bidaltzeko, teklatuko sakatzeetarako eta iPhonea blokeatzeko.

iPhonea isilarazteari buruzko informazioa eskuratzeko, **"ikus tonua/** modu isila etengailua", 10. orrialdean.

Soinu-doikuntzak aldatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Sonidos. Aukera hauek daude eskuragarri, besteak beste:

- Konfiguratu iPhoneak deiak jasotzean bibratuko duen ala ez.
- · Zehaztu modu isila aktibatzean iPhoneak bibratuko duen ala ez.
- Aldatu tonuen eta alerten bolumena.
- Eragotzi alboko botoiei tonuen bolumena aldatzea.
- Dei-tonua doitzeko. Pertsona bati dei-tonu bat esleitzeko, zoaz haren kontaktu-txartelera.
- Doitu alertak eta beste tonu batzuk.

 Aktibatu teklatuaren sakatzeak eta iPhonea blokeatzen denerako soinu bat.

Bibrazio-sekuentziak doitzeko: Aukeratu Ajustes > Sonidos, eta hautatu item bat "Sonidos y secuencias de vibración" zerrendan. Sekuentzia bat hautatzeko, sakatu Vibración.

 Bibrazio-sekuentzia pertsonalizatu bat definitzeko: Sakatu soinu- eta bibrazio-zerrendako item bat, eta, gero, sakatu Vibración. Sakatu "Crear nueva vibración", eta, gero, definitu sekuentzia, pantaila ukituz.

Pantailaren distira eta atzealdea

Pantailaren distirak eragina du bateriaren iraupenean. iPhonea berriz kargatu arteko denbora luzatu nahi baduzu, ilundu pantaila, edo erabili "Brillo automático" funtzioa.

Pantailaren distira doitzeko: Aukeratu Ajustes > "Brillo y fondo de pantaila", eta arrastatu erreguladorea. "Brillo automático" aktibatuta badago, iPhoneak unean uneko argi-egoeraren arabera doituko du pantailaren distira, giro-argiztapena hautemateko sentsorea erabilita.

"Fondo de pantalla" doikuntzen bidez, irudi bat edo argazki bat ezarri ahal izango duzu blokeo-pantailako edo pantaila nagusiko atzeko planorako. Ikus "Pantaila-atzealdea aldatzea", 30. orrialdean.

Pribatutasuna

Pribatutasun-doikuntzekin, kokapen-zerbitzuetara eta kontaktu, egutegi, gogorarazpen eta argazkietara sartzeko aukera zer aplikaziok eta sistema-zerbitzuk duten ikusteko eta kontrolatzeko aukera duzu.

Localización funtzioarekin, kokapen-informazioan oinarritutako aplikazio batzuek (**Recordatorios**, **Mapas** eta **Cámara**, adibidez) zure kokapen geografikoari buruzko informazioa eskuratu eta erabil dezakete. Izan ere, bitarteko hauek erabiltzen ditu gutxi gorabehera non zauden jakiteko: telefonia mugikorreko datu-sareen informazioa, tokian tokiko WiFi sareak (WiFi-a aktibatuta badago) eta GPS sistema (baliteke eremu guztietan erabilgarri ez egotea). Applek kokapen-datuak jasotzeko duen moduaren bidez, ezinezkoa da informazio horren bidez zu nor zaren jakiteko: Aplikazioren bat kokapen-funtzio bat erabiltzen ari bada, **1** bistaratuko da egoera-barran.

Kokapen-zerbitzuak aktibatzeko edo desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > Privacidad > Localización. Aplikazio eta zerbitzu batzuetarako eta guztietarako desaktiba dezakezu. Kokapena desaktibatzen baduzu, aktibatzeko eskatuko zaizu aplikazio edo zerbitzu bat hura erabiltzen saiatzen den hurrengo aldian.

Sistema-zerbitzuetarako kokapena desaktibatzeko: Sistemako zerbitzu batzuek (iparrorratzaren doitzea eta iAds, adibidez), kokapenaren arabera, kokapen-zerbitzuak erabiltzen dituzte. Zure egoera ikusteko, aktibatzeko edo desaktibatzeko, edo zerbitzuak zure kokapena erabiltzen ari direnean barra-menuan bistaratzeko, aukeratu **Ajustes > Privacidad >** Localización > Servicios del sistema.

Informazio pribaturako sarbidea desaktibatzeko: Aukeratu Ajustes > Privacidad. Informaziorako sarbidea zer aplikaziok eskatu duten eta zeini onartu zaien ikus dezakezu:

- Kontaktuak
- Egutegia
- Gogorarazpenak
- Argazkiak
- · Bluetooth bidez partekatzea
- Twitter
- Facebook

Informazio-kategoria bakoitzeko aplikazio bakoitzerako sarbidea desaktiba dezakezu. Irakurri hirugarren batzuen aplikazioetako bakoitzaren terminoak eta pribatutasun-politika eskatutako datuak nola erabiltzen diren jakiteko.

A Eranskina

iPhonea lanean

Sare korporatiboetako, direktorioetako eta Microsoft Exchangeko sarbidean ematen dizun segurtasunari esker, iPhonea lanera joateko prest dago. iPhonea lanean erabiltzeari buruzko informazio xehatua eskuratzeko, ikus www.apple.comJes/iphone/business.

Konfigurazio-profilak erabiltzea

Enpresa-ingurune batean bazaude, kontuak eta beste zenbait gauza konfiguratu ahal izango dituzu iPhonean konfigurazio-profil bat instalatuz. Konfigurazio-profilekin, administratzaileak iPhonea konfigura dezake enpresako, erakunde akademikoko edo erakundeko informazio-sistemak erabil ditzan. Adibidez, konfigurazio-profil batekin, iPhonea konfigura daiteke laneko Microsoft Exchange zerbitzarietara sartzeko. Hala, iPhonea Exchangeko posta elektronikora, egutegietara eta kontaktuetara sar daiteke, eta **"Bloqueo con código"** aktiba dezake informazioaren segurtasuna bermatzeko.

Zure administratzaileak konfigurazio-profilak bana ditzake posta elektroniko bidez, webgune seguru batean jarriz edo zuzenean iPhonean instalatuz. Baliteke zure administratzaileak eskatzea profil bat instalatzeko, haren bidez zure iPhonea gailu mugikorren kudeaketa-zerbitzari batera konektatzeko. Hala, doikuntzak urrunetik konfiguratu ahal izango dituzu.

Konfigurazio-profilak instalatzeko: iPhonean, ireki mezu elektronikoa edo deskargatu zure administratzaileak adierazten dizun webguneko konfigurazio-profilak. Konfigurazio-profil bat irekitzen duzunean, instalatzen hasiko da.

Garrantzitsua. Baliteke sistemak galdetzea konfigurazio-profil bat konfiantzakoa den ala ez. Zalantzaren bat izanez gero, galdetu administratzaileari konfigurazio-profila instalatu aurretik.

Ezin da aldatu konfigurazio-profil batek definitutako konfigurazioa. Aldatu nahi baduzu, lehenik konfigurazio-profila ezabatu beharko duzu, edo, bestela, beste bat instalatu, konfigurazio berriarekin.

Konfigurazio-profil bat ezabatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Perfil, aukeratu konfigurazio-profila, eta sakatu Eliminar.

Konfigurazio-profil bat ezabatzen baduzu, konfigurazioa eta profilak instalatu duen gainerako informazioa ezabatzen dira.

Microsoft Exchangeko kontuak konfiguratzea

Microsoft Exchangek posta elektronikoari, kontaktuei, gertaerei eta egutegiari buruzko informazioa ematen du, eta automatikoki sinkroniza dezakezu iPhonearekin, haririk gabe. Exchangeko kontu bat zuzenean konfigura dezakezu iPhonean.

Exchangeko kontu bat iPhonean konfiguratzeko: Zoaz hona: Ajustes > Correo, contactos, calendarios. Sakatu "Añadir cuenta", eta, gero, Microsoft Exchange. Galdetu zure zerbitzu-homitzaileari edo administratzaileari zer konfigurazio erabili behar duzun.

VPN sare batera sartzea

Sare pribatu birtualek (VPN) sare pribatuetarako Internet bidezko sarbide segurua eskaintzen dute, adibidez, zure enpresako edo erakunde akademikoko sarera sartzeko. Erabili iPhonearen sareko doikuntzak VPNa konfiguratzeko eta aktibatzeko. Galdetu zure administratzaileari zer konfigurazio erabili behar duzun.

Automatikoki ere konfigura daiteke VPNa, konfigurazio-profil baten bidez. Hala eginez gero, IPhoneak automatikoki aktibatu ahal izango du VPNa behar den guztietan. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure administratzailearekin.

LDAP eta CardDAV kontuak

LDAP kontu bat sortzen baduzu, enpresako LDAP zerbitzariko kontaktuak ikusi eta bilatu ahal izango dituzu. Zerbitzaria talde berri modura agertzen da **Contactos** atalean. LDAP kontaktuak ez direnez iPhonean deskargatzen, Interneteko konexioa eduki behar da ikusi ahal izateko. Galdetu zure administratzaileari kontuaren konfigurazioaren eta beste betebehar batzuen berri (adibidez, VPN).

CardDAV kontu bat sortzean, kontuko kontaktuak iPhonearekin sinkronizatzen dira urrutitik. Zure enpresako CardDAV zerbitzarian datuak bilatzeko aukera ere baduzu.

LDAP edo CardDAV kontu bat konfiguratzeko: Zoaz hona: Ajustes > "Correo, contactos, calendarios", eta sakatu "Añadir cuenta". Sakatu Otra. Galdetu zure zerbitzu-homitzaileari edo administratzaileari zer konfigurazio erabili behar duzun.

B eranskina

Nazioarteko teklatuak

"Teclados internacionales" aukeraren bidez, testua hizkuntza askotan sar dezakezu, baita Asiako hizkuntzetan eta eskuinetik ezkerrera irakurtzen diren hizkuntzetan ere.

Nazioarteko teklatuak erabiltzea

"Teclados internacionales" funtzioaren bidez, testua hizkuntza askotan sar dezakezu, baita Asiako hizkuntzetan eta eskuinetik ezkerrera idazten diren hizkuntzetan ere. Teklatu bateragarri guztien zerrenda kontsultatzeko, ikus webgune hauek: www.apple.com/esiphone/specs.html. www. apple.com/mx/iphone/specs.html o www.apple.com/la/iphone/specs.html.

Teklatuak kudeatzeko: Aukeratu Ajustes > General > Internacional > Teclados.

- Teklatu bat gehitzeko: Sakatu "Añadir nuevo teclado", eta hautatu teklatu bat zerrendatik. Errepikatu ekintza hori teklatu gehiago erantsi nahi dituzun bakoitzean.
- Teklatu bat ezabatzeko: Sakatu **Editar**, sakatu 🥏 ezabatu nahi duzun teklatuaren alboan, eta sakatu **Eliminar**.
- Zure teklatu-zerrenda editatzeko: Sakatu **Editar**, eta, ondoren, arrastatu teklatu baten ondoko **=** zerrendako posizio berri batera.

Testua beste hizkuntza batean idazteko, aldatu teklatua.

Idazten ari zaren bitartean teklatua aldatzeko: Luze sakatu munduko bolaren tekla ⊕, aktibatutako teklatu guztiak bistaratzeko. Teklatu bat aukeratzeko, mugitu hatza teklatuaren izeneraino eta, ondoren, kendu hatza. Munduko bolaren tekla ⊕ teklatu bat baino gehiago aktibatu direnean soilik bistaratzen da.

Bestela, nahikoa duzu ⊕ sakatzea. ⊕ sakatzen duzunean, aktibatu berri duzun teklatuaren izena bistaratzen da une labur batez. Jarraitu sakatzen aktibatutako beste teklatu batzuetara sartzeko.

Teklatu askok teklatuak ikusi ezin diren letrak, zenbakiak eta ikurrak izaten dituzte.

 Letra azentudunak edo beste karaktere batzuk idazteko: Luze sakatu zuk nahi duzunari lotutako letra, zenbakia edo ikurra, eta, gero, lerratu hara aldagai bat aukeratzeko. Adibidez:

Thailandiar teklatu batean: Aukeratu zenbakiak dagokien zenbaki

arabiarra luze sakatuz.

 Txinatar, japoniar edo arabiar teklatu batean: Hautagaiak edo iradokitzen diren karaktereak teklatuaren goiko aldean bistaratuko dira. Sakatu hautagai bat sartzeko, edo joan ezkerrera hautagai gehiago ikusteko.

Hautagai-zerrenda zabaldua erabiltzeko: Sakatu eskuinean dagoen gora gezia hautagai-zerrenda osoa ikusteko.

- Zerrendan mugitzeko: Mugitu gora edo behera.
- · Zerrenda azkarrera itzultzeko: Sakatu gezia beherantz.

Zenbait txinatar eta japoniar teklatu erabiltzean, funtzio azkar bat sor daiteke hitz- eta sarrera-bikoteetarako. Funtzio azkarra zure hiztegi pertsonalari gehitzen zaio. Teklatu bateragarri bat erabiliz funtzio azkar bat idaztean, lotutako hitzak edo sarrerak ordeztuko du funtzio azkar hori.

Funtzio azkarrak aktibatzeko edo desaktibatzeko: Aukeratu **Ajustes > General > Teclado > Funciones rápidas**. Hauetarako funtzio azkarrak daude eskuragarri:

- Txinera sinplifikatua: pinyin
- Txinera tradizionala: pinyin eta zhuyin
- Japoniera: romaji eta 50 tekla

Idazteko modu bereziak

Teklatuak erabil ditzakezu zenbait hizkuntzatan hainbat modutara idazteko. Adibidez: Txinako cangjie eta wubihua, Japoniako kana eta aurpegierak. Hatza edo estilete bat erabilita ere idatz ditzakezu txinerako karaktereak pantailan.

Karaktere txinoak osatzeko cangjie teklak eta osagaiak erabiliz: Idazten ari zaren heinean, karaktereen iradokizunak agertuko dira. Sakatu karaktere bat hautatzeko, edo jarraitu idazten, bost osagaitaraino, aukera gehiago ikusteko.

Wubihua txinerako karaktereak (trazuak) eraikitzeko: Erabili teklatua txinerako karaktereak osatzeko, gehienez bost trazu erabiliz, idazketasegida zuzena erabilita: horizontala, bertikala, buztana, erratza eta kakoa. Adibidez, txinerako 團 karakterea (biribila) egiteko, | trazu bertikaletik hasi behar da.

 Idazten ari zaren heinean, txinerako karaktereak iradokiko dira (lehenik, karaktere erabilienak). Sakatu karaktere bat, aukeratzeko.

• Ez bazaude ziur trazua ondo egin duzun, idatzi izartxo bat (*). Karaktereen aukera gehiago ikusteko, egin beste trazu bat, eta mugitu karaktereen zerrendan.

 Sakatu bat-etortzeen tekla 匹配 idatzi duzunarekin guztiz bat datozen karaktereak soilik erakusteko.

Txinerako karaktereak idazteko: Txinera tradizionaleko edo sinplifikatuko idazketa-formatuak aktibatuta badaude, idatzi txinerako karaktereak zuzenean pantailan. Trazuak egiten ari zaren heinean, iPhoneak ezagutu egingo ditu, eta bat datozen karaktereen zerrenda bat erakutsiko du, bat egite handienetik txikienera antolatuta. Karaktere bat hautatzean, probabilitate handieneko karaktereak agertzen dira zerrendan, aukera osagarri moduan.



Karaktere konplexu batzuk, adibidez, 鱲 (Hong Kongeko Nazioarteko Aireportuaren izenaren zati bat), 乾 (igogailua) eta 陳 (kantoneran erabiltzen den partikula), bi osagai-karaktere edo gehiago jarraian idatziz sar daitezke. Sakatu karakterea, idatzitako karaktereak ordezteko. Erromatar karaktereak ere ezagutzen ditu.

Kana japonieraz idazteko: Erabili kana teklatua silabak hautatzeko. Silaba-aukera gehiago ikusteko, sakatu geziaren tekla, eta hautatu leihoko beste silaba edo hitz bat.

Romaji japonieraz idazteko: Erabili romaji teklatua silabak idazteko: Teklatuaren goiko aldean, zenbait aukera bistaratzen dira. Sakatu bat idazteko. Silaba-aukera gehiago ikusteko, sakatu geziaren tekla, eta hautatu leihoko beste silaba edo hitz bat.

Japonierako aurpegierak txertatzeko: Erabili japonierako kana teklatua, eta sakatu ^_^ tekla. Bestela:

 Japonierako romaji teklatua erabiltzeko (QWERTY-japoniera kokapena): Sakatu ma zenbaki-tekla, eta, gero, sakatu ^_^ tekla. Txinerako pinyin teklatua (sinplifikatua edo tradizionala) edo zhuyin (tradizionala) teklatua erabiltzeko: Sakatu mikurraren tekla, eta, gero, sakatu <u>^</u>.

C eranskina

Segurtasuna, erabilera eta laguntza

Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua

OHARRA. Segurtasun-jarraibide hauek errespetatu ezean, baliteke suteak, deskarga elektrikoak edo bestelako lesioak izatea edo iPhonea edo beste jabetzaren bat kaltetzea. Irakurri hemen jasotzen den segurtasun-informazio guztia iPhonea erabiltzen hasi aurretik.

Erabilera

Kontuz erabili iPhonea. Metalez, beiraz eta plastikoz egina da, eta barruan osagai elektroniko delikatuak ditu. Eroriz gero, zulatuz gero, zapalduz gero edo likidoekin bustiz gero, kaltetu egin liteke. Ez erabili puskatutako iPhonerik (adibidez, pantaila hautsia badu); baliteke zuri kalte egitea. Pantaila urratzeko beldur bazara, erabili zorro bat.

Konpontzea

Ez ireki iPhonea, eta ez saiatu konpontzen. Desmuntatuz gero, min har dezakezu, edo iPhonea kaltetu. iPhonea puskatuta badago, ondo funtzionatzen ez badu edo likidoren batekin busti bada, jarri harremanetan Applerekin edo Appleren zerbitzu-hornitzaile baimendu batekin. Hemen duzu konponketa-zerbitzuei buruzko informazio gehiago: www.apple. com/support/jiphonejservice/faq.

Bateria

Ez saiatu iPhoneari bateria aldatzen; kalte egin diezaiokezu. Baliteke gehiegi berotzea eta zuri min egitea ere. iPhonearen litio-ioizko bateria Appleren zerbitzu-hornitzaile baimendu batek edo Applek soilik alda dezake, eta birziklatu egin behar da, edo, behintzat, etxeko zaborretik bereiz bota. Ez erre bateria. Bateria nola birziklatu eta aldatu jakin nahi baduzu, ikus www.apple.com/as/batteries (Espainia), www.apple.com/ mx/batteries (Mexiko) edo www.apple.com/[a/batteries](Lationamerika).

Arreta galtzea

Zenbait egoeratan iPhonea erabiliz gero, gerta liteke arreta galtzea eta egoera arriskutsuak sortzea. Errespetatu telefono mugikorrak edo entzungailuak erabiltzea debekatzen edo mugatzen duten arauak (adibidez, saiatu testurik ez idazten autoa gidatu bitartean eta entzungailurik ez erabiltzen bizikletan zabiltzanean).

Nabigazioa

Mapek, argibideek, Flyover ikuspegiek eta kokapen geografikoko informazioan oinarritzen diren aplikazioek datu-zerbitzuak erabiltzen dituzte. Datu-zerbitzu horiek aldatu egin litezke, eta baliteke eremu guztietan eskuragarri ez egotea; ondorioz, baliteke mapak, argibideak, Flyover ikuspegiak edo kokapen-datuak ez egotea erabilgarri edo zehaztugabeak edo osagabeak izatea. Konparatu iPhoneak emandako datuak zure inguruarekin, eta erabili agerian dauden seinaleak desadostasunak ebazteko. Mapen funtzio batzuk erabiltzeko, kokapen-funtzioa aktibatua izan behar da. Ikus "**Pribatutasuna"**, 191. orrialdean. Nabigatzean, zentzu jokatu.

Bateria kargatzea

Hauek erabil ditzakezu iPhonea kargatzeko: gailuarekin batera datozen USB kablea eta korronte-egokigailua. USB 2.0rekin bateragarria den beste fabrikatzaile baten "Made for iPhone" kablea eta egokigailua edo estandar hauetakoren bat betetzen duen korronte-egokigailu bat: FN 301489-34, IEC 62684, YD/T 1591-2009, CNS 15285, ITU L.1000 edo aplika daitekeen telefono mugikorreko egokigailuen beste elkarreraginkortasun-estandar bat, Baliteke leku batzuetan iPhonerako mikroUSB egokigailu bat (bereiz saltzen da) edo beste egokigailuren bat erabili behar izatea iPhonea korronte-egokigailu bateragarri batzuetara konektatzeko. Kable edo kargagailu kaltetuak erabiltzeak edo halakoak heze daudela iPhonea kargatzeak deskarga elektrikoak eragin ditzake. iPhonea kargatzeko Appleren USB korronte-egokigailua erabiltzen duzunean, ziurtatu konektorea edo elikadura-kablea egokigailura behar bezala konektatuta daudela elikadura-hargune batean entxufatu aurretik. Korronteegokigailuak berotu egin litezke ohiko erabilerarekin, eta denbora luzez. ukituz gero baliteke min hartzea. Sajatu korronte-egokigailuen inguruan nahikoa aire uzten erabili bitartean

Oharra. Leku batzuetako microUSB korronte-egokigailuak soilik dira bateragarriak, telefono mugikorreko egokigailuen elkarreraginkortasunestandarrak betetzen dituztenak. Jarri harremanetan korronte-egokigailuaren fabrikatzailearekin zure microUSB korronte-egokigailuak estandar horiek betetzen dituen ala ez jakiteko.

Entzumen-galera

Soinuak bolumen handian entzuteak kalte egin diezaioke entzumenari. Atzealdeko zaratarekin edo bolumen handiko soinuak etengabe entzunez gero, badirudi soinuek egiaz dutena baino bolumen txikiagoa dutela. Aktibatu audioa eta begiratu bolumena zenbatean dagoen belarrian ezer jari aurretik. Entzumena galtzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus **www.apple.com/esjsound**. iPhonean gehienezko bolumen-muga bat ezartzeari buruzko informazio gehiago nahi baduzu,

ikus "Musikako doikuntzak", 66. orrialdean.



OHARRA. Entzumenari kalterik ez egiteko, saiatu ez erabiltzen bolumen handia denbora luzez.

Apple entzungailuak

Txinan iPhone 4S edo modelo berriagoekin batera datozen entzungailuek (isolatze-uztai ilun batzuk dituzte entxufean) Txinako araudia betetzen dute, eta bateragarriak dira iPhone 4Srekin eta modelo berriagoekin, iPad 2rekin eta modelo berriagoekin eta bosgarren belaunaldiko iPod touchekin. Zure gailuarekin bateragarriak diren entzungailuak soilik erabili.

Irrati-seinaleak

iPhoneak irrati-seinaleak erabiltzen ditu haririk gabeko sareetara konektatzeko. Seinale horiek transmititzeko erabiltzen den korronteari eta zure esposizioa minimizatzeko egin dezakezunari buruzko informazioa irakurtzeko sakatu hau: **Ajustes > General > Información > Aviso legal > Exposición a RF**.

Irrati-maiztasunen interferentziak

Errespetatu telefono mugikorren erabilera debekatzen edo mugatzen duten seinaleak edo oharrak (adibidez, osasun-instalazioetan edo leherketa-eremuetan). iPhonea irrati-maiztasunen emisioei buruzko araudia betetzeko diseinatu, probatu eta fabrikatu den arren, baliteke haren emisioak beste ekipo elektroniko batzuen funtzionamenduari eragitea eta horren ondorioz ekipo horiek ondo ez funtzionatzea. Itzali iPhonea edo erabili hegazkin-modua iPhonearen haririk gabeko transmisoreak desaktibatzeko haien erabilera debekatuta dagoenean; adibidez, hegazkinez bidaiatzean edo agintariek hala egiteko eskatzen dutenean.

Gailu medikoak

iPhoneak irratiak ditu, eta eremu elektromagnetikoak emititzen dituzte. Eremu elektromagnetiko horiek interferentziak eragin ditzakete taupadamarkagailuetan edo beste gailu mediko batzuetan. Taupada-markagailua badaramazu, utzi gutxienez 15 cm-ko tartea taupada-markagailuaren eta iPhonearen artean. Iruditzen bazaizu iPhonea interferentziak eragiten ari dela zure taupada-markagailuarekin edo beste gailu medikoren batekin, utzi erabiltzeari, eta galdetu medikuari zure gailu medikoari buruzko informazio espezifikoa izateko. iPhoneak imanak ditu beheko aldean, eta harekin datozen entzungailuek ere imanak dituzte. Baliteke iman horiek interferentziak eragitea taupada-markagailuekin, desfibriladoreekin edo beste gailu mediko batzuekin. Utzi gutxienez 15 cm-ko tartea taupada-markagailuaren edo desfibriladorearen eta iPhonearen edo entzungailuen artean.

Gaixotasunak

Gaixotasunen bat baduzu eta uste baduzu iPhonea erabiltzeak zure gaixotasunari eragin diezaiokeela (konbultsioak, zorabioak, begietako nekea edo buruko mina), galdetu medikuari iPhonea erabili aurretik.

Atmosfera lehergarriak

Ez kargatu eta ez erabili iPhonea lehergarriak izan litezkeen atmosferetan; adibidez, erregaia hartzeko guneetan edo aireak substantzia kimikoak edo partikulak dituen lekuetan (pikorra, hautsa edo metal birrinduak). Errespetatu seinale eta argibide guztiak.

Mugimendu errepikakorra

Ekintza errepikakorrak egiten badituzu (iPhonearekin idatzi edo jolastu, adibidez), baliteke mina sentitzea eskuetan, besoetan, eskumuturretan, sorbaldetan, lepoan edo beste gorputz-atal batzuetan. Mina sentitzen hasten bazara, utzi iPhonea erabiltzeari, eta galdetu medikuari.

Arrisku handiko jarduerak

Gailu hau ez da, berez, haren akatsek heriotza, kalte pertsonalak edo ingurumen-kalte larriak eragin ditzaketen jardueretarako.

Itotzeko arriskua

iPhonearen osagarrietako batzuekin itotzeko arriskua izan lezakete ume txikiek. Gorde osagarri horiek haurrek hartu ezin dituzten lekuan.

Erabilerari buruzko informazio garrantzitsua

Garbitasuna

Garbitu iPhonea berehala zikindu lezakeen elementuren bat ukitzen badu (hautsa, tinta, makillajea, lozioak...). Garbitzeko:

 Deskonektatu kable guztiak eta itzali iPhonea (luze sakatu egonean) aktibatuta botoia, eta, jarraian, arrastatu pantailan agertzen den erreguladorea).

- Zapi leun bat erabili, ilerik uzten ez duena.
- Kontuz ibili irekiduretan hezetasunik sar ez dadin.
- Ez erabili garbiketa-produkturik, ez eta aire konprimiturik ere.

Baliteke iPhonearen aurrealdeko edo atzealdeko estalkia beiraz egina izatea edo olioaren aurkako geruza bat izatea, hatz-markarik gera ez dadin. Estaldura-geruza hori gastatu egiten da erabilera normalarekin. Garbiketa-materialek eta material urragarriek are gehiago gastatuko dute, eta baliteke kristala urratzea ere. Baliteke gai urragarriek iPhonea urratzea ere.

Konektoreak, atakak eta botoiak erabiltzea

Ez behartu inoiz konektore bat ataka batean sartzera, eta ez sakatu indar handiegiarekin botoiei; baliteke bermeak estaltzen ez dituen kalteak eragitea. Konektorea eta ataka ez badatoz bat erraz antzean, baliteke elkarrekin konektatzerik ez izatea. Begiratu ezerk buxatzen ote duen, eta ziurtatu konektorea atakari dagokiola eta posizio egokian jarri duzula.

Lightning

Normala da Lightning konektoreak kolorea galtzea ohiko erabilerarekin. Zikinkeriak eta likidoekiko esposizioak kolorea galtzea eragin dezake. Kable garbitzeko, edo kablea erabiltzean berotu egiten bada edo ez bada kargatzen eta ez badu uzten iPhonea sinkronizatzen, deskonektatu Lightning kablea ordenagailutik edo korronte-egokigailutik, eta garbitu zapi batekin (leuna, lehorra eta ilerik askatzen ez duena). Ez erabili likidorik eta garbiketa-produkturik Lightning konektorea garbitzeko.

Funtzionatzeko tenperatura

O eta35 °C artean funtzionatzeko diseinatua da iPhonea, eta -20 eta 45 °C arteko tenperaturetan gorde daiteke. Tenperatura-tarte horietatik kanpoko balioetan gorde edo erabiliz gero, iPhonea kaltetu egin liteke, eta baliteke bateriaren balio-bizitza murriztea ere. iPhoneak ez luke jasan behar tenperatura- edo hezetasun-aldaketa handirik. iPhonea erabiltzen edo bateria kargatzen ari zarela, normala da iPhonea berotzea.

iPhonearen barruko tenperatura ohiko funtzionamendu-tartetik kanpokoa bada (adibidez, auto batean uzten bada tenperatura altuekin edo eguzkiak zuzenean jotzen badio denbora luzez), sintoma hauek nabarituko dituzu agian gailua tenperatura autoerregulatzen saiatzen den bitartean:

- iPhoneak kargatzeari uzten dio.
- Pantaila ilundu egiten da;
- Pantailan tenperaturari buruzko ohar bat agertzen da.
- · Aplikazio batzuk itxi egin litezke.

Garrantzitsua. Baliteke iPhonea erabiltzerik ez izatea tenperaturari buruzko ohar-pantaila bistaratu bitartean. iPhoneak barne-tenperatura erregulatzerik ez badu, atseden sakonean geratuko da, harik eta hoztu arte. Jarri iPhonea leku hotzago batean (eguzkiak ez dio zuzenean jo behar), eta itxaron zenbait minutuz iPhonea berriz erabiltzen saiatu aurretik.

Informazio gehiagorako, jo webgune honetara: support.apple.com/kb/ HT2101?viewlocale=es_ES

iPhonearen laguntza-webgunea

iPhoneari buruzko laguntza emateko atari oso bat duzu eskura Interneten, www.apple.com/support/iphone/country/ helbidean. Applerekin harremanetan jartzeko laguntza pertsonalizatua eskuratzeko (ez dago eskuragari leku guztietan), ikus www.apple.com/asupport/contact, www.apple.com/mx/ support/contact edo www.apple.com/asupport/contact.

iPhonea berrabiaraztea eta leheneratzea

Zer edo zer zuzen ez badabil, berrabiarazi iPhonea, behartu unean uneko aplikaziotik irtetera edo berrezarri iPhonea.

iPhonea berrabiarazteko: Luze sakatu egoneanjaktibatuta botoia, erreguladore gorria agertu arte. Lerratu hatza erreguladorean, iPhonea itzaltzeko. iPhonea berriz pizteko, luze sakatu egoneanjaktibatuta botoia, harik eta Appleren logotipoa agertu arte.

Aplikazio bat ixtera behartzeko: Luze sakatu zenbait segundoz egonean/ aktibatuta botoia, harik eta erreguladore gorria agertu arte, eta, ondoren, luze sakatu hasierako botoia, aplikazioa itxi arte.

Aplikazio bat azkena erabilitako aplikazioen zerrendatik ezabatuta ere behartzen da ixtera. Kontsultatu **"Aplikazioak irekitzea eta batetik bestera aldatzea"**, 19. orrialdean.

iPhonea ezin baduzu itzali edo arazoa konpondu ez bada, baliteke iPhonea berrezarri behar izatea. iPhonea itzali eta berriz piztuta arazoa konpontzen ez bada soilik baliatu behar da aukera hori.

iPhonea berrezartzeko: Sakatu gutxienez hamar segundoz, aldi berean, egonean/aktibatuta botoia eta hasierako botoia O, harik eta Appleren logotipoa agertu arte.

"Código incorrecto" edo "iPhone está desactivado" bistaratzen da

Kodea ahaztu bazaizu edo iPhonearen alerta batek adierazten badu desaktibatu egin dela, ikus "iOS: Dispositivo deshabilitado después de introducir un código erróneo", hemen: http://support.apple.com/kb/ HT1212?viewlocale=es_ES.

"Este accesorio es incompatible con el iPhone" bistaratzen da

Baliteke konektatu duzun osagarriak ez funtzionatzea iPhonearekin. Ziurtatu konektoreak eta USB kablea ez daudela zikinak, eta kontsultatu osagarriarekin batera datorren dokumentazioa.

Ezin dira ikusi mezuari erantsitako fitxategiak

iPhonean ez badira ikusten postari erantsitako fitxategiak, probatu hauek egiten:

 Erantsitako fitxategi bat bistaratzeko: Sakatu fitxategi erantsia, ikuspegi azkarrean irekitzeko. Baliteke pixka bat itxaron behar izatea, fitxategia deskargatu arte, ikusi ahal izateko.

 Erantsitako argazki bat edo bideo bat gordetzeko: Sakatu fitxategi erantsia, ikuspegi azkarrean irekitzeko. Baliteke pixka bat itxaron behar izatea, fitxategia deskargatu arte, ikusi ahal izateko.

Vista Rápida aukerak dokumentu hauek onartzen ditu:

- .doc, .docx-Microsoft Word
- .htm, .html- webguneak
- .key- Keynote
- .numbers-N umbers
- .pages-Pages
- .pdf- Vista Previa, Adobe Acrobat
- · .ppt, .pptx- Microsoft PowerPoint
- .rtf-testu formatuduna
- .txt-testua
- .vcf- kontaktu-informazioa
- .xls, .xlsx- Microsoft Excel

Arazoak konpontzeari buruzko informazio gehigarria eskuratzeko, ikus www.apple.com/support/iphone/country/.

iPhonearen segurtasun-kopiak egitea

iCloud edo iTunes erabil dezakezu iPhonearen segurtasun-kopia automatikoak egiteko. iCloud erabiltzen baduzu iPhonearen segurtasunkopiak egiteko, ezingo duzu iTunes erabili zure ordenagailuan segurtasun-kopia automatikoak egiteko, baina eskuzko kopiak egin ahal izango dituzu.

Nola egin segurtasun-kopiak iCloudekin

iCloudek iPhonearen segurtasun-kopiak egiten ditu egunero WiFi bidezko konexioa erabiliz, elikadura-iturri bati konektatzen zaionean eta blokeatuta dagoenean. Azken segurtasun-kopiaren data eta ordua "Almacenamiento y copias" pantailaren beheko aldean bistaratzen dira. iCloudek hauen segurtasun-kopiak egiten ditu:

- Zuk erositako musika, telebista-saioak, aplikazioak eta liburuak.
- Carreteko argazkiak eta bideoak.
- iPhonearen doikuntzak.
- Aplikazioen datuak.
- Pantaila nagusiaren eta aplikazioen antolaera.
- Mezuak (iMessage, SMS eta MMS).
- Dei-tonuak.

Oharra. Baliteke leku guztietan ez egitea erositako musikaren segurtasun-kopiak eta telebista-saioak leku guztietan eskuragarri ez egotea.

iPhonea konfiguratu zenuen lehen aldian segurtasun-kopiak aktibatu ez bazenituen, iClouden doikuntzetan aktiba ditzakezu.

iClouden segurtasun-kopiak aktibatzeko: Aukeratu Ajustes > iCloud, eta, gero, hasi saioa zure Appleko IDarekin eta pasahitzarekin, beharrezkoa bada. Aukeratu "Almacenamiento y copias", eta, gero, aktibatu "Copia de seguridad de iCloud".

Berehala segurtasun-kopia bat egiteko: Zoaz hona: Ajustes > iCloud > "Almacenamiento y copias", eta, gero, sakatu "Realizar copia de seguridad ahora".

Zure segurtasun-kopiak kudeatzeko: Zoaz hona: Ajustes > iCloud > "Almacenamiento y copias", eta, gero, sakatu "Gestionar almacenamiento". Sakatu zure iPhonearen izena.

Carreteren segurtasun-kopia aktibatzeko edo desaktibatzeko: Zoaz hona: Ajustes > iCloud > "Almacenamiento y copias", eta, gero, sakatu "Gestionar almacenamiento". Sakatu zure iPhonearen izena, eta, gero, aktibatu edo desaktibatu Carreteren segurtasun-kopia.

Segurtasun-kopiak egiten ari diren gailuak ikusteko: Zoaz hona: Ajustes > iCloud > Almacenamiento y copias > "Gestionar almacenamiento".

iClouden segurtasun-kopiak geldiarazteko: Aukeratu Ajustes > iCloud > Almacenamiento y copias > "Copia de seguridad", eta, gero, desaktibatu "Copia de seguridad de iCloud". iClouden ez da egingo iTunesen eskuratu ez den musikaren segurtasunkopiarik. iTunes erabili beharko duzu eduki horren segurtasun-kopiak egiteko eta berrezartzeko. Ikus **"iTunesekin sinkronizatzea"**, 21. orrialdean.

Garrantzitsua. Baliteke erositako musikaren edo telebista-saioen kopiak ez egotea eskuragarri leku guztietan. Baliteke zuk egindako erosketak eskuragarri ez egotea iTunes Store, App Store eta iBookstore dendetan ez bazaude.

Erosten dituzun edukiak eta Fotos en Streamingeko edukiak ez dira kontuan hartuko zure iCloudeko doako biltegiratzeko 5 GB-etan.

Nola egin segurtasun-kopiak iTunesekin

iTunesek Carrete eta **"Fotos guardadas"** albumetako argazkien segurtasun-kopia bat egiten du, bai eta testu-mezuena, oharrena, deihistoriarena, gogoen zerrendarena, soinu-doikuntzena eta abarrena ere. Ez du egiten multimedia-fitxategien segurtasun-kopiarik (abestiak eta argazki batzuk), baina iTunesekin sinkronizatuz berrezar daitezke.

Sinkronizazioa egiteko normalean erabiltzen duzun ordenagailura konektatzen duzunean iPhonea, iTunesek segurtasun-kopia bat egingo du hauetako bat egiten duzun bakoitzean:

 iTunesekin sinkronizazio bat egitean: iTunesek iPhonea sinkronizatzen du iPhonea ordenagailuari konektatzen diozun guztietan. iTunesek ez du egingo iPhonearen segurtasun-kopia automatikorik ordenagailu horrekin sinkronizatzeko konfiguratuta ez dagoen iPhone batekin. Ikus "Tunesekin sinkronizatzea", 21. orrialdean.

 iPhonea eguneratzean edo berrezartzean: iTunesek iPhonearen segurtasun-kopia bat egiten du hura eguneratu eta berrezarri aurretik.

Zure datuak babesteko, iPhonearen segurtasun-kopiak enkriptatu egin ditzake iTunesek.

iPhonearen segurtasun-kopiak enkriptatzeko: Aukeratu "Encriptar copia de seguridad del iPhone", iTunesen Resumen panelean.

iPhonearen fitxategiak eta doikuntzak berrezartzeko: Konektatu iPhonea normalean sinkronizazioa egiteko erabiltzen duzun ordenagailura, aukeratu iPhonea iTuneseko leihoan, eta sakatu Restaurar, Resumen panelean.

Segurtasun-kopiei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jo webgune honetara: http://support.apple.com/kb/HT1766?viewlocale=es_ES.

Nola ezabatu iTuneseko segurtasun-kopia bat

iTunesen bidez, iPhonearen segurtasun-kopia bat ezaba dezakezu kopien zerrendatik. Interesgarria gerta dakizuke, esate baterako, beste ordenagailu batean segurtasun-kopia bat sortu baduzu.

Segurtasun-kopiak ezabatzeko:

- 1 iTunes atalean, ireki iTunesen hobespenak.
- Mac: Hautatu iTunes > Preferencias.
- Windows: Hautatu Edición > Preferencias.
- 2 Sakatu Dispositivos (iPhoneak ez du zertan konektatuta egon).

3 Hautatu ezabatu nahi duzun segurtasun-kopia, eta ondoren sakatu "Eliminar copia de seguridad".

4 Sakatu Eliminar, aukeratutako kopia ezabatu nahi duzula baieztatzeko, eta, gero, sakatu OK.

iPhonearen softwarea eguneratzea eta leheneratzea

Ajustes atalean edo iTunes erabiliz eguneratu dezakezu iPhonearen softwarea. iPhonea ezabatu edo berrezar dezakezu, eta, gero, iCloud edo iTunes erabili segurtasun-kopia batetik abiatuta berrezartzeko.

Aurrerantzean ezin izango dituzu erabili iPhonearen erabiltzaile-interfazearen bidez ezabatutako datuak, baina ez dira iPhonetik ezabatuko. Eduki eta doikuntza guztiak ezabatzeari buruzko informazioa eskuratzeko, ikus **"Berrezartzea"**, 189. orrian.

iPhonea eguneratzea

Ajustes atalean edo iTunes erabiliz eguneratu dezakezu iPhonearen softwarea.

iPhonea haririk gabe eguneratzeko: Aukeratu **Ajustes > General >** Actualización de Software. Software-eguneraketarik badagoen aztertuko du iPhoneak.

Software-eguneratze bat egiteko iTunesen: iPhonea iTunesekin sinkronizatzen duzun bakoitzean, software-eguneraketarik eskuragarri badagoen begiratzen du iTunesek. Ikus **"iTunesekin sinkronizatzea"**, 21. orrialdean.

iPhonearen softwarearen eguneratzeari buruzko informazio gehiago duzu eskuragarri **support.apple.com/kb/HT4623?viewlocale=es_ES** helbidean.

iPhonea berrezartzea

iCloud edo iTunes erabil dezakezu iPhonea berrezartzeko segurtasunkopia batetik abiatuta.

iCloudeko segurtasun-kopia batetik abiatuta berrezartzeko: Berrezarri iPhonea doikuntza eta datu guztiak ezabatzeko. Hasi saioa iClouden, eta aukeratu **"Restaurar a partir de una copia de seguridad"**, konfiguraziolaguntzailean. Ikus **"Berrezartzea"** 189. orrialdean.

iTuneseko segurtasun-kopia batetik abiatuta berrezartzeko: Konektatu iPhonea normalean sinkronizazioa egiteko erabiltzen duzun ordenagailura, aukeratu iPhonea iTuneseko leihoan, eta sakatu Restaurar, Resumen panelean.

iPhonearen softwarea leheneratuta dagoenean, iPhonea berria balitz bezala konfigura dezakezu; bestela, segurtasun-kopiaren bat baduzu, hartan gordetako musika, bideoak aplikazioen datuak eta bestelako edukia berrezarri ahal izango dituzu.

iPhonearen softwarea berrezartzeari buruzko informazio gehiago duzu eskuragarri support.apple.com/kb/HT1414?viewlocale=es_ES helbidean.

Softwareari eta zerbitzuari buruzko informazioa

iPhonearen segurtasunari, softwareari eta zerbitzuari buruz informazio gehiago nahi izanez gero nora jo daitekeen azaltzen da taula honetan.

Nola erabili iPhonea segurtasunez	lkus "Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua", 199. orrialdean.
iPhonearen zerbitzua eta laguntzak, aholkuak, foroak eta Appleren softwarearen deskargak	Ikus www.apple.com/support/iphone/country/.
Zure operadorearen zerbitzua eta laguntza]arri zure operadorearekin harremanetan, edo sartu haren webgunean.
iPhonearen azken nobedadeak	Ikus www.apple.com/es/iphone (Espainia) edo www.apple.com/iphone/countries/ (Mexiko eta Latinoamerika).
Appleko ID kontuaren kudeaketa	Ikus https://appleid.apple.com/es_ES, https:// appleid.apple.com/es_MX (Mexiko) edo https:// appleid.apple.com/es_LA (Latinoamerika).
Nola erabili iCloud	Ikus www.apple.com/es/support/icloud, www. apple.com/mx/support/icloud edo www. apple.com/la/support/icloud.

Gai hauei buruzko informazioa eskuratzeko	Egin hau
Nola erabili iTunes	Ireki iTunes, eta hautatu Ayuda- Ayuda iTunes. Interneten iTunesi buruz eskuragari dauden ikaskuznak lotzeko (baliteke herrialde eta eskualde guztietan erabilgari ez egotea) bisitatu www.apple.com/es/ support/itunes.
Appleren beste iOS aplikazio batzuk erabiltzea	Ikus www.apple.com/es/support/ios.
Berme-aldiko zerbitzu teknikoa	Lehenik eta behin, jarraitu eskuliburu hone- tako gomendioei. Gero, ikus www.apple.com/ support/iphone/country/.
iPhonearen erregulazioei buruzko informa- zioa bistaratzea	iPhonean, sakatu Ajustes > General > Infor- mación > Aviso legal > Regulaciones .
Bateria aldatzeko zerbitzua	Ikus www.apple.com/es/batteries/replace- ments.html, www.apple.com/mx/batteries/ replacements.html edo www.apple.com/la/ batteries/replacements.html.
iPhonea enpresa-giroan erabiltzea	Ikus www.apple.com/es/iphone/business/ iPhonearen enpresa-prestazioei buruzko informazio gehiago eskuratzeko (besteak beste, Microsoft Exchange, IMAP, CalDAV, CardDAV eta VPN).

iPhonea enpresa-giroan erabiltzea

Ikus www.apple.com/es/iphone/business/ iPhonearen enpresa-prestazioei buruzko informazio gehiago eskuratzeko (besteak beste, Microsoft Exchange, IMAP, CaIDAV, CardDAV eta VPN).

Nola erabili iPhonea telefono mugikorreko beste operadore batzuekin

Zenbait operadorek iPhonea desblokeatzeko eta haien sarean erabiltzeko aukera ematen dute. Zure operadoreak aukera hori eskaintzen duen jakiteko, begiratu **support.apple.com/kb/HT1937?viewlocale=es_ES** helbidean.

Jarri zure operadorearekin harremanetan, behar den baimenari eta konfigurazioari buruzko informazio gehiago lortzeko. iPhonea iTunesen konektatu beharko duzu prozesua osatzeko. Baliteke tarifa gehigarriak aplikatzea.

Arazoak konpontzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jo webgune honetara: support.apple.com/kb/TS3198?viewlocale=es_ES.

Hondakinei eta haiek birziklatzeari buruzko informazioa

Apple birziklatze-programa (zenbait herrialdetan dago abian): Telefono mugikor zaharra doan birziklatzeko, aurrez ordaindutako igorpen-etiketa bat lortu behar duzu, eta jarraitu beharreko argibideak irakurri. Horretarako jo helbide honetara: www.apple.comjes/recycling.

iPhonea botatzeko eta birziklatzeko: iPhonea tokian tokiko araudian ezarritako gunean eta moduan bota behar da. iPhoneak osagai elektronikoak eta bateria dituenez, ezin da etxeko gainerako hondakinekin batera zakarretara bota. Horrenbestez, iPhonearen bizitza ballagarria amaitzen denean, jarri harremanetan tokian tokiko agintariekin birziklatze-aukerei buruz galde egiteko. Bestela, Apple dendan utz dezakezu edo Appleri itzuli. Bateria atera eta birziklatu egingo da, betiere ingurumenarekin arduraz jokatuz. Informazio gehiago eskuratzeko, ikus www.apple.com/es/icloud/recycling.

Bateria ordezteko: iPhonearen litio-ioizko bateria Appleren zerbitzuhomitzaile baimendu batek edo Applek sollik alda dezake, eta bizziklatu egin behar da, edo, behintzat, etxeko zaborretik bereiz bota. Bateria ordezteko zerbitzuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus: www.apple.comjes/batteries/replacements.html (Espainia), www.apple. com/ mx/batteries/replacements.html (Mexiko) edo www.apple.com/la/ batteries/replacements.html (Latinoamerika).

Bateria-kargagailuaren efizientzia



Türkiye

Türkiye Cumhuriyeti: EEE Yönetmeligine Uygundur.

台灣



廢電池請回收

Unión Europea: información sobre eliminación de dispositivos electrónicos y baterías



El símbolo anterior indica que, de acuerdo con la normativa local, este producto y/o su batería no se desechará junto con los residuos domésticos. Cuando llegue al final de su vida útil, llévelo a los puntos de recogida estipulados por la administración local. La recogida selectiva y el reciclaje del producto y/o de su batería en el momento de desecharlo contribuirán a preservar los recursos naturales y a proteger la salud humana y el medio ambiente.

Union Europeenne-informations sur l'elimination: Le symbole ci-dessus signife que, conformé-ment aux lois et réglementations locales, vous devez jeter votre produit et/ou sa batterie sépa-rément des ordures ménagères. Lorsque ce produit arrive en fin de vie, apportez-le à un point de collecte désigné par les autorités locales. La collecte séparée et le recyclage de votre produit et/ou de sa batterie lors de sa mise au rebut aideront à préserver les ressources naturelles et à s'assurer qu'il est recyclé de manière à protéger la santé humaine et l'environnement.

Europaische Union-Informationen zur Entsorgung: Das oben aufgeführte Symbol weist darauf hin, dass dieses Produkt und/oder die damit verwendete Batterie den geltenden gesetzlichen Vorschriften entsprechend und vom Hausmüll getrennt entsorgt werden muss. Geben Sie dieses Produkt zur Entsorgung bei einer ofziellen Sammelstelle ab. Durch getrenntes Sammeln und Recycling werden die Rohstofreserven geschont und es ist sichergestellt, dass beim Recycling des Produkts und/ oder der Batterie alle Bestimmungen zum Schutz von Gesundheit und Umwelt eingehalten werden.

Unione Europea-informazioni per lo smaltimento: Il simbolo qui sopra significa che, in base alle leggi e alle normative locali, il prodotto ejo la sua batteria dovrebbero essere riciclati separa-tamente dai rifuti domestici. Quando il prodotto diventa inutilizzabile, portalo nel punto di rac-colta stabilito dalle autorità locali. La raccolta separata e il riciclaggio del prodotto ejo della sua batteria al momento dello smaltimento aiutano a conservare le risorse naturali e assicurano che il riciclaggio avvenga nel rispetto della salute umana e dell'ambiente.

Europeiska unionen-information om kassering: Symbolen ovan betyder att produkten och jeller dess batteri enligt lokala lagar och bestämmelser inte får kastas tillsammans med hushåll-savfallet. När produkten har tjänat ut måste den tas till en återvinningsstation som utsetts av lokala myndigheter. Genom att låta den uttjänta produkten och jeller dess batteri tas om hand för återvinning hjälper du till att spara naturresurser och skydda hälsa och miljö.

Brasil: Informacoes sobre descarte e reciclagem



O símbolo acima indica que este produto e/ou sua bateria não devem ser descartadas no lixo doméstico. Quando decidir descartar este produto e/ou sua bateria, faça-o de acordo com as leis e diretrizes ambientais locais. Para informações sobre o programa de reciclagem da Apple, pontos de coleta e telefone de informações, visite **www.apple.com/br/** environment.

Apple eta ingurumena

Applekook badakigu gure erantzukizuna dela gure jarduerekin eta produktuekin ingurumenari sortzen diogun eragina ahalik eta gehien murriztea. Informazio gehiago jasotzeko, ikus: www.apple.com/es/ environment, www.apple.com/mx/environment edo www.apple.com/ lajenvironment.

Apple Inc.

(c) 2013 Apple Inc. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Hauek guztiak Apple Inc-en marka komertzialak dira: Apple, Appleren logotipoa, AirPlay, AirPort, AirPort Express, AirPort Extreme, Apple TV, Cover Flow, FaceTime, Finder, IBooks, ICal, ILIfe, IMovie, IPad, IPhone, IPhoto, IPod, IPod touch, Sight, iTunes, Keynote, Mac, Mac OS, Numbers, OS X, Pages, Passbook, Safari, Siri, Spotlight, Time Capsule eta "Works with IPhone" logotipoa, eta halaxe erregistratuta daude bai Estatu Batuetan, bai beste herrialde batzuetan.

AirPrint, EarPods, Flyover, Acceso Guiado, iMessage, "Made for iPhone" logotipoa eta Multi-Touch Apple Inc.en marka komertzialak dira.

Apple Store, Genius, iAd, iCloud, iTunes Extras, iTunes Plus eta iTunes Store Apple Inc-en zerbitzu-markak dira, eta halaxe erregistratuta daude bai Estatu Batuetan, bai beste herrialde batzuetan.

App Store, iBookstore eta iTunes Match Apple Inc.-en zerbitzu-markak dira.

IOS merkataritza-marka bat da, eta Ciscoren marka erregistratua da, bai Estatu Batuetan, bai beste herrialde batzuetan, eta lizentziapean erabiltzen da. NIKE eta Swoosh Design NIKE, Inc.-en eta haren filialen marka komertzialak dira, eta lizentziapean erabiltzen dira.

Bluetooth(r) hitza, marka eta logotipoak Bluetooth SIG, Inc.-en jabetzapeko merkataritza-marka erregistratuak dira, eta Apple Inc.-ek lizentziapean erabiltzen ditu beti.

Adobe eta Photoshop Adobe Systems Incorporateden merkataritza-markak edo merkataritza-marka erregistratuak dira, bai Estatu Batuetan bai beste herrialde batzuetan.

Hemen aipatutako beste produktu edo enpresa batzuen izenak haien titularren merkataritza-markak izan litezke.

Hirugarren batzuen produktuak aipatu direnean, informazioa emateko baino ez dira aipatu, eta ez produktu horiek onesteko edo gomendatzeko asmoz. Applek ez du inolako erantzukizunik hartzen produktu horien erabilerari edo jardunbideari dagokionez, Akordio, xedapen edo berme guztiak, halakorik egonez gero, hornitzaileen eta litezkeen erabiltzaileen artean zehaztuko dira zuzenean. Eskuliburu hau kontu handiz idatzi da. bertan agertzen den informazioa zehatza dela bermatzeko. Applek ez du inolako erantzukizunik izango eskuliburua inprimatzean edo kopiatzean akatsik egonez gero.

E019-2344/2013-1